

INDUSTRIA POLITIKA LANGILE KLASEAREN ZERBITZURA

Diagnostiko eta proposamen integrala
ikuspegi ekosozialetik

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**MANU
ROBLES
ARANGIZ
FUNDAZIOA**



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Azterketa Bulegoak egina

@mrafundazioa

www.mrafundazioa.eus

Bilbo. 2026ko ekaina

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Industria politikaren beharra	3
2.1. Industria politikaren itzulera.....	3
2.2. Industria politika eraldatzailerako tresnak.....	5
2.3. Finantzaketari buruz	6
2.4. Trantsizio ekologikoaren erronka.....	7
2.5. Langileengandik sortu eta langileentzako egindako industria politika.....	8
3. Ingurune makroekonomiko eta industrialaren bilakaeraren azterketa eta diagnostikoa	10
3.1. Munduko eta Europako diagnostikoa	10
3.2. Hego Euskal Herriko diagnostikoa.....	12
3.2.1. BPGa eta erlazioatutako adierazle makroekonomikoak	12
3.2.1.1. Balio Erantsi Gordinaren (BEG) metodoa	15
3.2.1.2. Gastuaren metodoa.....	18
3.2.1.3. Errenten araberako metodoa	21
3.2.2. Beste adierazle makroekonomiko batzuk	26
3.2.2.1. Lanaren produktibitatea.....	26
3.2.2.2. Unitateko lan kostuak.....	29
3.2.2.3. Irabazi tasa.....	31
3.2.2.4. Zor pribatua	32
3.2.2.5. Zor publikoa.....	34
3.2.2.6. Kanpo txertaketa.....	35
3.2.3. Industriako adierazleak.....	44
3.2.3.1. Industriako ehunduraren ezaugarriak	45
3.2.4. Enplegua.....	48
3.2.5. Lurralde egitura.....	52
3.2.5.1. BPG.....	52

3.2.5.2. Enplegua.....	56
3.2.6. Industriaren egungo metabolismoa.....	58
3.2.6.1. Muga materialak	60
3.2.5.2. Energia berriztagarrien mugak	61
3.2.6.3. Hondakin industrialak.....	61
4. Industria politikaren atzerabegirakoa	62
4.1. Europar Batasuna.....	62
4.2. Espainiar Estatua.....	64
4.3. Hego Euskal Herria.....	67
4.4. Egungo erreferentzia-esparrua.....	71
5. Proposamenak.....	74
5.1. Gobernantza eta jabetza.....	75
5.1.1. Arkitektura instituzionala	75
5.1.2. Enpresetan eta jabetzan esku hartzea	76
5.2. Finantzaketa eta inbertsioa	77
5.2.1. Baldintzak eta kontrol demokratikoa	78
5.2.2. Finantza arkitektura eraldatzailea.....	78
5.2.3. Inbertsioa eta berrikuntza	79
5.3. Araudia eta eskubide sindikalak	80
5.3.1. Egungo araudia gainditzea.....	80
5.3.2. Informazio, kontsulta eta kontrolerako eskubide sindikalak.....	81
5.4. Lan indarra: lan baldintzak eta trebakuntza.....	81
5.4.1. Trebakuntza eta zaintza	82
5.4.2. Lan baldintzak	83
5.5. Baliabideak, azpiegiturak eta lurraldea	83
5.5.1. Metabolismo materiala.....	84
5.5.2. Energia eta ekonomia zirkularra.....	84

5.5.3.	Lurralde-plangintza.....	85
5.5.4.	Mugikortasuna eta logistika	85
5.5.5.	Industria-zerbitzu aurreratuak	86
5.5.6.	Burujabetza teknologikoa.....	86
5.6.	Errotzea eta burujabetza.....	86
5.6.1.	Errotzea	87
5.6.2.	Burujabetza	87
5.7.	Eskaria	88
5.7.1.	Barne eskaria	88
5.7.2.	Kanpo eskaria.....	88
5.8.	Politika sektoriala: lehentasunak, eraldaketa eta inbertsioaren berrorientazioa.....	89
5.8.1	Erreproduzio sozialerako kateak	90
5.8.1.1.	Elikadura.....	90
5.8.1.2.	Eraikuntza	91
5.8.1.3.	Zaintzak.....	92
5.8.1.4.	Oinarrizko zerbitzuak	93
5.8.1.5.	Ondasunak eta oinarrizko kontsumo-jarduerak.....	94
5.8.2.	Trantsizio ekologikorako kateak	95
5.8.2.1.	Energia	95
5.8.2.2.	Birziklapena eta ekonomia zirkularra	96
5.8.2.3.	Mugikortasuna	97
5.8.2.4.	Logistika eta garraioa	98
5.8.3.	Gaitasun teknologikorako kateak.....	98
5.8.3.1.	Diseinua, ingeniari-tza eta makineria aurreratua	98
5.8.3.2.	Enpresentzako zerbitzuak.....	99
5.8.4.	Desinbertsioa	100
6.	Bibliografia	102

1. SARRERA

Egungo sistema ekonomiko, politiko eta sozialak eragindako krisi ekologikoa etengabe larriagotu da Industria Iraultza hasi zenetik. Industriaren hedapena historikoki oinarritu da erregai fosil asko eta merkea izatean, eta horri esker ugaritu da materialen erabilera, ekoizpena biderkatu da eta abiaduran, metaketan eta hazkunde mugagabearen oinarritutako eredua finkatu da. Ereduek produktibista eta estruktibista horrek, hamarkadetan garapenaren sinonimotzat hartu denak, gaur egun argi eta garbi erakusten ditu bere mugak: ekonomia globala egoera kritikoa dago, petrolio merkea agortzen ari delako eta gero eta handiagoak direlako erazketak eta erreserba berriak eskuratzeko zailtasun tekniko eta ekonomikoak. Era berean, baliabide fosilen kontrolengatik sortutako tentsio geopolitikoek agerian uzten dute planetaren muga fisikoak errespetatzen ez dituen ekonomikoaren hauskortasuna.

Azken bost hamarkadetan, tentsio horiek gertatu dira ekonomia globalaren antolaketan izandako aldaketa sakonekin batera. 70eko hamarkadaren amaieratik, ELGAko herrialde nagusiek sustatu zituzten politika neoliberalak, ondoren Hego Globalaren zati handi batean aplikatu eta inposatu direnak, eta horiek izan dira merkataritza liberalizazioan eta kapitalen desarautzean oinarritutako globalizazioaren oinarriak. Prozesu horrek berrantolatu zuen ekoizpena balio-kate globalen bidez, eta faserik estandarizatuak eta kutsatzailen lekualdatu ziren lan kostu txikiak eta ingurumen araudi malguak zituzten herrialdeetara. Diseinua, logistika eta finantzak, berriz, erdialdeko herrialdeetan kontzentratuta zeuden. Horren ondorioz, lurralde askotan espezializazioak atzera egin du, eta gero eta ekoizpen autonomia txikiagoa dute eta baliabide naturalak gero eta gehiago ustiatzen dituzte. Globalizazioak, etengabeko hedapenaren logikak bultzatuta, ondorio zuzenak izan ditu planetaren biodibertsitatean, ekosistemetan eta ingurumenaren osasunean.

Testuinguru horretan, industria politikak berreskuratu dute zentraltasuna, eta hamarkadetan gertatu ez bezala, kolokan dago merkatuek baliabideak eta inbertsioak eraginkortasunez esleitzeko duten gaitasunaren gaineko fedea. Krisi ekonomiko, klimatiko, sanitario eta geopolitikoek zalan-tzan jarri dute paradigma hori. Pandemiak azaleratu du hornikuntza-kate globalen hauskortasuna: energiaren garestitzeak eta tentsio geopolitikoek ikusarazi dituzte mendekotasun estrategikoak eta areagotu dute lehia teknologikoak funtsezko produkzioaren gaitasunak kontrolatzeko lasterketa. Horrek guztiak azaleratu dute enpleguari eta muga ekologikoekin bateragarriak diren trantsizioei ekiteko ezintasunak. Horregatik, industria politika birpentsatzea eztabaida guztiz politikoa da gaur egun; erabaki behar da zein sektore lehenetsi, zer nolako enplegua sortu eta zein kalitatekoa, zein gaitasuni eutsi edo garatu, eta nola berma daitekeen trantsizio ekologikoa, enpresa errentagarritasunaren mende egon beharrik gabe.

Txosten honen abiapuntua honakoa da: industria politikari buruzko eztabaida sakon batek uztatu behar ditu egiturazko diagnostikoa eta proposamenak. Horregatik, sarrera honen ondoren, industria politikaren beharra jorratzen du txostenak, eta aztertzen ditu esku-hartze publikoa ezinbesteko egiten duten arrazoi ekonomikoak, sozialak eta ekologikoak. Baita trantsizio ekologikoari eta laboralari lotutako ikuspegi, tresna, finantzaketa mekanismo eta erronka nagusiak ere.

Hurrengo atalak jasotzen du mundu mailako, Europako eta batez ere Hego Euskal Herriko diagnostikoa. Bertan, makroekonomiaren, industriaren eta enpleguaren adierazle nagusiak aztertzen dira, baita industriaren egungo ezaugarriak eta izaera ere. Diagnostiko hori joera kuantitatiboan azterketan oinarritzen da, eta saiatzeko da egungo produkzio sistemen funtzionamenduaren sako-neko kausak azaltzen, hau da, metaketa dinamikak, industria espezializazioa edo kanpo txertatzea, besteak beste.

Laugarren kapituluak, bestalde, industria politikaren azken hamarkadetako ibilbidea laburbiltzen du Europan, Espainiako Estatuan eta Hego Euskal Herrian aplikatutako industria politiken begirada historikoa eskainiz. Ibilbide horri esker, aurrerapenak identifika daitezke, baina baita errepika-

tzen diren mugak ere: eten estrategikoak, tresna gutxiegi edo orokorregiak, erabaki gune ez oso demokratikoak eta industria, energia, lan eta ingurumen politikaren arteko deskonexio kronikoa.

Azkenik, industria, ekoizpen eta ekonomia garapenerako neurrien proposamenak jasotzen dira, irizpide ekosozialekin eta sei ardatzetan antolatuta: ekonomiaren zuzendaritza politikoa, eskaintzaren eta eskariaren gaineko esku hartzearen dimentsioak, errotzea eta burujabetza, eta balio kateen arabera lehenesten, eraldatzen edo desinbertitzen den politika sektorial eraldatzailea. Helburua da aurrera egitea balio erantsia modu iraunkorren sortu, kanpoko ahultasunak murriztu eta gehiengo sozialaren bizi baldintzak hobetuko dituen ekoizpen eredu baterantz.

Dokumentua da langile klasearentzat, esplizituki langile klasearen ikuspegitik. Baztertzeko erabakien eraginkortasunera murrizten duen begirada teknokratikoa, eta aldarrikatzen du industria orientazioek printzipio demokratikoei eta interes kolektiboari erantzun behar dietela. Ordena kapitalista zalantzan jartzen du, bizitza eta lana errentagarritasun finantzarioaren azpian kokatzen dituelako, eta egungo errealitatetik abiatuta, neurriak proposatzen ditu etorkizuna eraldatzeko. Horretarako, ekoizpena lurraldean sustraitu behar da, ekoizpen eta energia subiranotasuna indartu, erabaki ekonomikoak demokratizatu eta metabolismo industrial muga ekologikoen barruan berrantolatu.

2. INDUSTRIA POLITIKAREN BEHARRA

Deskribaturiko testuinguruan, zergatik da beharrezkoa herrialdeko ekonomia politika guztiaren erdigunean egongo den industria politika sendo bat ezartzea? Lehenik eta behin, industriak oso eragin desberdina du zerbitzuekin alderatuta burujabetza produktiboari dagokionez: hemen ekoizten duguna ez dugu beste herrialde batzuetan eskuratu beharko eta hala arrisku txikiagoa izango dugu beste herrialde batzuetako merkataritza edo kanpo politikan egon daitezkeen balizko aldaketekin; hau da, merkataritza balantzaren saldoari dagokionez. Horrez gain, industriaren aldeko apustuak domino efektuak du ekonomiako sektore guztietan, amaierako eta tarteko eskariaren iturria baita. Hori erabakigarria da Euskal Herriko joandako industrien birlokalizazioan (Future Policy Lab, 2023) eta lurraldean hurbileko kateak garatzeko. Hala ere, batez ere eragin handiagoa du ekoizpen gaitasunean, hau da, produktibitatean (Nordhaus, 2008), horren arabera delako, azken finean, ekoiztu eta, beraz, banatu ahal izango dugun ondasun multzo osoa.

Hortaz, industria kokatzen da erreproduzio sozial osoaren erdigunean, gizarte osoaren beharrak asetzeko ondasunak ekoizteko lan sozial antolatutzat ulertuta. Ez da, ordea, gizartean egiten den lan bakarra. Merkantziak sortzeko lana, zerbitzuak edo zaintzak eta bizitzari eusteko lanak ere produkzio eta erreproduzio sozialeko prozesu osoaren parte dira (Vogel (1995) Bhattacharya, 2020n aipatua): bata ez da posible bestea gabe eta guztiak osatzen du gizakiak, gizarte moduan antolatuta, espezie gisa bizirauteko egituratzen duen prozesua.

Industria politika sendo baten beharra ere erakusten dute honako argudioek: lehenik eta behin, industriak menpekotasun txikiagoa du sasoiko ekoizpenarekin eta ondorioz, enplegua egonkortzen laguntzen du (Future Policy Lab, 2023). Ziklo ekonomikoek ere eragina izan dezaketen arren, industriaren egiturazko oinarriek aukera eskaintzen dute epe luzeko plangintzak egiteko. Bigarrenik, industria indartsua garatuta tokiko ekonomiak dinamizatu daitezke eta lurraldea ardatz hartu, kalitatezko enplegua sortzeko eta gaitasun teknologikoen eta azpiegituren garapena estimulatzeko. Horrez gain, berrikuntzarako sektore garrantzitsua da industria, bai prozesuetan, bai produktuetan; horregatik, ahalbideratzen du trantsizio ekologikorako eta isuri kutsakor txikiagoko ekonomia baterako beharrezko ondasun guztiak garatzea eta ekoiztea.

Hori guztia dela eta, politika industrial irmo eta demokratikoki planifikatuak eraldaketa sozioekonomikorako edozein estrategiaren parte izan behar du. Kontua ez da dagoen industria defendatzea, baizik eta zer ekoiztu, nola ekoiztu eta norentzat ekoiztu behar den berriz definitzea, irizpide sozial, ekologiko eta tokikoekin. Horrela, industria trantsizio justuarentzako bultzada izan ahal da, ongizate kolektiboa bermatzeko eta ingurunearekiko oreka berrezartzeko.

2.1. Industria politikaren itzulera

Duela gutxira arte, paradigma ekonomiko menderatzailearen mende zegoen industria politika. 80ko hamarkadan, neoliberalismoaren gorakada hasi zenetik eta, batez ere, bloke sozialista erori zenetik, murriztuz joan zen estatuen esku hartzea; ekonomian 'laguntzaile' huts bihurtu ziren. Hazkunde ekonomikoa bihurtu zen helburu nagusi eta ia bakarra, eta merkatua hartu zen baliabideak esleitzeko mekanismo eraginkorrenetzat. Testuinguru horretan, industria politikak galdu zuen bere izaera estrategiko eta selektiboa: estatuak mugatu ziren merkatuaren 'akatsak' zuzentzera, azken inbertitzaile gisa jardutera eta hazkunderako baldintza orokorrak bermatzera (García eta Fernández, 2021).

Ondorioz, aldaketa estrukturalak ez ziren berriaz egin beharrekook, baizik eta hazkunde agregatuaren eta faktoreen produktibitate osoaren hobekuntzaren ondorio naturaltzat jotzen ziren. Ikuspegi horrek ekonomiaren norabidea despolitizatzen zuen eta inbertsio pribatuaren erabaki indibidualen esku uzten zuen sektoreko lehentasunak definitzeko lana. Faktore produktiboen

kalitatea termino teknikoetan neurtzen zen, eta baztertu egiten zen arlo publikotik eraldaketa es-
trukturalerako helburuak ezartzeko edozein saiakera.

Ikuspegi hori zalantzan dago. Diru sarrera handiko herrialdeen desindustrializazioak, diru sarrera
ertaineko herrialde askoren desindustrializazio goiztiarrak eta potentzia industrial berri gisa Txin-
nak izandako gorakadak birplanteatu dituzte garapen ekonomikoaren oinarriak. Gero eta ahots
gehiagok defendatzen dute hazkundeak ez duela berez garapen eta jasangarritasun sozial edo
ekologikoa bermatzen. Horregatik, industria politikak kokatu dira berriro erdigunean, helburu so-
zioekonomikoekin edo ingurumenekoekin lotutako sektore estrategikoak sustatzeko tresna gisa.

Hala, ez da kasualitatea industria politikarekiko interesa berriro indartu izana. Produktu globala-
ren eta produktibitatearen geldotzea gertatu da testuinguru global batea, eta hori asko dokumen-
tatu dute hainbat esparruetako ikertzaileek. Horrez gain, pandemiak, Ukrainako gerrak eta Txina
eta Ameriketako Estatu Batuen arteko tentsio komertzialek agerian utzi dute balio kate globaliza-
tuen zaugarritasuna, eta eztabaida zabaldu da berriro estatuak ekonomian duten paperaz.

Bestalde, industriako potentzia gisa Txinak izan duen gorakada erabakigarria izan da paradig-
ma aldaketa horretan. Txinako ereduaren arrakasta oinarritzen da estatuaren esku-hartzean
eta zalantzan jartzen du ortodoxia neoliberalak; beste potentzia ekonomiko batzuk bultzatutako
politikak birpentsatzea ekarri du. Perry Anderson egileak (2023) adierazi zuen moduan, Txinaren
ondorioa da ekonomian parte-hartze publiko handiagoa izatearen aldeko jarrerak, eta ez teoria
ekonomiko berri baten emaitza.

Hala ere, Cédric Durandek (2023) ohartarazi zuen estatuaren rola ez zela inoiz guztiz desager-
tu, ezta hegemonia neoliberalaren urteetan ere. Bere funtzioak eraldatu besterik ez ziren egin:
garapenaren sustatzaile izatetik, kapital finantzarioaren interesen bermatzaile izatera igaro zen.
Hortaz, industria politikarekiko interesa berriro piztea ez da berria, baizik eta erabat alboratuak
izan ez diren tresnak berreskuratu besterik ez dira egin.

Hori horrela, bada galdera garrantzitsu bat: industria suspertzeko politika publikoak gai dira in-
dustria zehatzak berraktibatzeke eta metaketa produktibo jasangarria sustatzeko? Egile batzuk,
hala nola Aaron Benanav (2022), eszeptikoak dira. Egungo mundu mailako gehiegizko ekoizpen
gaitasunak mugatu egiten du politika horien jarduteko tartea, lehiakorak ez diren enpresak diruz
lagundu ditzaketelako eta sakondu dezaketelako egiturazko eraginkortasun faltan.

Gainera, ekoizpen inbertsio txikiko testuinguruetan, irabaziei eusteko bide nagusia da lanari
balioa kentzea. Horrek elikatzen du prekarizazioaren, kontsumo baxuaren eta inbertsio eskasen
sorgin gorpila (Brenner, 2020). Era berean, mugatzen du hazkundearen emaitzak modu pareki-
deagoan banatu ahal izateko gaitasuna, bai banaketa terminoetan, bai banaketa aurre-banaketa
terminoetan.

Egoera horren aurrean, inbertsio publikoak badu eraldatzeko gaitasuna, betiere ez bada merka-
tuaren logikak erreproduzitzera mugatzen. Inbertsio publikoa ez dagoenez errentagarritasun pri-
batuak baldintzatuta, interes orokorrera bideratutako ekonomiaren hedapenerako motorra izan
daiteke (Benanav, 2022). Logika horrek berarekin dakar ekonomikoaren kontzepzio politikoa, ez
soilik teknikoa. Hori dela eta, kapitala diziplinatzeke mekanismo publiko edo kolektiboak lortzeko,
eta inbertsioa sektore estrategiko eta sozial beharrezkoetara bideratzeko irizpide demokratikoen
arabera, Durandek (2023) proposatzen du aurrerapausoak ematea.

Horri dagokionez, desadostasunak desadostasun, garrantzitsua iruditzen zaigu Mariana Mazzu-
catoren (2021) ekarpenak berreskuratzea. Industria politikari balio handiagoa ematearen alde-
ko mundu mailako erreferentzietako bat da. Hala dio egileak: ez da aski hazkunde ekonomikoa
bilatzea, eta inbertsioa, berrikuntza eta ekoizpena helburu zehatzetara bideratu behar dira, gure

garaiko erronka handiei erantzuteko: trantsizio ekologikoa, desberdintasunak murriztea, burujabetza teknologikoa edo ongizate kolektiboa. Bere ustez, merkatuak huts egiten duen lekuan esku hartu beharrean, Estatuak merkatuak sortzeko eragilea izan behar du, lehentasun kolektiboak definitu eta eragile publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak artikulatu behar du; “misioek bideratutako gobernantza” esaten dio horri.

Kontzepzio berri horren arabera, industria politika ez da mugatzen ekoizpen tradizionala sustatzera. Ekoizpen jarduera estrategiko guztietara zabaltzen da: zerbitzu aurreratuen sektoreetara, jarduera zientifiko eta teknologikoetara eta baita oinarrizko sistema publikoak indartzera ere, hala nola osasuna edo hezkuntza. García eta Fernándezek (2021) planteatzen duten moduan, helburua da ohiko sektore tradizional edo teknologikoetatik harago joatea eta interes orokorrera bideratutako plangintza publikoaren gaitasuna berrezartzea.

Ikuspegi berri horren alderdi nagusietako bat da demokraziak inbertsioen bideratzean duen rola. Mazzucatok bere *El valor de las cosas* (2019) laneandioenarekin bat egiten dugu: inbertsioen helburua kolektiboki erabaki behar da. Horri dagokionez, berrikuntza ez da fenomeno neutrala: zer inbertitzen den, nola inbertitzen den eta inbertsio horren etekinak norentzat diren kontuan hartu behar dira. Horregatik, ezinbestekoa da garapenaren lehentasunak, etekinen banaketa eta sortutako aberastasunean parte-hartze handiagoa ahalbidetzen duten jabetza ereduak eztabaidatzea.

Industria politika eraldatzaileak, beraz, banaketa aurreko mekanismoak ere izan behar ditu, eta hasieratik eratu behar ditu balioaren banaketa bidezkoagoa sortzeko egitura ekonomikoak. Horretarako, hainbat egilek diote bermatu behar direla enpresen jabetza eredu inklusiboagoak, lan baldintzak hobetzeko edo erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartze parekideagoak. Hala ere, uste dugu mekanismo horiek ez lirakekeela nahikoak izango lortzeko erabaki ekonomikoak demokratizatzea eta ekoizpenaren egituraketa aldatu behar da, langile klasea, objektu eta subjektu gisa, kokatzeko arkitektura ekonomiko berri horren erdigunean.

Nolanahi ere, ikuspegi horiek ezartzeko behar dira gaitasun instituzional berriak. Ez da nahikoa helburu anbiziotsuak ezartzearekin: egitura administratiboak, ezagutza teknikoa eta legitimitate politikoa behar dira eragileak koordinatzeko, arriskuak kudeatzeko, emaitzak ebaluatzeko eta deribak zuzentzeko. Hau da, neoliberalismoa gainditzeko, berriz diseinatu behar dira esku hartze publikoaren tresnak eta antolaketa kulturak.

2.2. Industria politika eraldatzaileko tresnak

Industria politika eraldatzaileak, helburu argiez gain, tresna koherenteak, eraginkorrak eta demokratikoki legitimatuak behar ditu. Ildo horretan, baliotsuak dira Future Policy Labek (2023) egindako ekarpenak, oinarrizko ardatzak laburbiltzen dituela *Tres C* deritzon kontzeptuarekin: koordinazioa, koherentzia eta irizpideak.

Koordinazioari dagokionez, dio beharrezkoa dela ekoizpenaren eraldaketan esku hartzen duten eragileentzako gobernantza esparruak ezartzea: administrazio publikoak, enpresak, langileak, formazio eta jakintza zentroak, erakunde sozialak, etab. Guztia sinergiak identifikatzeko eta helburu komunengaineko gatazkak kudeatzeko. Horri dagokionez, Hego Korea edo Taiwango adibideak aipatu ohi dira koordinazio publiko-pribatuaren arrakasta kasu gisa. Hala ere, Dae-Oup Changek (2009) esaterako, ohartarazi du eredu horiek egitura autoritarioetan oinarritzen zirela eta langile klasea zapalduta, parte hartze demokratikoa mugatu zutelako eta elite enpresarialen eta estatuko burokrazien arteko aliantza finkatu zutelako. Lankidetzak horizontala izatetik urrun, esperientzia horiek kontrol politiko eta sozial indartsuan oinarritu ziren eta horrek bermatu zuen lana kapitalaren mende egotea. Hortaz, ekonomia eta industria bultzatzerakoan, kritikoki aztertu behar da erabateko protagonismoa duen estatu eredu hori beste lekuetan ezartzeko proposamenak, justizia soziala, parekidetasuna eta deliberazio kolektiboa erdigunean jartzeko.

Bestalde, industria politika koherentea izan behar da, eskaintzari zein eskariari eragiten dieten neurri integratuekin eta lerrokatuta norabide estrategikoarekin. Koherentziak ez da bakarrik kontraesanak saihestea, herrialde proiektu batek gidatutako planteamendu integralari erantzun behar dio.

Gainera, lehenetsi beharreko sektoreak aukeratzeko gida argi bat behar da. Errentagarritasunaren irizpidez harago, hainbat hartu behar dira kontuan: besteak beste, arraste potentziala, kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna, trantsizio ekologikoari egindako ekarpena, burujabetza ekonomikoa indartzea edo inportazioekin ez ordezkatzeari (Hausmann, 2009). Hala ere, irizpide horiek aplikatu behar dira erabakiak hartzeko prozesu irekietan eta ebaluagarrietan, interes pribatuen eta aditu teknokratikoen esku gera ez daitezzen. Industria politika egiteko ikasketa instituzionala, egokitzeko gaitasuna eta etengabeko ebaluazioa behar dira.

2.3. Finantzaketari buruz

Industria politika eraldatzaile ororen erronka nagusietako bat da finantzaketa. Azken urteetan, industria politikako ekimen asko oinarritu dira zor-mekanismoetan, non funts publikoak erabiltzen diren inbertsio pribatua bultzatzeko. Baina auzia ez da soilik zenbat baliabide dagoen, baita norik mugitu, nola bideratu, zein baldintzatan eta zein helbururekin ere zehaztu behar da.

Zentzu horretan, Stephany Griffith-Jones eta Naqvik (2021) adierazi duten moduan, palanka-efektu finantzarioaren erabilerak kaltetu dezake finantzatutako proiektuen gaineko kontrol publikoa, baita erabakiak hartzeko prozesuen gardentasuna okertu eta espekulazioa sustatu ere. Estatuak baldintza argirik gabe jarduten badu kateko azken bermatzaile gisa, arriskua dago galarak sozializatzeko eta etekinak pribatizatzeko. Horrek ekar ditzake finantza burbuilak, kapitalaren esleipen desegokiak edo enpresa interes partikularrei emandako diru laguntzak, ekoizpen eraldaketarako benetako onurarik gabe.

Arrisku horiek saihesteko, ezinbestekoa da baldintzak ezartzea, finantziario publikoaren helburu zehatzekin lotzeko, hau da, enpleguari, jasangarritasunari, berrikuntzari edo lurralde garapeneri, esaterako. Finantzaketak erantzun behar die interes orokorreko irizpideei eta errentagarritasun finantzario soilari. Horrez gain, finantzatutako proiektuak aukeratzeko, ikuskatzeko eta ebaluatze-ko gaitasun publikoak garatu behar dira, eta gardentasuna eta kontu ematea indartu.

Horrez gain, garrantzitsua da bereiztea arrisku finantzarioa eta arrisku ekonomiko erreala. Lehenengoak proiektu baten errentagarritasun finantzarioaren gaineko ziurgabetasunari egiten dio erreferentzia, eta bigarrenak epe luzeko bideragarritasunari eta ehun produktiboan duen inpartuari. Griffith-Jones eta Naqvik nabarmendu duten moduan, baliteke proiektu batzuk oso erakarriak ez izatea epe laburrean ikuspegi finantzariotik, baina ekonomia erresiliente, inklusibo eta jasangarriko funtsezkoak izatea. Kasu horietan, legitimoa eta beharrezkoa da Estatuak arrisku ekonomikoaren zati bat bere gain hartzea, kontrolerako eta ebaluaziorako mekanismo demokratikoei uko egin gabe.

Bestalde, kapital finantzarioaren nagusitasuna eta zorraren hazkundea ezaugarri nagusi dituen egungo metaketa erregimenak egiturazko mugak planteatzen dizkio inbertsioa helburu produktiboetara bideratzeko gaitasunari. Kasu askotan, industria politikak katramilatzen dira "errentadun kapitalismoan", kapitala diziplinatu beharrean. OSFek (2022) argitaratutako dokumentuak ohartarazten duen bezala, babes instituzionalik ezartzen ez bada, finantzaketa publikoa enpresei emandako "eroskeria" bihur daiteke, bestela kontuan hartuko ez lituzketen inbertsioak egin ditzaten, horrek ekoizpen-egituran edo botere ekonomikoaren banaketan benetako aldaketarik ekarri gabe.

Egoera horren aurrean, finantzaketaren izaera politikoa azpimarratu behar da. Inbertsioa ez da kontu tekniko soilak, eraiki nahi den etorkizunari eragiten dion erabakia da. Horretarako, finan-

tza publikoen rola indartu behar da, sortu behar dira eraldaketa helburu dute garapen bankuak eta herritarrek parte hartzeko kanalak ezarri behar dira, baliabide publikoak eta lehentasun kolektiboak bat datozela bermatuz. Horrela soilik industria politikak ez du egungo ordena beti-kotuko.

2.4. Trantsizio ekologikoaren erronka

Ekonomia politikoki gidatzeko, industria politika ezinbesteko tresna da trantsizio ekologikorako; hori gaur egungo eztabaida politiko eta ekonomikoaren ardatz nagusietako bat da. Hala ere, ez dago ikuspegi bateraturik, krisi klimatikoaren jatorriaz eta hori gainditzeko bideen inguruan beste hainbat interpretazio baitaude.

Ikuspegi zabalduenetako bat da kapitalismo berdearena. Ikuspegi horrek defendatzen du hazkunde ekonomikoa bateragarria izan daitekeela ingurumenaren jasagarritasunarekin, berrikuntza teknologikoarekin, energia eraginkortasunarekin eta isurien salerosketaren moduko mekanismoekin. Ikuspegi horren arabera, arazo ekologikoak sistemaren barruan zuzendu daitezkeen akatsak dira, baliabideak hobeto kudeatuz eta kanpora bideratutakoak bertan ekoiziz. Ikuspegi horri, ordea, leporatu zaio gehiegizko konfidantza duela neurri teknikoetan, eta ez dituela zalan-tzan jartzen botere egiturak eta kapitalismo globalizatuaren berezko metaketak.

Kontrara, kolapsoaren edo desazkundearen korrontek honako hau ohartarazten dute: egungo ereduari eutsiz gero, kolapso ekologiko eta soziala gertatuko da halaberrez. Korronte horien-tzat, irtenbide bideragarri bakarra da ekonomiaren tamaina fisikoaren murrizketa planifikatua, azkarra eta orekatua egitea. Desazkundera ez da sakrifizio bat, kontrakoa: nahikotasunaren, ongi-zate kolektiboaren eta bizitza sinpleago eta solidarioagoaren aldeko apustua da, baina horretarako beharrezkoa du eraldaketa horri eusteko gai den subjektu politikoa artikulatzeko sare handia osatzea.

Tarteko bide gisa, Green New Dealek proposatzen du Estatuak zuzendutako trantsizio ekologiko anbiziotsu bat: sektore berdeetan egindako inbertsio publiko masiboa, energia sistemaren deskarbonizazioa, ekonomia zirkularraren sustapena eta aberastasunaren birbanaketa bermatuko duten neurriak uztartu behar dira, besteak beste, oinarriko errenta, lanaldia murrizketa edo zerbitzu publikoak hobetuta. Proposamen horren xedea da kapitalismoa barrutik birkonfiguratzea eta bere logikak interes orokorrera bideratzea, esku hartze publikoaren bidez.

Azkenik, Green New Deal baten beharra eta estatuak norabide argia izan behar duen iritziekin bat etorri arren, uste dugu trantsizio ekosozial justu bat abiatu behar dela krisi zibilizatorio baten aitortzatik: krisi hori ez da ekologikoa bakarrik, baizik eta soziala, ekonomikoa eta kulturala ere bada. Horregatik, ekoizpen ereduaren berrantolaketa sakona proposatzen dugu, bizitzari eutsi ahal izateko printzipioak oinarri hartuta. Horrek esan nahi du materialen eta energiaren erabilera murriztea, kontsumo eta ekoizpen ereduak eraldatzea, aberastasuna eta boterea modu erradikalean birbanatzea, eta erdigunean kokatzea gizartearentzat beharrezkoak diren lanak, bereziki zaintzekin lotutakoak. Hazkunde murrizketa kaotiko baten arriskuaren aurrean, uzkuertze material demokratiko, deliberatu eta sozialki bidezkoa proposatzen dugu, behetik eraikia eta klase herrikoien protagonismo handiarekin.

Korronte horiek ez dira soilik teorikoak, trantsizio ekologikoaren helburuen, baliabideen eta subjektuen gaineko gatazka errealak adierazten dituzte, baita desberdintasunak erreproduzitzeko dauden arriskuak ere, trantsizioa egungo ingurumeneko eta gizarteko larrialdi egoera sortu duten eliteen eskuetan utziz gero.

2.5. Langileengandik sortu eta langileentzako egindako industria politika

Planetaren muga ekologikoekin bateragarria den ekoizpen eredu baterako trantsizioak ezin dio funtsezko auzi bati bizkarra eman: lanari. Ekoizpenaren eraldaketak, baliabideen erabileraren murrizketak eta jarduera ekonomikoaren berrantolaketak ez dute soilik aldaketa teknikoak ekartzen, baizik eta aldaketa sakonak eragiten dituzten lanaren antolaketan eta horren inguruko itxaropen sozialetan. Beraz, auzi politikoa ere bada pentsatzea zertaz ari garen lana diogunean eta zein funtzio bete behar duen ekonomia jasangarri batean.

Lehenik eta behin, enplegua ulertu ulertu behar da pertsonen biziraupenerako bitarteko bat baino gehiago. Izan ere, gizarte kohesioa, aitortza kolektiboa eta bizitzaren erreprodukzioa bermatzeko funtsezkoa da. Horrek esan nahi du sektore batzuk murriztu edo desagertu egin beharko direla (armagintza industria, energia fosilen ekoizpena eta banaketa, inpaktu negatibo handiko zenbait azpiegitura...), eta murrizketa hori lan trantsizio justuen bidez kudeatu behar dela: diru sarreak, berrikuntza profesionala eta sindikatuen zein gizartearen parte hartzea erabakiak hartzean bermatuta. Bestela, trantsizioaren kostu soziala jasanezina izango litzateke langile klasearen zati handi batentzat.

Aldi berean, badira enplegu jasangarria sortzeko potentzial handia duten sektoreak, lurraldean errotuak eta ongizate kolektibora bideratuak: energia berriztagarriak, eraikinen birgaitzea, agroekologia, garraio publikoa, baso kudeaketa jasangarria, ekonomia zirkularra, ondasunen konponketa eta berrerabilpena. Jarduera horiek lan intentsiboak dira, ingurumen inpaktu txikikoak eta komunitateen erresilientzia indartzeko gaitasun handikoak. Horiekin batera, zaintzarekin lotutako lanek (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak), historikoki gutxietsita eta feminizatuta egon direnak, eredu ekonomiko berriaren zutabe bihurtu behar dira. Hori ez da soilik funtzio sozialagatik bakarrik, baizik eta enplegu egonkorra sortzeko duen gaitasunagatik, deslokalizaezina eta jasangarritasun zein justizia helburu duena.

Lana ekoizpen eraldaketaren erdigunean jartzekoan, industria politika honako galdera horietara bideratzea dakar: zer ekoiztu, nola eta norentzat. Galdera horrek ez du erantzun tekniko neutrorik, posizio argi bat eskatzen du: gurea langileria gehiengoarena da, eta hortik doitzen ditugu dokumentu honetako proposamenen markoa.

Marko hori abiapuntu hartuta, politika industrial eraldatzaile batek koherentziaz jardun behar du ekoizpenaren egituraren esparru guztietan: inbertsioa eta berrikuntza, prestakuntza, baliabide estrategikoetarako sarbidea, azpiegiturak, barne eta kanpo eskaria, finantzaketa, arau esparrua eta gobernantza. Lehenetsun sektorialak, gainera, hautatuko dira interes kolektiboan oinarritutako irizpide arabera (2.2 atalean adierazitakoak bezalakoak), oinarritzeko ekoizpenaren subiranotasun ekonomikoan, lurralde errortzean eta sortzen ari diren behar sozialei erantzutean.

Esparru bakarrean esku hartu eta besteekin ez bada koherentea, desorekak sortzen dira, eta eragina mugatua da. Gainera, esku hartze hori modu isolatuan beharrean, lurraldean dauden ekoizpen menpekotasunetatik pentsatu behar da; hau da, balio kateak, materialen eta ezagutzaren fluxuak eta tokiko sare ekonomikoari kohesioa ematen dioten sektoreen arteko osagarritasunetik. Horretarako, baliagarria da Kolosovskiyk (1969, Madruga Torres, 2013n aipatua) garatutako Lurralde Konplexu Ekonomikoaren kontzeptua berreskuratzea: eskualdea ez da hartzen unitate administratibo gisa, baizik eta indar produktiboen, plangintzaren eta baliabideen banaketa arrazionalaren arteko koordinazio espazio gisa, behar kolektiboari erantzuteko.

Sistema produktiboa osotasun interdependente gisa ulertzeko ikuspegi horren sustraiak pentsamendu ekonomiko klasikoan daude. Ikuspegi neoklasikoaren aurrean, non ekoizpena input-etik output-era doan prozesu lineal gisa ulertzen den, Sraffak eta Pasinettik garatu zuten ekoizpena prozesu zirkular gisa ulertzen duen marko bat: sektore bakoitzak beste sektore batzuen outputak behar ditu funtzionatzeko, eta azken ondasun baten balioak sistema produktibo osoaren lan

zuzena eta zeharkakoa barneratzen du (Brondino, Fora-Alcalde eta Casau-Guirao, 2025). Elkarrekiko mendekotasun da ekonomia baten garapen aukerak zehazten dituen ezaugarri estrukturala: sektore baten gaitasunak daude hornitzaileen gaitasunen mende, eta mendekotasun horiek kontuan hartzen ez badira, horien arabera jarduten du industria politikak, ez kausen arabera.

Koherentzia horrek, aldi berean, bestelako botere arkitektura bat behar du. Ez da aski tresnak hobetzea edo baliabide publikoak handitzea: erabakitzen duen subjektua aldatu behar da, baita zein oinarriren eta noren mesedetan ere. Horregatik, proposamen guztietan honako hiru baldintza nagusirenarabera norabidetzea proposatzen dugu, Michael Lebowitzen (2011) 'triangelu sozialistaren marko' jarraituz: lehenik, sektore estrategikoetan ekoizpen baliabideen jabetza soziala eskatzen dugu, korporazioen kontzentrazioa mugatzeko eta ekoizpena interes orokorrera bideratzeko; bigarrenik, lanaren eta inbertsio erabakien antolaketa demokratizatu behar da, langileak eta horien erakundeak gobernantza ekonomikoaren erdigunean kokatzeko; hirugarrenik, ekoizpenak erantzun behar die behar sozial eta ekologikoei, eta ez etekin pribatuaren hazkunderari. Hiru baldintza horiek ez dira lortu ezin diren mugarriak, baizik eta irizpideak dira neurri bakoitza ebaluatzeko eta proposatutako eraldaketa guztien norabidea ezartzeko.

3. INGURUNE MAKROEKONOMIKO ETA INDUSTRIALAREN BILAKAERAREN AZTERKETA ETA DIAGNOSTIKOA

3.1. Munduko eta Europako diagnostikoa

Gaur egungo testuingurua ulertzeko, 70eko hamarkadako aldaketa ezagutu behar dugu. Batez ere, AEBk eta Erresuma Batuek sustatu (Hego Globaleko estatu askotan, sarritan, inposatu) zituzten politika neoliberalak baldintzatu dute azken hamarkadetako egoera. Bretton Woodsen sistemaren kolapsoaren eta gerraosteko eredu keynesiarraren krisiaren ondoren, metatze erregimen bat finkatu zen, honako hauetan oinarritua: finantza liberalizazioa, lan merkatuen desarautea, Estatuaren paperaren ahultzea eta botere sindikalaren aurkako ofentsiba.

Horren emaitza krisi etengabeak izan dira, eta ondorioz, XXI. mendea kapitalismo globalaren krisi organikoen eraginpean ulertu behar da. Sistemak zailtasunak izan ditu hasieratik hedapen fase jarraituari eusteko. Mendearen lehen laurdenean, nagusi izan dira etengabe errepikatu diren krisiak, produktibitate eskasa, beti baxu mantendu diren irabazi tasak eta metatze mekanismo tradizionalak desitxuratu eta desberdintasunak handitu dituen kapitalaren finantzarizazioa.

90eko hamarkadako boom teknologiko finantzarioaren ostean (.com deitutako krisia 2000. urtean izan zen) etorri zen 2008ko finantza krisi globala. Atzeraldi Handiarekin, zerga politikek ildo neoliberallean sakondu zuten, austeritate neurrietan eta gastu publikoaren murrizketan oinarrituta, eta banku erreskateak tresna garrantzitsuak bihurtu ziren errentagarritasun pribatuari eusteko. Aldi berean, banku zentralak moneta politika oso malgua aplikatu zuten (zero inguruko interes tasak eta hedapen kuantitatiboa), likideziaren tranparen¹ gainera ikuspegi (neo)keynesiarrean inspiratuta. Emaitza, kontraesankorrak diruditen hainbat neurri politikoren nahasketa izan zen: zerga murrizketa eta hedapen monetarioa aplikatu zen, hau da, murrizketak ezarri ziren herritarren gehiengoarentzat eta dirua doan aberatsentzat. Hala ere, politika horiek ez zuten lortu inbertsio produktiboa berraktibatzea, eta gero eta zorpetze handiagoa eragin zuten, publikoa zein pribatua. Gainera, finantzarizazioan sakondu zen. Horrekin kapitalismoaren egiturazko tentsioak konpondu beharrean, krisiaren kostuen zati handi bat sektore publikora bideratu zuten.

2010eko hamarkadan zehar neurri horiek aplikatu ziren arren, munduko ekonomiak ez zuen hazkunde bide sendo eta jarraitua berreskuratu. BPGaren hazkundera aurreko hamarkadetan erregistratutakoaren azpitik jarraitu zuen eta beste hainbeste gertatu zen produktibitatearen hazkunderarekin. Ondorioz, analista askok adierazi zuten geldialdi fase jarraitua izan zela. Ildo horretan, Lawrence Summersek (2016) "geldialdi sekularren" nozioa sortu zuen deskribatzeko gehiegizko aurrezkiek, inbertsio ahulek eta interes tasa txikiek hazkunde bete eta iraunkorra eragozten duten egoera. Beste ikuspegi batetik, Robert Brennerrek (2009) azpimarratu zuen ekonomia kapitalista aurreratuetan kapitalaren gehiegizko metaketak eta irabazi tasen beharrezko joerak eragiten zuten errentagarritasun krisi iraunkorra. Bestalde, tradizio marxistarekin lotutako autoreek, hala nola Michael Robertsek (2016), fase hori "depresio luze" gisa ezaugarritu dute, Ernest Mandelen alde aurreko analisisien ildotik, ekonomiaren moteltzea egiturazkoa dela nabarmentzeko, eta ez soilik ziklikoa. Interpretazio horiek bat datoz azpimarratzerakoan krisiaren ondoren aplikatutako politikak ez zirela gai izan metaketa kapitalistaren krisiaren ondoren sortutako egiturazko arazoak konpontzeko. Konpondu beharrean, ezohiko estimuluen menpeko hazkunde patroi ahula finkatu zuten.

2020tik aurrera, Covid-19aren pandemiak aurrekaririk gabeko shocka ekarri zuen munduko ekonomiarentzat eta aurreko hamarkadetako ahultasunak areagotu zituen. Ekoizpenaren eta nazioarteko merkataritzaren aldi baterako etenaldiak atzeraldi bortitza ekarri zuen eta, horren aurrean, Estatuak eta banku zentralak hedapen politika historikoak aplikatu zituzten, gastu pu-

¹ Tasak hain baxu daudenez, moneta politika konbentzionalak funtzionatzeari uzten dio, eta, ondorioz, banku zentralak neurri ez konbentzionalak erabiltzen dituzte, hala nola zero tipoak eta hedapen kuantitatiboa.

blikoaren hazkunde handia, zorra erosteko programa masiboak eta zerotik gertu zeuden interes tasak uztartuz. Neurri horiekin lortu bazen ere moteltzea eta ehundura ekonomikoari eustea, fase berri bat zabaldu zen: zorpetzearen hazkunde azeleratua eta inflazio tentsioen gorakada. Gerora, Ukrainako gerraren eta krisi energetikoaren ondorioz, areagotu diren tentsioak.

Hamarkadatan zehar aplikatutako desarautzeen eta austeritate politiken ondorioek zein langile klasearen aurkako etengabeko ofentsibak eragina izan dute errentaren banaketan. 80ko hamarkadatik gutxienez, laneko errentek gero eta parte hartze txikiagoa dute nazioartean. Halaber, hamarkadetan zehar aplikatutako politika neoliberalak eragindako soldata errealean higitzeak korporazio handien irabaziak areagotu dituzte. Eskari agregatua ahuldu du, ordea, langile askoren erosahalmena mugatu baitu.

Bestalde, korporazio handien onurak areagotu arren, XX. mendeko 60ko hamarkadatik etengabe murriztuz joan den irabazi tasa ez da modu estrukturalen errekuperatu, hainbat kalkuluren arabera (Anwar Shaikh, Esteban Maito, Michael Roberts). Hortaz, kapitala fusioen, automatizazioaren, lanaren prekarizazioaren eta deslokalizazioaren bitartez birmoldatu da, baina mekanismo horiek ez dira nahikoak izan sistemaren dinamismoa berpizteko. Finantzarizazioari esker, korporazio handiek irabaziei eutsi diete, baina kapital finantzarioa eta kapital produktiboa gero eta gehiago bereizi dira. Hau da, ekoizpenaren errentagarritasunaren beherakadarekin, kapitalak bere etekinak mantentzeko bide berriak bilatu ditu. Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean inbertitu beharrean, kapitala finantza merkatuetara, higiezinaren espekulaziora eta zorpetzera lekualdatu da. Horrek ez du balio berririk sortu, baina kapital fiktizioaren eta errentaren bitartez etekinak lortzeko aukera eman du.

Maila geopolitikoan, eraldatzen ari da Gerra Hotzaren ostean finkatutako ordena. Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren arteko hegemonia trantsizioak, eragin esferek eragindako gerrek eta inperialisten arteko gatazken itzulerak erakusten dute kapitalismoa ez dela gai esparru multilateral egonkorren pean birmoldatzeko. Sobietar Batasuna erori eta hurrengo hiru hamarkadetan zehar, Ameriketako Estatu Batuen menpeko ardatz bakarreko eskemaren arabera osatu zen nazioarteko sistema. Washingtonek zuen ustez etsairik gabeko lidergo politiko, militar, ekonomiko eta kulturala, eta globalizazioaren arauak zehaztu eta bere eragina zabaldu zuen mundu mailan. Hala ere, ordena horrek agortze zantzu argiak ditu. Higitzen ari da Ameriketako Estatu Batuen alde bakarrez bere interesak ezartzeko gaitasuna; hein batean, Txinaren moduko potentzia berrien indartzeagatik.

Egun, eskualdeko merkatuetan ari da berrantolatzen munduko merkatua, erakunde eta dinamika propioekin (Asiako hego-ekialdea - ASEAN eta Asia-Pazifikoa, merkataritza eremu anglosaxoia edo BRICS delakoa eta Errusia eta Txinaren orbita). Eremu horiek ez daude kapitalismo globaletik deskonektatuta, baina gero eta protekzionismo handiagoarekin uztartzen dira² (Albarracín, 2023). Testuinguru horretan, BRICS herrialdeak mendebaldeko monopolioari aurre egiteko bloke gisa finkatu dira, finantza erakundeekin, erakunde komertzialekin eta segurtasunekoekin. Herrialde horien hedapenak eta lankidetzak proiektuek (hala nola, dollarraren ordeko txanponak sustatzea edo sare energetiko eta teknologikoak indartzea) erakusten dute ordena orekatuagoa eta ordezkariatza anitzagoa bilatzen dutela. Gainera, Hego Globalaren ahotsa geroz eta ozenago entzuten ari da: Afrikako, Asiako eta Hego Amerikako herrialdeen multzo heterogeneoa osatzen dute, autonomia estrategiko handiagoa eskatzen dute, Mendebaldearekin automatikoki lerratze logika arbuizatzen dute eta haien aliantzak dibertsifikatzeko apustua egiten dute, norberaren garapenerako interesak defendatzeko.

Bien bitartean, badirudi Europak pisu erlatiboa galdu duela agertoki berri horretan. Europar Batasunak botere ekonomikoa eta normatiboa mantentzen duen arren, atzean geratu da segurtasunaren arloan Ameriketako Estatu Batuekiko duen mendekotasunagatik eta energia eta

² Nabarmentzekoa da merkataritza globalak BPGarekiko izan duen beherakada 2010eko hamarkadaren hasieratik, baina bereziki areagotu da Covid-19aren ondoren.

merkataritza ahultasunaren ondorioz. Errusiaren aurkako zigorrek, AEBrekin egindako akordio berriak eta Txinarekiko gero eta etsaitasun handiagoak murriztu egin dituzte Europaren aukerak eta mugatu duter eragile independente gisa jarduteko duen gaitasuna. Ildo horretan, Europak arriskua du estrategia atlantikoan menpeko bazkide gisa harrapatuta geratzeko eta horrek protagonismoa kenduko lioke munduko geopolitikaren birkonfigurazioan. Egoera hori are gehiago okertu da Persiar Golkoan eta Iranen izandako azken gertakariekin. Ziurgabetasuna oraindik begi bistakoa bada ere, badirudi aldaketak izango direla nazioarteko hornikuntza katean, bereziki energian.

Gainera, areagotu egin da baliabide naturalen ustiaketajasangaitza. Kapitalismo globalizatuak alde batera utzi ditu ingurumen erregulazioak eta merkatu librea sustatu du onura ekonomikoaren eta kontsumismo sutsuaren mesedetan. Ondorioz, energiaren erabilera eta emisio kutsatzaileak asko handitu dira, klima aldaketaren eta ingurumenaren kalterako. Globalizazioak, etengabeko hedapenean oinarrituta, ondorio larriak ditu planetaren biodibertsitatean, ekosistemetan eta ingurumenaren osasunean. Eragin negatibo horiek ez dira modu ekitatiboan banatzen. Herrialde pobreenek jasaten dituzte ingurumena kaltetzearen ondorio larrienak, eta aldi berean, baliabideak neurritz kanpo ustiatu behar dituzte eskari globalari erantzuteko eta kanpoko zorra ordaintzeko. Herrialde pobretuenetan ere migrazio klimatikoa dago; alde egin behar izaten dute herritar askok lehortearen edo bestelako ingurumen faktoreen ondorioz, euren borondatearen kontra.

Eredu horrek desindustrializazio prozesu bat ekarri du Iparraldeko herrialde globaletan, eta, kasu batzuetan, desindustrializazio goiztiar bat gertatu da Hegoaldean, non balio erantsi txikiko zerbitzuen sektorerara bideratu da, industriaren oinarri propiorik finkatu gabe. Horrek lanpostu galera ekarri du Hego Amerikan eta Afrikan, batez ere manufaktura enpresa txiki eta ertainetan kualifikazio gutxiko lanpostuak betetzen zituzten emakumeen artean.

Oro har, hamarkada honetako krisiak egiturazko mugen erakusle izan dira: muga ekologiko, sozial eta ekonomikoen ondorio, alegia. Kapitalismoak krisi horiek areagotu ditu, eta krisi klimatikoa, polarizazio soziala eta demokraziaren degradazioa horren ondorio dira, metaketa logika hori mantentzeko are gehiago esplotatu behar baitira pertsonak, baliabideak eta instituzioak.

3.2. Hego Euskal Herriko diagnostikoa

Munduko eta Europako kapitalismoaren egiturazko krisiaren testuinguru horretan, funtsezkoa da gure lurraldean dinamika horiek nolakoak diren aztertzea. Horregatik aztertuko ditugu adierazle makroekonomikoak, industrialak, sozialak eta enplegu adierazleak, jarraian joera berriak eta haien egiturazko zaurgarritasunak identifikatzeko, eta ikusteko EAEk eta Nafarroak zer nolako garapen ekonomiko propioa izan dezaketen eraldatzen ari den eta beherakada erlatiboan dagoen Europako kapitalismoaren barruan.

3.2.1. BPGa eta erlazionatutako adierazle makroekonomikoak

Hego Euskal Herriko BPGa 118.232.032 mila eurora iritsi zen 2024an, INE Espainiako Estatistika Institutuaren arabera³. Horrek esan nahi du 2000. urtean baino %127 handiagoa dela BPGa, izan ere, orduan, 52.043.175 mila eurokoa izan zen. Bilakaera horrek erakusten du jarduera ekonomikoaren etengabe hazi dela azken bi hamarkada pasatxotan. Hala ere, hazkunde erreala ezagutzeko, beharrezkoa da estatistika institutuak argitaratzen duen bolumen kateatuaren indizera jotzea, prezioen efektua zuzentzen duelako eta bariazioa egiazko ekoizpen terminoetan aztertzeko auke-
ra ematen duelako.

³ Eskualdeko kontabilitatea


Adierazle horren bilakaera oso antzekoa da bai Nafarroan, bai EAEn. Biek BPGaren hazkundera izan zuten 2008ra arte; ondoren, beheraka nabarmena pairatu zuten krisi finantzarioaren eraginez, eta 2014tik aurrera suspertuz joan ziren, 2020an pandemiaren eraginez berriro ere behera egin arte. Pandemiaren ostean, BPGaren datua Covidaren aurreko balioetara lehengoratu zen. 2000. eta 2024. urteen arteko alderaketak erakusten du BPGaren hazkunde erreal metatua Nafarroan %45,6koa izan dela, hau da, urteko %1,58ko batez besteko tasa. EAEk aldi berean %39,1eko hazkunde erreal metatua izan du, urteko batez besteko %1,39ko tasaren baliokidea. Horrek erakusten du bilakaera nahiko iraunkorra izan dela, baina txikia nazioarteko finantza krisiaren aurreko hamarkadetako hedapen tasekin alderatuta.

Industriako BPGaren bilakaeraren azterketak islatzen du EAEn epe luzeko geldialdi patroia eta Nafarroaren hazkunde mugatua. EAEn, manufaktura industriaren balio kateatuaren indizeak goia jo zuen argi eta garbi 2007-2008 inguruan, finantza krisian atzeraldi nabarmena izan zuen, eta ondorengo suspertzearekin, ez zuen lortu aurreko maila modu esanguratsuan gainditzerik. 2024an ikusten da azken urteetan metatutako hazkundera ez dela nahikoa 2008ko mailetara iristeko, eta erakusten du sektorearen egiturazko geldialdia.

Nafarroaren kasuan, manufaktura industriak behera egin zuen 2009an, baina hortik aurrera, ibilbide dinamikoagoa izan du, batez ere 2021etik aurrera. Ordutik, bultzada argia izan du eta indizea gehiengo historikoetara iritsi zen 2024an. Hala ere, 2008ko puntu gorena erreferentziatzat hartzen bada, oso apala izan da industria hazkunde erreala. Horrek esan nahi du Nafarroak, lekua berreskuratu eta joera positiboa izan duen arren, sektorearen egiturazko igoerak mugatua izaten jarraitzen duela. Manufaktura industriaren egoera okerragoa da, azken bi urteetan zifra negati- boak izan baititu, indizea 2008ko mailan kokatuz.

1. grafikoa. EAEko BPGaren bilakaera


Kateaturiko bolumen indizea (2020=100)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEko Eskualdeko Kontabilitatetik abiatuta

2. grafikoa. Nafarroako BPGaren bilakaera

Kateaturiko bolumen indizea (2020=100)




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEko Erkidegoko Kontabilitatetik abiatuta

2000. eta 2024. urteen artean, bi lurraldeetan BPG per capitaren hazkundera apala izan da, gora-behera handiekin. Mende hasieran 29.000-30.000 euro ingurukoa bazen,, 2007an iritsi zen maximoetara eta gero, atzerakada eman zen 2013ra arte, krisiaren ondorioz. Ondorengo susperraldiari esker, hazkundera berreskuratu zen, baina joera hori eten egin zuen berriro ere pandemiak. 2024an, BPG per capita 35.700 eurokoa da Nafarroan, eta 37.500 eurokoa EAEn. 2000. urte hasieran baino zertxobait handiagoak dira kopuruak, baina 2008koak baino txikiagoak. Bilakaera krisien araberakoa izan da, eta 2008aren aurreko hedapen etapan baino motelago hazi da.

3. grafikoa. EAE eta Nafarroako BPG per capita errearen bilakaera

2022ko prezioak




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEko Eskualdeko Kontabilitatetik abiatuta

3.2.1.1. Balio Erantsi Gordinaren (BEG) metodoa

BPGaren kalkulua hiru ikuspegi osagarritik egin daiteke: ekoizpen edo BEGaren ikuspegitik, gastuaren ikuspegitik eta errentaren ikuspegitik. Lehenik ekoizpen edo Balio Erantsi Gordinaren (BEG) ikuspegitik aztertuko dugu, sektoreek sortutako balio erantsia neurtzen duenetik, alegia.

2024an, hainbat desberdintasun izan dira Nafarroako eta EAeko egitura sektorialean. Nafarroan pisu handiagoa du industriak (BEGren %31,2) EAEn baino (%23,3). Zerbitzuen sektorea da nagusi bi lurraldeetan, baina bada aldea: Nafarroan %59,6ko pisua du eta EAEn %70,5. Eraikuntzari dagokionez, %6,2koa da Nafarroan eta %5,3koa EAEn. Nekazaritzak, berriz, %3,0ko pisua du Nafarroan eta %0,9koa soilik EAEn.

4. eta 5. grafikoa. BEGaren osaera sektoreka EAEn eta Nafarroan 2024an




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten datuetatik abiatuta

Seigarren grafikoa erakusten du BEGaren bilakaera 2000. eta 2024. urteen artean Hego Euskal Herriko ekonomiaren sektoreetan. Argi ikus daiteke gero eta tertziarizatuago dagoela ekoizpena: zerbitzuen sektoreak dua BEGren zatirik handiena, %57an hasi eta %68ra arte. Goranzko joera horrek gainerako sektoreen beherakada dakar.

Industria izan da tradizionalki ekonomiaren ardatzetako bat eta garrantzitsua izaten jarraitu duen arren (%26), beheranzko joera du; izan ere, pasa den mende amaieran, %32ko pisua zuen. Eraikuntza sektorea aldakorragoa da: 2000. urte hasieran, BEGren %10 ingurura iristen zen, baina 2008ko krisiaz geroztik, asko murriztu eta %6-7 inguruan egonkortu zen. Azkenik, nekazaritzak, abeltzaintzak, basozaintzak eta arrantzak presentzia txikia izan dute BEGn, %2aren azpitik beti, eta ez da aldaketa handirik izan aztertutako aldian.

Oro har, datuek erakusten dute egituraren eraldaketa: zerbitzuen nagusitasuna gero eta handiagoa da, industriak aurreko hamarkadetan baino presentzia txikiagoa du, eraikuntzaren pisuak beherakada handia izan du higiezinaren burbuilaren ostean eta lehen sektorea etengabe ari da ahultzen.


6. grafikoa. BEGaren osaeraren bilakaera sektoreka Hego Euskal Herrian



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eurostat eta INEren datuetatik abiatuta

Azken hamarkadetan industriak pisu erlatiboa galdu arren, Nafarroa eta EAE dira oraindik industriak BPGean parte hartze handiena duen Europako ekonomietako bi. Grafikoa ikus daiteke biak %20ren gaineratik daudela eta nabarmen gaintitzen dutela bai euroeremuaren batez bestekoa, bai EBko herrialde gehienena. Horrek agerian uzten du industriak garrantzi estrukturala duela oraindik ere.

7. grafikoa. Industriaren pisua BPGaren gainean EBko herrialdeetan



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eurostat eta INEren datuetatik abiatuta

Eduki teknologikoa⁴

Industria sektorearen azterketa xeheagoa eginez gero, ikus dezakegu pisurik handiena dutenak eduki teknologiko ertain-altua eta ertain-baxua dutenak direla. Horiek guztiek BEGren zati nahiko adierazgarria osatzen dute eta nahiko egonkor mantendu dira epe osoan zehar. Pisu handia du Hego Euskal Herriko industria ehunduraren zati handi bat ordezkatzeko duen eduki teknologiko ertain-altuko industriak, %15-20 ingurukoa. Eduki teknologiko ertain-baxuak berriz, gorabeherak izan ditu eta gorakada izan du 2015etik aurrera. Teknologia arloan buru egiten duten teknologiko handiko sektoreek, berriz, presentzia oso txikia dute eta ez dute hazkunde adierazgarririk lortu. Horrek esan nahi du industria garrantzitsua izaten jarraitzen duen arren, espezializazio produktiboa teknologia asko ez daukaten segmentuetan kontzentratzen dela eta ez sofistikazio teknologiko handiena dutenetan.


Aldiz, zerbitzuek pisu handiagoa eta egonkorragoa izan dute aldi osoan zehar. Operazio zerbitzuak eta zeharkakoak nabarmentzen dira bereziki eta BPGaren %40 baino gehiago dira. Hala, ekonomiaren tertziarizaziorako joera indartzen dute. Kontrara, industriarentzako zerbitzu espezifikoek eta loturarik ez dutenek pisu txikiagoa dute eta nahiko egonkor mantentzen dira denboran. Patroi horrek erakusten du antolaketa, logistika, bitartekaritza edo ekoizpen egituraren kudeaketarekin lotutako zerbitzuek gero eta garrantzi handiagoa dutela Hego Euskal Herriko ekoizpean.

Garrantzitsua da nabarmentzea 2005. eta 2019. urte arteko datuek Nafarroako datuak ere jasotzen dituztela, baina gainerako urteetan EAEkoak dira bakarrik, ez baitago informazio hori eskuragarri. Dena den, Nafarroako datuek ez dituzte datu orokorrak asko aldatzen. Horrek esan nahi du bi erkidegoetako egitura sektoriala nahiko antzekoa dela. Hala ere, aldaketa txikiak egon dira industriako eta zerbitzuetako sektore batzuen pisu erlatiboan. Hortaz, datu horiek berretsi egiten dute eduki teknologiko ertain-altuko industriak Hego Euskal Herrian duen nagusitasuna.

Azkenik, 2020ko pandemiak inpaktu handia izan zuen BPGaren osaketan: eraikuntzaren eta zerbitzu batzuen pisua murriztu egin zen eta industriako hainbat segmentu doitu. Hurrengo urteetan partzialki suspertu bada ere, ez da itzuli lehengora. Horrek erakusten du osasun krisiak, alde batetik, koiunturazko efektuak izan dituela eta, bestetik, emandako aldaketa batzuek oraindik ere bere horretan jarraitzen dutela.

⁴ Sektore baten teknologi edukiaren azterketa, bere jarduera produktiboak barnebiltzen duen ikerketa eta garapenaren (I+G) intentsitateare neurketa da. Horretan oinarrituta, industria-sektoreak lau kategoriatan sailka daitezke: teknologi eduki baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua, Balio Eranskinaren aldean I+G gastuan duten ehunekoaren arabera.

8. grafikoa. Hego Euskal Herriko BEGaren osaera sektoreka eta eduki teknologikoaren arabera



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustat eta Nastaten datuetatik abiatuta

3.2.1.2. Gastuaren metodoa

Gastuaren metodoan oinarritutako BPGak biltzen ditu ekonomiako eragile ezberdinen amaierako gastu guztiak edo eskari agregatua. Metodo hori garrantzitsua da lortutako ekoizpen maila zein den jakiteko eta ekoizpena sostengatzen duen eskariaren osaketa ezagutzeko. Hala, familien kontsumoaren, inbertsioaren, gastu publikoaren eta kanpo sektorearen pisu erlatiboa identifikatu daiteke ekonomiaren bilakaeran.

Aldi osoan zehar, familien kontsumoa izan da egiturazko faktorerik garrantzitsuen. Hazkunde osoaren zati handi bat berari esker izan da eta nahiko egonkor mantendu da. Kontsumoaren portaera oso sinkronizatuta dago BPGren bilakaerarekin: ekonomia atzeraldian dagoenean, kontsumo pribatuak berehala egiten du behera errentaren eta enpleguaren beherakadaren ondorioz, eta suspertze epeetan jarduera osoaren igoerari laguntzen dio. Hortaz, ekonomiaren zikloa zein fasetan dagoen islatzen duen osagarria da.


Inbertsioak, berriz, izaera ziklikoagoa eta aldakorragoa du eta jarduten du adierazle iragarle gisa. Inbertsioaren bilakaera lotuta dago ekonomiaren errentagarritasunarekin eta enpresen aurreikuspenak eta kredituaren eskuragarritasuna baldintzatzen ditu. Hortaz, ziurgabetasun zantzuen edo etorkizuna okertzeko arriskuaren aurrean, inbertsioa gutxitu egiten da, baita BPGa balio negatiboetan sartu aurretik ere. Kontrara, susperraldia aurreikusten denean, inbertsioa izaten da gora egiten duen lehen osagarria. Hori argi ikusten da 1993ko, 2009ko eta 2020ko atzeraldietan: BPGaren txikitzea baino lehenago egin zuten behera inbertsioek. Hurrengo urteetan, inbertsioak suspertu ziren hedapen fasea aurreikusita.

Bestalde, kontsumo publikoa egonkorragoa eta garrantzi txikiagoa izan du, ia etengabeko ekarpen positiboak eginez eta krisi momentuetan babes txikia eskainiz. Une horietan, lagundu du eskari pribatu murriztaren ondorioak arintzen. Kanpoko saldoak jokabide irregularra du: hazkunde aldiaren behera egiten du inportazioen hazkundearengatik eta atzeraldietan ekarpen positiboa du, merkataritza defizita murriztu egiten delako. Izakinen aldakuntza da osagarri aldakorrena eta inpaktu estruktural txikiena du BPGaren garapenean.

Une kritikoetan argi ikus daitezke hori. 1993. urteko beherakadaren arrazoia kontsumo pribatuaren beherakada izan zen eta, batez ere, inbertsioarena. Kanpoko saldoa, berriz, modu positiboan konpentsatu zen. 2009an, inbertsioak behera egin zuen, kontsumoa jaitsi egin zen eta ekonomiak atzeraldi handia izan zuen. Kanpo sektoreak hein batean arindu zuen hori. 2020. urtean, pandemiaren eraginez, aldi berean kolpatu zituen kontsumoa eta inbertsioa, atzeraldiaren neurriaren lekuko. Hala ere, gastu publikoak arindu egin zuen atzeraldia eta kanpoko saldoak egokitu ziren. 2021-2022. urteetan, susperraldia ere inbertsioaren eta kontsumo pribatuaren gorakadaren eskutik etorri zen. Berrito ere agerian geratzen da bi adierazle horiek islatzen dutela ziklo ekonomikoaren egoera, modu desberdinean izan arren.

Oro har, grafikoak berresten du ekonomia familien kontsumoaren mende dagoela estrukturalki (wage-led ekonomien eredu bereizgarria dena) eta inbertsioak, berriz, faktore zikliko erabakigarri gisa jarduten duela eta BPGaren aldaketei aurre hartzen diela maiz. Kontsumo publikoak egonkortasuna bermatzen du eta kanpoko saldoa, berriz, aldagai egokitzalea da, atzeraldiak edo hedapenak doituz. 2020ko krisia nabarmentzen da bai izandako beherakada eta ondorengo handitzeagatik, bai osagarri bakoitzak ziklo ekonomikoetan duten jardueragatik.

9. grafikoa. Hego Euskal Herriko BPGaren hazkunderari egindako ekarpenak (eskaria)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustat eta Nastaten datuetatik abiatuta

Kapital Finkoaren Eraketa Gordina (KFEG)


Ikusi dugun moduan, inbertsioa da ekoizpen eredu kapitalistaren funtsezko osagarrietako bat. Kapitala metatzeko mekanismoa da inbertsioa, eta hain zuzen ere, logika horrek sustatzen du sistema. Kapitala ezin da hedatu makinetan, teknologian eta lan indarrean etengabeko inbertsiorik egin gabe, eta hedatu ezean, krisian sartzen da.

Grafikoak KFEGren 2000tik 2023ra bitarteko bilakaera erakusten du mila eurotan adierazia, eta sektoreka banatuta. Horrez gain, BPGaren ehuneko gisa aurkezten da KFEG (lerro grisa, eskui-neko ardatza). Inbertsioak hazkunde jarraitua izan zuen 2008ra arte eta krisi ekonomikoaren ondoren beherakada handia izan zuen, batez ere 2008. eta 2016. urteen artean. Ordotik, KFEGk susperraldia izan du termino nominaletan, batez ere azken bi urteetan; baina ez da krisiaren au-

rreko mailetara iritsi. Hala ere, BPGaren terminoetan, inbertsioa ez da iritsi 2008ko krisiaren aurreko mailetara eta 2005ean lortu zuen maximoa. Gainera, 2009az geroztik ez du %20ko muga gainditu.

10. grafikoa. KFEGren bilakaera Hego Euskal Herrian

Ezkerreko ardatza: prezio korranteetan / Eskumako ardatz: BPGren %



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualdeko Kontabilitatek abiatuta


KFEGren sektorearen araberako azterketak aukera ematen du ibilbide hori zehazteko. 2007ra arte, eraikuntza izan zen nagusi inbertsioan. Eraikuntzak sostengatu zuen zabalpen faseko hazkundea, baina bere ondorio ere izan ziren 2008-2009ko beheraldia eta 2012-2013koa. Manufaktura industrian beste hainbeste: ekarpen positiboa egin zuen hedapen faseetan eta negatiboa krisietan, baina eraikuntza baino maila txikiagoan. Halaber, merkataritzak, garraioak edo ostalaritzak ere jokaera zikliko hori izan zuten, eta inbertsioak barne eskariaren bilakaerarekiko duen mendekotasuna indartu.

2014tik aurrera, aldatu ziren inbertsioak. Eraikuntzak protagonismoa berreskuratu zuen arren, dibertsifikatuagoa zen inbertsioaren banaketa, tartean manufakturak, informazioa eta komunikazioak, zerbitzu profesionalek eta osasuneko, hezkuntzako eta gizarte zerbitzuetako inbertsio publikoak zeuden. Dibertsifikazio hori bereziki garrantzitsua izan zen 2020ko pandemian: inbertsio publikoak arindu zuen eraikuntzaren eta kontsumoarekin lotutako esparruen kolapsoa. 2021-2022an gertatutakoak berresten du eredu hori: eraikuntzak eta manufakturak egin zuten buru hazkuntzean, baina zerbitzu aurreratuek⁵ eta inbertsio publikoak gero eta pisu handiagoa dute. Horrek guztiak erakusten du egiturazko aldaketa berri bat hasi dela: metaketaren dinamika dagoneko ez da soilik higiezin zikloan oinarritzen, gero eta mendekotasun handiagoa du berrikuntzarekin eta azpiegitura kolektiboekin lotutako inbertsioen hedapenarekiko.

⁵ Zerbitzu aurreratuek ezagutza espezializatu eta teknologia maila altua barnebiltzen duten zerbitzu-sektoreko jarduerak dira, hala nola zerbitzu finantzarioak, telekomunikazioak, aholkularitza edo ikerketa eta garapena

Soldata errenten pisuak behera egitearekin batera, gora egin du Ustiapeneko Soberakin Gordinak eta errenta misto gordinak Hego Euskal Herriko BPGean. 2000. urte hasieran, %38,4koa zen eta, unean uneko gorabeherak gorabehera, 2024an %42,8ra iritsi zen. Soldatekin gertatzen denaren kontrara, beherakada puntualak izan ziren 2009an eta 2020an, jarduera ekonomikoa apaldu egin zelako finantza krisiaren eta pandemiaren ondorioz. Hala ere, atzeraldi horien ostean, azkar berreskuratu da kapitalaren parte-hartzea eta goranzko joera du. Hortaz, 2000. eta 2024. urteen arteko balantzeak erakusten du enpresa etekinek eta kapitalaren errentek 4,4 puntu handitu direla ekonomia osoaren gainean duten pisuan.

12. grafikoa. BPGaren bilakaera errenten arabera HEHn



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta


Soldatapekoen ordainsaria

Ikusi ahal izan dugunez, BPGarekiko soldatapekoen zatia murriztu egin da. Hala ere, grafikoak erakusten du soldata masa errealak hazkunde txiki bat izan duela tarte berean. Soldatapekoen ordainsari errealak⁹ gora egin zuen aztertutako epearen lehen zatian, maximora iritsiz 2008an, finantza-krisiaren aurreko hedapen fasearen amaierarekin batera. Ondoren, ordainsari errealak behera egin zuen eta berriro hazi zen 2014tik aurrera; 2008ko ia maila berera iritsi zen 2019an. Covidaren beherakadaren ondoren, hazkunde txiki bat dago, 2024an 51.342 milioira iritsi arte. Oro har, soldatapekoen ordainsari erreal osoa %33,7 handitu da aztertutako epean, hau da, urtean %1,22. Hala ere, 2008ko krisiaren ondoren gelditzeko joera dagoela ikusten da, benetako soldata-masa %9,5 baino ez baita hazi epe horretan, hau da, urteko batez beste %0,57.

⁹ BPGaren deflaktatzaiearekin deflaktatua

13. grafikoa. Soldatapeko langileen ordainsari erreal osoaren bilakaera Hego Euskal Herrian

2022ko prezio konstanteetan




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

Aurrerago aztertuko dugun moduan, langileen kopurua asko handitu da mende honetan. Hor-taz, langileei dagokien zatia (%2,3 murrizteaz gain) pertsona gehiagoren artean banatzen da. Beraz, soldatapeko pertsonen soldata kalkulatzeko beharrezkoa iruditzen zaigu langile bakoitzak ekonomia osoan zuen soldataren pisua aintzat hartzea. Hau da, soldatapeko pertsona bakoitzak BPGean duen pisua 2000tik berdin mantendu izan balitz edukiko lukeen ordainsaria eta haren galera alderatuko ditugu.

Grafikoak erakusten du ordainsari per capita murriztu ez arren, bere eboluzioa ekonomia osoa-rena baino txikiagoa izan dela. Horrek soldata bakoitzaren pisuaren pixkanakako galera ekarri du BPGean. Gero eta arrakala handiago islatzen du ordainarien eta 2000. urtetik BPGean duen pisuari eutsi izan balitzaio egokituko litzaiokeenaren arteko alderaketak, batez ere 2008ko krisitik aurrera eta are 2020tik aurrera. 2024an, bere maximora iritsi zen aldea (11.617 €). Horrek esan nahi du sortutako aberastasunaren banaketa aldatu egin dela, soldatapeko lanaren kalterako eta enpresen soberakinaren onurarako.

14. grafikoa. Per capita ordainsariaren bilakaeraren konparazioa (erreal eta 2000ko %tan)

Prezio konstanteetan




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

XXI. mendeko lehen bi hamarkadetan metatutako hazkunde ekonomikoa eta soldata masaren hazkunde txikia gorabehera, soldatapeko langile bakoitzaren batez besteko ordainsaria ez da termino errealean hobetu. Izan ere, soldatapeko guztien benetako soldatak ia izoztuta izan dira 2000. urteaz geroztik, eta, are gehiago, behera egin dute 2010. urtearekin alderatuta. Horrek esan nahi du erosteko ahalmena luze egon dela bere horretan. Datuen arabera, 2000. urtean soldatapeko langile bakoitzaren ordainsaria 41.226 eurokoa izan zen¹⁰; 2009ko zifretara iritsi zen, 43.270 euroekin. Hala ere, 2024an, 42.132 eurora murriztu zen. 2000. eta 2024. urteen arteetan %1,95 baino ez da hazi, urteko 0,09ko igoera hutsala da hori.

Industriaren eta manufaktura industriaren kasuan, egoera oso antzekoa da: soldatak batez bestekoaren gainetik mantendu diren arren, ez dute hobetzeko joerarik izan finantza krisiaz geroztik. 2010ean, ordainsaria 47.817 eurora handitu zen. Baina 2023an, soldatak ez ziren langa horretara iritzi, 46.823 euroan geratu baitziren.

15. grafikoa. Hego Euskal Herriko per capita ordainsari errealaren bilakaera

2022ko prezio konstanteetan



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta


¹⁰ Zifrak 2022ko prezioetan dira

Ustiapeneko Soberakin Gordina

USG/Errenta Mistoen bilakaera errealak erakusten du aztertutako epean hazkunderako joera orokor bat badagoela, baina gorabehera garrantzitsuekin. 2008ko finantza krisiaren aurreko urteetan, hazkunde nabarmena izan zen eta serieko baliorik altuenetako batera iritsi zen. Ondoren, beherakada txikia ekarri zuen krisiak eta, jarraian, geldialdia izan zen 2010eko hamarkadaren lehen erdian zehar. 2015etik aurrera, goranzko joera berreskuratu zen eta goia jo zuen berriro 2018an eta 2019an. 2020ko beherakada pandemiaren inpaktuaren ondorioa izan zen, baina agregatuak susperraldi azkarra izan zuen hurrengo urteetan eta 2023an lortu zuen serie guztiko mailarik gorenena. Ondorioz, 2000. eta 2024. urteen artean, hazkunde erreala %56,1ekoa izan zen, hau da, %1,87koa urtean.

16. grafikoa. USG/Errenta Mistoen bilakaera Hego Euskal Herrian

2022ko prezio konstanteetan




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

INEek ez du informazio bereizirik eskaintzen arlo horretan, baina Eustatek bai. Hortaz, grafikoko azterketa EAEkoa da soilik. Bertan, Ustiapeneko Soberakin Gordinaren 2000-2024 aldiko bilakaera ikus daiteke, bere bi osagarri nagusietan bereizita: kapital finkoaren kontsumoa¹¹ eta ustiapeneko soberakin garbia (etekin garbiak). Ikus daitekeen moduan, azken horrek izan du hazkunderik handiena, batez ere pandemia osteko urteetan. Ustiapeneko soberakin garbiaren hazkundea %68koa izan da aztertutako aldian, inflazioa kenduta. Hortaz, %2,19koa urtean. Bestalde, kapital finkoaren kontsumoak ere goranzko joera izan du, baina intentsitate txikiagoarekin (%28,2). Horrek iradokitzen du enpresen errentagarritasunaren hobekuntzak pisu handiagoa izan duela USGren bilakaera orokorrean.

¹¹ Aztertutako aldian kontsumitutako aktibo finkoen kopurua da, hau da, erabilera normalaren eta aurreikusi daitekeen zaharkitzearen ondoriozkoa; istripu kalte asegurgarrien ondoriozko aktibo finkoak galtzeagatik hornidura bat ere sartzen da.

17. grafikoa. USG/Errenta Mistoaren bilakaera EAEn

2022ko prezio konstanteetan



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten datuetatik abiatuta

3.2.2. Beste adierazle makroekonomiko batzuk

3.2.2.1. Lanaren produktibitatea

Produktibitatea adierazle garrantzitsua da eskuragarri dauden baliabideen aprobetxamendu eraginkorrerako. Produktibitateak ondasunen eta sortutako zerbitzuen (output) eta horiek ekoizteko erabilitako baliabideen (input) arteko lotura neurtzen du. Produktibitate handiagoa izateak lan kopuru berarekin (pertsonak edo orduak) ekoizpen handiagoa lortzea esan nahi du. Baita ekoizpen berbera lortzeko baliabide gutxiago erabiltzea ere (ordu gutxiago, insumo gutxiago, energia gutxiago). Adierazle hori garrantzitsua da; izan ere, hori aztertzeak aukera ematen du ekoizpen prozesuak hobetzeko eta maiz soldaten igoerarekin lotzeko erabiltzen da.

Industriako enplegatu bakoitzaren produktibitatea argi eta garbi dago ekonomia osoaren batez bestekoaren gaineratik (91,5 eta 83,3). Manufaktura industrian, berriz, tarteko mailan dago (85,4). Lan egindako ordu bakoitzeko produktibitatearen kasuan, industria sektoreak ere balio handiagoa du (55,6). Ekonomia orokorrak eta manufaktura industriak, berriz, zifra berbera partekatzen dute.

1. Taula. 2024ko produktibitatea Hego EHn

	Enplegatuka	Orduka
Totala	81,4	50,4
Industria	94,3	55,9
Manufakturen indus.	86,1	50,8


Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

Jarraian, lan produktibitate errearen indizearen bilakaera erakusten da (enplegatu¹² eta lan egindako orduko output gisa neurtuta) ekonomia osorako eta haren funtsezko bi sektoreetarako, 2020. urtea erreferentziatzat hartuta¹³. Ekonomiaren produktibitateak guztira hazkunde ibilbide moderatu baina konstantea erakusten du aldian zehar. Ekonomia osoaren produktibitatea langileko 71,4 da 2024an, 2000. urtean baino %20,4 gehiago, hau da, urteko %0,78ko hazi da. Ordukoa 44,1koa da, 2000. urtean baino %29 gehiago, hau da, urteko %1,07ko hazkundera.

Industriak eta manufaktura industriak aldakortasun nabarmen handiagoa dute ekonomia osoarekin alderatuta, sektoreak ziklo ekonomikoekiko eta kanpo shockekiko duen sentsibilitatearen isla. Aztertutako aldian, industriaren produktibitatea, oro har, eta manufakturarena %24,5 eta %34,2 igo dira, hau da, %0,92 eta %1,23 urteko. Hazkundera ere handiagoa izan da orduko produktibitateari begiratuz gero: %34,2 (urteko %1,43) eta %44,6 (urteko %1,86).

18. grafikoa. Enplegatu bakoitzeko produktibitate errearen bilakaera Hego Euskal Herrian

Oinarria 2020




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

¹² INEk ez du eskaintzen lanaldi osoko baliokideetan neurtutako enpleguari buruzko informaziorik. Horregatik, enplegatu kopurua erabili da erreferentzia gisa. Hala ere, hautu horrek produktibitatearen estimazioan beheranzko alborapena sor dezake, ez baitu bereizten lanaldi osoko eta lanaldi partzialeko langileen artean. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da azken aldian, lanaldi partzialeko enpleguaren pisua handiagoa delako duela hamarkada batekin eta 2000. urtearekin alderatuta.

¹³ Ekonomia osorako langile bakoitzeko benetako lan produktibitatea kalkulatzeko, BPG erreala zati enplegatutako pertsonak egiten da, eta orduko produktibitatea kalkulatzeko, berriz, BPG erreala zati lan egindako ordu kopurua egiten da. Sektore mailan, zenbakitzaileko BPGd-aren ordez sektoreko BEGd-a jarriko da.

19. grafikoa. Lanordu bakoitzeko produktibitate errearen bilakaera Hego Euskal Herrian


2020ko oinarria



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

Grafikoak langile bakoitzeko produktibitatea islatzen du Europako hainbat herrialdeetan, tartean, Nafarroan eta EAEn. EAEko zein Nafarroako produktibitatea batez bestekoaren gainetik daude. Horrek esan nahi du efizientzia handiagoa dutela termino erlatiboetan. Zehazki, EAE Nafarroaren gainetik eta Europako erreferentziatzko ekonomia nagusiengandik gertuago dago, hala nola, Frantzia edo Finlandiarengandik. Nafarroak, berriz, posizio nabarmena izan arren, batez bestekoaren azpitik dago apur bat. Jokaera horrek agerian uzten du ekoizpenaren ehundura indartsua dela bi lurraldeetan, balio erantsi handiko industria sektoreei eta enpresen kapitalizazio handiagoari esker.


20. grafikoa. Produktibitatea EBko herrialdeetan, 2023an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eurostaten datuetatik abiatuta

Nafarroako eta EAeko produktibitatearen hazkundera Europako ekonomia nagusiena baino nabarmen handiagoa izan da. Aztertutako epean, Frantzia, Belgika edo Danimarka bezalako herrialdeek hazkunde moderatuak izan dituzte, eta Hego Euskal Herriak, bere dinamismoagatik nabarmentzen da, Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik. Hazkunde iraunkor horrek lanaren eraginkortasunaren hobekuntza eta enplegatutako pertsona bakoitzeko balio erantsia sortzeko gaitasuna islatzen ditu. Horri esker, bi ekonomiek kontinenteko eskualde garatueneren produktibitate estandarretara hurbildu ahal izan dute, eta Europa osoan duten lehi posizioa sendotu.

1. irudia. Produktibitatearen banaketa eskualdeka 2000 eta 2022 urteetan



Iturria: CaixaBank Research, Europako Batzordearen datuetatik abiatuta (ARDECO)

3.2.2.2. Unitateko lan kostuak

Unitateko Lan Kostua (ULK) lehiakortasunaren funtsezko adierazlea da, eta produktuaren unitateko lanaren kostua neurtzen du. Beste era batera esanda, ULK-k lan kostuen eta produktibitatearen arteko erlazioa neurtzen du. Lan kostua langile bakoitzeko enpresarentzako guztizko kostua da, eta soldatak eta gizarte kotizazioak barne hartzen ditu (prezio arruntetan) eta lanaren produktibitatea, termino errealetan dago.


$$ULK = \frac{\text{Enplegatu bakoitzeko lan kostua (nominala)}}{\text{produktibitate erreala}} = \frac{W * P/L}{BPGr/L}$$

Hurrengo grafikoan, Hego Euskal Herriko ULKren bilakaera ikus dezakegu 2000-2024 epean ekonomia osorako eta industria sektorerako. Hego Euskal Herriko ULKren bilakaerak goranzko joera argia erakusten du, bereziki inflazio handieneko aldietan, hala nola, 2008ko krisiaren aurreko urteetan edo 2021-2024 ziklo berrian. Igoera horrek erakusten du lana garestitu egin dela produktu unitateko termino errealetan, lan kostu nominalak gehiago hazten baitira produktibitate erreala baino. Aldiz, soldaten moderazio eta eraginkortasuna berreskuratzeko faseetan (hala nola 2013

eta 2017 artean), ULK egonkortu edo jaitsi egiten da. Lehiakortasunari dagokionez, horrek esan nahi du inflazioa handitzen denean soldaten erosteko ahalmena murrizteaz gain, lanaren benetako kostua ere garestitzen dela enpresentzat, batez ere produktibitate proportzio berean hazten ez denean.

21. grafikoa. Lan-kostu unitarioaren (LKU) bilakaera Hego Euskal Herrian

Oinarria: 100=2000



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta


ULK errealak produktu unitateko lan kostua termino errealetan islatzen du, eta errentaren banaketa funtzionala aztertzeko aukera eman. Halaber, benetako lehiakortasuna, soldaten eta produktibitatearen arteko koherentzia, inflazioaren gaineko eragin potentziala eta enpresa marjinen bilakaera ebaluatzeko aukera ematen du. ULK errealak ULK nominala produktuaren prezio mailaren arabera doituaz lortzen da, hau da, BPGaren deflaktorea erabiliz. Honela adierazten da:

$$ULK \text{ errealak} = (W/P)/(Y/L)$$

W, soldatapekoen konpentsazio nominala da; P, BPGren deflaktorea (produktzioaren prezioen maila); Y, BPG errealak eta L soldatapeko langile kopurua.

22. grafikoa. Lan-kostu unitario errealararen bilakaera Hego Euskal Herrian

Oinarria: 100=2000



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

Beharazko bilakaerak adierazten du soldata nominalak gora egin arren, igoera hori outputaren prezioen hazkundeak konpentsatzen duela, eta horrek soldata errentek balio erantsi osoan duten pisua murrizten duela. Alde horretatik, ULK errealarren jaitsierak ez dakar nahitaez eraginkortasuna galtzea edo soldata nominalak jaitea; aitzitik, prezioen igoera lan kostuena baino handiagoa izan dela erakusten du. Ondorioz, produktu unitateko benetako lan kostuak murriztu egiten dira, eta horrek enpresen lehiakortasuna hobetzea eta errentak lanetik enpresa soberakinera aldatzea dakar.

Ondorioz, aztertutako aldian, laneko kostu unitario nominalaren eta kostu errealararen arteko bilakaera desberdina ikusi da: ULK nominala igotzen da, eta lan kostuen hazkundera produktibitate errealararena baino handiagoa da; ULK erreala, beharazko joera erakusten du, eta horrek adierazten du produktuaren prezioen igoera (BPGaren deflaktorea) are handiagoa izan dela lan kostuena baino.

Portaera horrek zera iradokitzen du: soldata nominalak gora egin duten arren, produktu unitate bakoitzeko lan kostuak behera egin duela termino errealetan, eta, horrela, soldatapekoen benetako ordainsariaren pisua murriztu egin dela sortutako balio erantsiaren gainean. Ondorioz, lehen ikusi dugun bezala, lan errentek galdu egin dute errentaren banaketa funtzionalean duten partaidetza, eta hobetu egin da enpresentzako lehiakortasuna, lan kostuak termino erlatiboetan merkatu direlako.

3.2.2.3. Irabazi tasa

Hego Euskal Herrian irabazi tasak 2000-2023 aldian izan duen bilakaerak erakusten du errentagarritasun eredu iraunkor bat, balio erantsiaren birbanaketa atzerakoi batean oinarritzen dena hedapen produktibo batean baino. Soldata mugatzean, produktibitatearen geldialdian eta inbertsio mugatuan oinarritutako errentagarritasuna da, erosahaltenaren galeraren eta lanaren erreproduktzio ahalmenaren kontura irabazie eusten diena.

Termino marxistetan, irabazi tasa honela kalkulatzen da: gainbalioaren (S) eta kapital konstantearen (c) (ekoizpen bitartekoen balioa) eta kapital aldakorren (v) (lan indarraren balioa) arteko erlazioa, honela adierazita:

$$G' = pv/K \quad G' = pv / (c + v)$$

Formula horrek ordaindu gabeko lanak sortutako soberakinaren proportzioa adierazten du, hura ekoizteko aurreratutako kapital osoarekiko. Horren dinamika, beraz, esplotazio tasaren (s/v) (hau da, soldatapeko lanak ordaindu gabeko balioa sortzearen baitan) eta kapitalaren osaera organikoaren (c/v) araberakoa da, kapital konstanteak aldakorrekiko duen pisua neurtzen baitu. Oro har, esplotazioa handitzeak irabazi tasa igotzeko joera du, eta konposizio organikoaren igoerak (mekanizazioaren eta aurrerapen teknikoaren emaitza), berriz, murrizteko joera. Bilakaera zehatza bi indarren arteko orekaren ondorio da.

Batetik, lan kostu unitarioen (ULK) bilakaera eta bestetik, BPGaren banaketa errenten ikuspegitik aztertzen badugu, esplotazio tasa zein den hauteman dezakegu. Oro har, bi adierazleek aldi berean erakusten dute lanaren garestitze erlatiboa eta soldaten pisuaren galera balio erantsian, eta horrek tentsio bikoitza erakusten du: alde batetik, ULKen gorakadak nolabaiteko presioa sartzen du kapitalaren errentagarritasunean; bestetik, balioaren banaketan soldataren atzerakadak presio hori konpentsatzen du, irabazi tasari eutsiz, diru sarreraren banaketan lan errentak kaltetuz.


Produktibitateak, aldiz, bere horretan jarraitzen duen heinean, adierazten du errentagarritasuna ez dela eraginkortasun edo berrikuntza hobekuntzetan oinarritu, lanetik kapitalera gertatu den errenta birbanatzeak baizik. Errentagarritasun agregatuaren emaitza, ekoizpen ahalmena handitzeari esker baino gehiago, balioaren banaketaren doikuntzari esker mantendu da.

Kapitalaren osaera organikoari dagokionez, datu zuzenik ez dugun arren, Kapital Finkoaren Eraketa Gordinaren (KFEG) portaerak bilakaera moderatua iradokitzen du. 2008ko maximoaren ondoren, inbertsioak behera egin zuen nabarmen, gero poliki-poliki suspertu da, BPGaren %18-20 inguruan egonkortuz, batez ere zerbitzuen orain gutxiko gorakadak bultzatuta. Patroi horrek adierazten du kapital konstantearen hazkundea ez dela bereziki dinamikoa izan, eta, beraz, banaketa birdoitzeak irabazi tasan izan duen eragina ez zukeela kapital finkoaren garestitze proportzionalak indargabetuko.

3.2.2.4. Zor pribatua

EAEko eta Nafarroako enpresen zorpetzearen bilakaeraren azterketak erakusten du aldi horretan beheranzko joera argia egon dela zorpetzearen ratioaren medianan, batez ere 2011tik aurrera. Horrek esan nahi du enpresa gehienek zorpetzea murriztu dutela pixkanaka. Hala ere, zordunketa orokor horren aurrean, segmentu batzuetako zorpetzearen batez bestekoa egonkor mantendu da edo zertxobait handitu da 2020tik aurrera. Batez bestekoaren eta medianaren arteko dibergentzia horrek iradokitzen du kontzentrazio fenomeno bat dagoela: enpresa gehienek (batez ere txikiek eta ertainek) zorrarekiko esposizioa murriztu duten arren, zorpetze handiak dituzten enpresen gutxiengo batek bere pisua handitu du, batez bestekoa ere handituz.


23. grafikoa. Hego Euskal Herriko enpresen zorpetzea



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Balantze Zentrala (Espainiako Bankua)

Patroi hori bereziki markatua dago manufaktura enpresa handietan, batez besteko zorpetzea etengabe handitu baita 2016tik eta Nafarroan jauzi adierazgarria izan baita 2022tik. Eboluzio horrek erakusten duenaren arabera, zorpetze finantzarioaren kontzentrazioa handiagoa da tamaina handiko eragile jakin batzuen artean, balitekeelako zorra erabiltzea inbertsioak, operazio estrategikoak edo zabalpen prozesuak finantzatzeko. Kontrara, enpresa txikiek eboluzio homogeneoagoa izan dute eta beherakada paraleloak izan dituzte batez bestekoan zein medianan. Horrek esan nahi du portaera zuhurragoa edo krediturako sarbide mugatuagoa dutela. Oro har, emaitza horiek dinamika duala islatzen dute enpresen ehunduran: gehiengoak zorra murriztu du eta gutxiengoak -geroz eta handiagoa- zorpetzea handitu du.


24. grafikoa. Hego Euskal Herriko manufaktura-enpresen zorpetzea



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Balantze Zentrala (Espainiako Bankua)

Hala ere, enpresa handietan izandako zorraren zabalpen horrek kontrastea egiten du inbertsioaren dinamikarekin, 2008ko Atzeraldi Handiaz geroztik ez baita suspertu oraindik, aztertu dugun moduan. Hortaz, Europan ezarritako interes tasa txikiko moneta politika hedakorraren bitartez zabaldutako zorrak ez du inpaktu handirik izan dinamika ekonomikoan, baina zorrarekiko esposizioa handitu du eta inplikazio handiak ekarri ditu arrisku sistematikoaren, mendekotasun finantzarioaren eta etorkizunean inbertsioak egiteko gaitasunaren terminoetan.

25. grafikoa. 250 langile baino gehiagoko enpresen zorpetzea Hego Euskal Herrian



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Balantze Zentrala (Espainiako Bankua)

3.2.2.5. Zor publikoa


2000. urtetik 2008ko finantza krisira arte, Nafarroaren zorraren mailak nahiko baxuak ziren. 2008. urtearen aurrekoetan, zor publikoa BPGaren %3-5 ingurukoa zen: 645 milioi eurokoa 2007an eta 868 eurokoa 2008an. Baina Atzeraldi Handiarekin zorpetzea azkar handitu zen eta ondorengo urteetan, Nafarroa %18tik gorako zorra izatera iritsi zen. 2020an jo zuen goia BPGaren %19arekin, hots, 3.617 milioi euroko zorrarekin¹⁴.

EAEren kasuan, eskuragarri dauden datuek erakusten dute zorpetze absolutuaren hazkundera neurritsuagoa izan dela, baina bi une goren izan ditu: 2008ko krisiaren ostean eta pandemian. Adibidez, Euskadiko Administrazio Orokorraren “zor bizia” 2007an 642 milioi eurokoa izatetik 2014an 8.915 milioi eurokoa izatera igaro zen, eta 2021ean 11.723 milioi eurokoa. BPGarekiko proportzioaren kasuan, aurreko hamarkadako lehen urteetan %10-13 inguruko zor ratioak erregistratu zituen EAEk eta pandemian zehar %16ra iritsi zen.

Egun, bi lurraldeetako zorraren maila duela bi hamarkadakoa baino handiagoa da, baina behera egin du azkenaldian. Nafarroan zorrak 2020an izan zuen unerik gorenena BPGari dagokionez, baina 2023 amaierarako ratioa %10,3ra jaistera lortu zuen. Bestalde, EAEk BPGaren %11,8ra jaitsi du bere zorra 2024an, pandemiaren une gorenaren ostean.

26. grafikoa. Nafarroako eta EAEko zor publikoaren bilakaera

Ezker ardatza: milioi €tan / Eskuineko ardatza: BPGaren %tan



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Espainiako Bankutik abiatuta

Egungo zor publikoaren abiapuntuak aukera estrategikoa irekitzen du politika ekonomiko eta industrialia indartzeko. Zor karga txikiak azpiegiturretan, berrikuntzan eta trantsizio energetikoan inbertsio publikoa handitzeko gaitasuna ematen du, eta industria ehuna indartzera bideratutako hazkunde produktiboagoa eta iraunkorragoa bultzatzeko baliabide gisa baliatu beharko litzateke.

¹⁴ Gainera, itzaleko bidesaria zor publikoarekin antz handia duen kanona da. Obra handiak ordaintzeko erabili den mekanismoa da (Nafarroako Ubidea eta 1. fasearen handitzea eta A-21 eta A12 autobiak), obra baten eraikuntza eta finantzaketa enpresa pribatu batek egin dezan eta Gobernuak erabil dezan. Horrela, administrazioak epe laburreko zorpetzea saihestu eta kontuak makillatzen ditu, nahiz eta epe luzera gastua askoz handiagoa izan.

3.2.2.6. Kanpo txertaketa

Esportazioak

2024an, EAEk 30,8 mila milioi euro esportatu zituen; Espainiar estatuko seigarren lurralde esportatzaile nagusia da eta esportazioek bere BPGaren %39 ordezkatzeko zuten. Esportatutako produktu nagusiak autoak (2,75 mila milioi euro), motordun ibilgailuak eta piezak (2,29 mila milioi euro), kamioiak (1,47 mila milioi euro), petrolio findua (1,3 mila milioi euro) eta pneumatikoak (1,02 mila milioi euro) izan ziren. Nafarroak 10,1 mila milioi euro esportatu zituen, estatuko hamaikagarren lurralde esportatzailea izanik. Bere esportazio nagusiak autoak (2,46 mila milioi euro), motordun ibilgailuak eta piezak (1,29 mila milioi euro), barazki izoztuak (465 milioi euro), transformadore elektrikoak (186 milioi euro) eta energia sortzeko ekipoa (184 milioi euro) izan ziren. Oro har, Hego Euskal Herriak 40,9 mila milioi euro esportatu zituen, automobilgintzan eta industria bitarteko ondasunetan kontzentratutako espezializazioarekin, eta Nafarroaren kasuan, elikadura sektoreko nitxo esanguratsu batek osatuta.

Konplexutasun ekonomikoaren indizeek bi lurraldeak Espaineko Estatuko sofistikatuen artean kokatzen dituzte. EAEk lehen postua hartzen du (PCI 0,36), eta espezializazio erlatibo handieneko produktuak (RCA) honako hauek dira: tren bidaiarien ekipamendua (123), tren autopropultsatuak (47,8), arrantza ontziak (47,5), nikelzko hodiak (42,9) eta zulatzeko makinak (34,6); konplexutasun handieneko esportazioak, berriz, balbulak (1,35), motordun ibilgailuak eta piezak (0,97), autoak (0,73), kamioiak (0,45) eta burdinazko hodiak (0,28) dira. Nafarroa Estatuko bigarren postuan dago (PCI 0,11), eta bere espezializazio erlatiboa honakoetan agertzen da: barazki izoztuak (134), vending makinak (73,4), arrautza eraldatuak (64,4), magnesio karbonatoa (54,5) eta paper karbonoa (52,1); konplexutasun handieneko esportazioak, berriz, motordun ibilgailuak eta piezak (0,97) eta autoak (0,73) dira.


Hala ere, bi kasuetan konplexutasuna mugatua da esportazio saskia gutxi dibertsifikatuta dagoelako: egitura oso oinarrituta dago automobilgintzan, makinerian, energian, siderurgian eta kimikan, eta horrek aldi berean dakar indar lehiakorra eta zaugarritasun estrukturala, eskariaren edo nazioarteko merkatuen aldaketan aurrean. Euskal esportazio egiturarekiko afinitate handiena duten produktuak (hau da, batez bestekoaren gaineratik dauden hurbiltasuna eta konplexutasuna dutenak) honako hauek dira: ijeztatutako burdina, itsasontzien helizeak, makina ibiltariak, ibilgailuen gorputzak eta zentrifugagailuak; Nafarroan, berriz, egurrezko kutxak, burdinazko ontzi handiak, zurgintza, izozkia eta aluminiozko barrak.

Bi lurraldeetan esportazio helmugak nagusiki europarrak dira. EAEk batez ere Alemania (407M€), Frantzia (348M€), Erresuma Batua (175M€), Ameriketako Estatu Batuak (169M€) eta Italia (143M€) izan zituen helmuga; esportazioen %70 inguru Europara, %10 Ipar Amerikara eta %10 Asiara bideratuta. Nafarroak Alemania (157M€), Frantzia (155M€), Italia (66,7M€), Portugal (61,1M€) eta Erresuma Batua (39,7M€) izan zituen helmuga nagusi, esportazioen %80 Europara, %7 Asiara eta %6 Ipar Amerikara (AEB, Kanada ta Mexiko) bideratuta.

Hala ere, Hego Euskal Herri osoaren azterketa sektorialak erakusten du Espainiako merkaturak dela kasu gehienetan esportazioen helmuga nagusia, bereziki eraikuntzan (%92,6), administrazio publikoan eta gizarte zerbitzuetan (%90,2), jarduera higiezinetan (%89,2) eta beste zerbitzu batzuetan (%82,8%). Manufakturak bere esportazioen %52,5 Espainiako merkatura bideratzen du, %17,7 Europa erdialdera eta %10,9 Europa ekialde eta hego-ekialdera. Nekazaritza da sektorerik internazionalizatuena, bere esportazioen %42,6 Europa erdialdera eta soilik %20,3 Espainiako merkatura bideratuta. Informazio eta komunikazioek dibertsifikazio handiena dute nekazaritzaren ondoren, esportazioen %19,6 Europa erdialdera eta %14,7 munduko gainerako tokietara bideratuta.

27. grafikoa. HEHko esportazio zuzen eta zeharkako helmuga herrialde-blokeka

(HEHn sortutako outputa helmuga-blokearen azken eskariaren ondorioz)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, FIGARO MRIO Input-Output tauletan oinarrituta (Eurostat, 2017)


Inportazioak

2024an, EAEko inportazioak 27 mila milioi euro izan ziren, batez ere petrolio gordina (4,96 mila milioi euro), petrolio findua (1,67 mila milioi euro), motordun ibilgailuak eta piezak (974M€), burdina beroan (582M€) eta errektuntza motorrak (545M€). Nafarroak 6,46 mila milioi euro inportatu zituen, batez ere motordun ibilgailuak eta piezak (1M€), pizte motorrak (632M€), transformadore elektrikoak (239M€), kable isolatua (230M€) eta errodamenduak (106M€). Bi lurraldeen inportazio profilak balio kate globaletan duten kokapena islatzen du: energia sarrerak eta industria osagaiak erosten dituzte esportaziorako ondasun landuak ekoizteko. Desberdintasun nagusia petrolioaren pisua da EAEn kasuan (Nafarroan ez dagoena), eta Nafarroan osagai elektroniko eta elektrikoaren presentzia handiagoa, energia berriztagarrien eta automobilgintza elektrifikatuaren espezializazioarekin bat datorrena.

Hego Euskal Herriko esportazioetan txertatutako input inportatuak nagusiki Espainiako merkatutik datoz sektore guztietan. Eraikuntzak du nagusitasuna (%86,6), ondoren zerbitzu profesional eta teknikoak (%70,8), informazioa eta komunikazioak (%70,1) eta finantzak eta aseguruak (%63,9%). Manufaktura bere input esportatzaileen %52,1 Espainiatik eskuratzen ditu, %21,5 Europa erdialdetik eta %8,8 Europa periferikotik. Finantza eta aseguruetan berezitasun bat dago: input esportatzaileen %15,1 munduko gainerako tokietatik dator, sektorearen integrazio globa-


laren isla. Nekazaritzak Espainiaren mendekotasun txikiena du (%68,4), Europa erdialdearen (%16,3) eta Europa periferikoaren (%9,5) presentzia nabarmenarekin.

28. grafikoa. Hego EHko inportazioen jatorria herrialde taldeka



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, FIGARO MRIO Input-Output tauletan oinarrituta (Eurostat, 2017)

29. grafikoa. HEHko esportazioetarako Espainiako Estatutik datozen inportazioen jatorria autonomia-erkidegoka




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, FIGARO MRIO Input-Output tauletan oinarrituta (Eurostat, 2017)

Barne eskaria asetzeko inputen jatorriak antzeko eredua du, Espainiako merkatua sektore guztietan nagusi delarik. Jarduera higiezinak (%77,2), administrazio publikoak eta gizarte zerbitzuek (%77,3) eta eraikuntzak (%82,3) dute kontzentrazio handiena. Manufakturak %43,6 Espainiatik eskuratzen du, %23,8 Europa erdialdetik eta %11,1 Europa periferikotik; Txinak %3,6 ordezkatzen du, sektore guztien artean kanpo europar kuota handiena. Finantza eta aseguruetan munduko gainerakoaren presentzia handiagoa da (%16,0), nazioarteko kapital fluxuekin lotuta.


Espainiar Estatuari dagokionez, erkidegoen arabera banaketak erakusten ditu kontzentrazio eredu esanguratsuak. Nekazaritzak du kontzentrazio handiena: Andaluziak inputen %39,3 du, beste edozein erkidegoren gainetik, eta horrek erakusten du Hego EHk mepekotasun handia duela bere barne elikadura horniduran. Zerbitzu aurreratuetan, kontzentrazioa metropolian pilatzen da: informazio eta komunikazioek inputen %50,7 Madrildik jasotzen dituzte. Antzeko eredua dute zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoek (Madril %30,0; Katalunia %20,2). Finantza eta aseguruak banatuago daude (Madril %16,8; Katalunia %16,7; Andaluzia %14,7). Manufakturan, berriz, banaketa orekatuagoa da. Horrek egiturazko asimetria bat erakusten du: Hego EHk Madrilen mendekotasun handia du balio erantsi handiko zerbitzuetan.

30. grafikoa. Barne eskariarentzako inportazioen jatorria herrialde taldeka



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, FIGARO MRIO Input-Output tauletan oinarrituta (Eurostat, 2017)

31. grafikoa. Barne eskariarentzako Espainiako Estatutik datozen inportazioen jatorria erkidegoka




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, FIGARO MRIO Input-Output tauletan oinarrituta (Eurostat, 2017)

Merkataritza saldoa

Ohiko merkataritza balantzaren arabera, 2024an EAEk 3.927 milioi euroko saldo positiboa izan zuen eta Nafarroak 3.637 milioi eurokoa, eta horrek Hego Euskal Herriak guztira 7.564 milioi euroko superabita izan zuela erakusten du, bere esportazio gaitasun garbiaren isla.

Balio erantsiaren ikuspegitik egindako analisiak irudi estrukturalagoa eskaintzen du. Hego EHk superabita du nazioarteko talde guztiekin: Europa erdialdearekin (+2.193M€), Europa periferikoarekin (+1.480M€), munduko gainerakoekin (+1.478M€), Ipar Amerikarekin (+482M€), Latinoamerikarekin (+283M€) eta Asiaren kasuan (+162M€). Defizit bakarra Txinarekin dago (-375M€). Datu esanguratsuena Espainiako Estatuarekiko defizit estrukturala da: -3.791M€ balio erantsian, Txinarekiko defizita baino hamar aldiz handiagoa. Defizit horrek bi osagai ditu: zuzena (-2.778M€), Hego EHk Espainiako merkatutik erosten dituen azken ondasun eta zerbitzu kopurua handiagoa delako; eta zeharkakoa (-1.013M€), Espainiako inputek Hego EHren ekoizpenean duten pisua handiagoa delako alderantzizkoa baino. Beraz, Hego EHk munduarekiko superabita du baina Espainiako Estatuarekiko defizita, eta horrek mendekotasun erlatiboa erakusten du.

32. grafikoa. Hego Euskal Herriko merkataritza-saldo zuzena eta zeharkakoa



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, FIGARO MRIO Input-Output tauletan oinarrituta (Eurostat, 2017)

Balio kateetan kokapena

Hego EHko ekoizpenean txertatutako kanpo balio erantsiaren eta beste lurralde batzuen esportazioetan txertatutako balio erantsi propioaren analisiak aukera ematen du merkataritza balantza konbentzionalaren irakurketa zabaltzeko eta ñabardurak egiteko, eta eskaintzen du Hego EHk ekonomia globalean duen posizioaren egiturazko irudia.

Backward adierazleak esportazio propioek zenbat atzerriko balio erantsi duten erakusten du, eta balio katean posizio aurreratuagoa adierazten du; hau da, beste lurralde batzuetatik datozen produktu edo osagaiak erabiltzen eta eraldatzen diren posizioa. Aldiz, *forward* adierazleak beste lurralde batzuek beren esportazioetan zenbat balio erantsi propio txertatzen duten erakusten du, eta balio katean hasierakoagoa den posizioa adierazten du, gero beste batzuek eraldatuko dituzten osagai edo materialen ekoizpenari lotua.


Industria manufakturak eta energetikoak backward handiena du (%59,4) eta forward baxua (%27,6), eta horrek kate globalen fase aurreratuaren kokatzen du: Hego EHk hornitzaile anitzetatik osagaiak eta lehengaiak inportatzen ditu esportaziorako ondasun landuak ekoizteko. Hori bateragarria da automobilgintzan eta makinerian dagoen esportazio kontzentrazioarekin, kanpoko input ugari behar dituzten sektoreak baitira. Eraikuntzak (backward %44,9, forward %17) eta informazio eta komunikazioek (backward %41,4, forward %28,6) ere katean posizio aurreratuagoak dituzte, ekoizpenean kanpo balio erantsi esanguratsuekin.

Kontrako muturrean, zerbitzu profesional, zientifiko eta teknikoek forward handiena dute (%61,7) eta backward moderatua (%33,9), eta horrek adierazten du Hego EHk jokatzeko duela beste lurraldeek beren esportazio produkzioetarako ezagutza eta zerbitzu inputen hornitzaile gisa. Finantzek eta aseguruak antzeko profila erakusten dute (forward %47, backward %28), beste

lurraldeetako ekoizpen kateetan finantza zerbitzuen hornitzaile gisa jarduten baitute. Nekazaritzak ere forward altua du (%59,4), lehengai eta lehen mailako produktuen hornitzaile gisa duen funtzioarekin koherentea.

Zerbitzu publikoek, jarduera higiezinak eta beste zerbitzu batzuek maila baxuak dituzte bi adierazleetan, eta horrek islatzen du kate globaletan duten integrazio txikia eta haien izaera nagusiki domestikoa.

33. grafikoa. Backward eta forward parte-hartzea sektoreka



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, FIGARO MRIO Input-Output tauletan oinarrituta (Eurostat, 2017)

Birlokalizazioa: kanpo mendekotasuna eta ekoizpenaren orientazioa

Azkenik, 34. eta 35. grafikoez aukera ematen dute identifikatzeko zein sektorek duten birlokalizazio potentzial handiena, bi dimentsio gurutzatuz: produkzio unitateko inportazio mendekotasuna eta sektorearen garrantzia beste sektoreentzako input hornitzaile gisa. Puntu bakoitzaren neurria adierazten du esportazio orientazioak.


Subiranotasun produktiboaren helburu politikoa kontuan hartuta, interesgarrienak dira inportazio mendekotasun handia eta nagusiki barne orientazioa duten sektoreak, horietan birlokalizazioak eragin zuzena izango lukeelako esportazio eredia eraldatu beharrik gabe. EAEn, energia sektoreak nabarmentzen dira (energia elektrikoaren ekoizpena eta gas eta lurrun hornidura), kanpo mendekotasun handia eta sistemaren funtzionamendurako funtsezko input hornitzaile rola uztartzen baitituzte, esportazio txikiarekin batera. Kontuan hartuta input energetiko gehienak Espainiako merkatutik eta Europa erdialdetik datozela, tokiko ekoizpeneko energia berriztagarrietarako trantsizioa da birlokalizazioaren gako zuzenena. Makinen konponketa eta instalazioa

eta eraikuntza ere barne merkatura orientatutako sektoreak dira, eta haien inputak pixkanaka birlokalizatu daitezke. Nafarroan, energia hornidurak antzeko profila du, eta industria kimikoa nabarmentzen da ekonomia osoarentzako input hornitzaile gisa duen pisuagatik, mendekotasun inportatzaile handiarekin, eta ondorioz, egiturazko zaurgarritasunarekin puntu garrantzitsu bihurtzane du.

Beste muturrean, kokeriak, siderurgia, motordun ibilgailuen fabrikazioa edo elikadura industria bezalako sektoreak dira inportazio handia behar dutenak baina ekoizpena ez dena lurraldean kontsumitzen. Horregatik, ez dira birlokalizatzeko sektoreak, baizik eta haien ekoizpen gaitasuna berrantolatzeak, Euskal Herriko biztanleriaren beharrei erantzuteko.

34. grafikoa. Mendekotasuna eta ekoizpenaren orientazioa EAE


(2022ko datuak)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Eustat eta Nastat datuetan oinarrituta

35. grafikoa. Mendekotasuna eta ekoizpenaren orientazioa Nafarroan

(2016ko datuak)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Eustat eta Nastat datuetan oinarrituta

3.2.3. Industriako adierazleak

Aztertu dugun moduan, industria gakoa da Hego Euskal Herriko ehundura ekonomikoan eta Europan baino pisu erlatibo handiagoa du. Hego Euskal Herriak automobilgintzarekin, makina erremintarekin, energiarekin, siderurgiarekin edo nekazaritzako industriarekin lotutako ekoizpen eredia garatu du historikoki, gaitasun teknologiko nabarmenari eta ekosistema sendoari esker. Industriako tradizio horrek espezializazio lehiakorra sustatu du Europako eta nazioarteko hainbat merkatuetan.

Halaber, hainbat ekarpen teoriko eta enpirikok adierazi dute “pisu industrialaren” analisia ezin dela industriako estatistika konbentzionaletara mugatu, kanpora ateratzeak eta geroz eta interdependentzia handiagoa izateak zerbitzuetara bideratu baitituzte industriaren funtzio dinamikoetako batzuk. Literaturak erakutsi du “hazkunde-motorren” (produktibitatea, berrikuntzen transmisioa, nazioartekotzea) ezaugarriak partekatzen dituztela manufakturrek eta hainbat zerbitzuek (batez ere IKTekin, telekomunikazioekin, enpresentzako zerbitzuekin eta finantzekin lotutakoek); beraz, horiek ere kontuan hartu behar dira industriaren garrantzia ebaluatzeko eta, kasu askotan “industria + ekoizpenerako zerbitzuak” begiratu behar da. Hau da, industria eta ekoizpen zerbitzuak elkarrekin neurtu behar dira, pisuaren eta bilakaeraren irudi osoa lortzeko.


Hainbat irizpide daude industria eta zerbitzuak helburu analitikoaren arabera sailkatzeko: sailkapen estatistikoek (ISIC/NACE/CNAE) ekoizpen prozesuaren antzekotasunaren arabera sailkatzen dute, eta eskala agregatuagoetan, ondasun/zerbitzu motaren, erabileren eta input/teknologiaren arabera. Gainera, zerbitzuen kasuan, (i) eskaintzaren modalitatea (merkataritzakoak vs. merkataritzakoak ez direnak), (ii) eskari mota (amaierako kontsumoa vs. ekoizpenerako zerbitzuak) eta (iii) izaera/teknologia (ezagutzaren intentsitatea) bereiztea komeni da (Orkestra, 2023). Gure kasuan, NACE Rev.2n oinarritutako Europar Batzordearen sailkapena (2003) jarraitu dugu. Sailkapen horrek Karaomerlioglu eta Carlssonek (1999) egindako proposamena jarraitzen du. Bi ezaugarri gako ditu: (i) ez ditu kontuan hartzen merkataritzakoak ez diren zerbitzuak eta eraikuntza; eta (ii) beste ekoizpen unitate batzuetara (industriakoak zein ez) bideratutako zerbitzuak hartzen ditu kontuan, ez soilik “industriarako zerbitzuak”.

3.2.3.1 Industriako ehunduraren ezaugarriak

Tamaina

Hego Euskal Herriko enpresa egituraren azterketak ehundura oso polarizatu islatzen du tamainari dagokionez, ezaugarri esanguratsuekin bere gaitasun teknologikoari, antolaketa gaitasunari eta egiturazko eraldaketari dagokionez. Grafikoen arabera, enpresen %96 baino gehiagok 50 enplegatu baino gutxiago ditu. Zifra hori ez da ia aldatu azken hamarkadan. Mikroenpresen nagusitasun hori objektiboki muga da eskala handiko prozesuentzat: I+Gko inbertsioentzat, nazioartekotzearentzat, etengabeko prestakuntzarentzat, digitalizazioarentzat edo trantsizio ekologikoarentzat.


36. grafikoa. Enpresen portzentajea tamainaren arabera (2024)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Hala ere, azken datuek erakusten dute hazkunde dinamika garbia egon dela enpresa ertainetan (50etik 250era) eta handietan (250 baino gehiago), %68ko eta %51ko hazkundearekin, hurrenez hurren. Mikroenpresek, berriz, behera egin dute. Aldaketa berri horrek islatzen ditu finkatze prozesuak, enpresa berrien hazkundea edo atzerriko inbertsioaren erakargarritasuna. Alabaina, sektoreen eta teknologien arabera azterketak hainbat ñabardura erakusten ditu irakurketa horretan.

37. grafikoa. Enpresa kopuruaren aldaketaren %, tamainaren arabera (2014-2024)




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Enpresen tamaina maila teknologikoaren arabera xehatzen duen grafikoak erakusten du teknologia handiko industria sektoreetan ere enpresa gehienak oso txikiak direla. Teknologia industrial handiko eta ertain-handiko enpresen %90 baino gehiagok 50 langile baino gutxiago ditu. Horrek asko mugatzen du enpresa horien inpaktu agregatua eta trakzio gaitasuna. Patroi hori ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboetan ere errepikatzen da. Horietan, enpresen zatiketak zaildu egin dezake ekosistema teknologiko sendoak artikulatzea.

Zatiketa egon arren, azken hamarkadan enpresa hazkundea bereziki handia izan da eduki teknologiko eta industrial handieneko segmentuetan. Horrek nitxo lehiakorren premia adieraz dezake. Sektorearen eta tamainaren arabera aldaketaren grafikoak berresten du hori. Izan ere, hazkunde handiak izan dira enpresa ertain eta handietan makinaren, automobilaren, elektronikaren, informatikaren edo produktu farmazeutikoen fabrikazioaren adarretan. Kasu askotan, atzerriko kapitala erakartzearekin dago lotuta hazkunde hori.

38. grafikoak. Enpresen portzentajea tamainaren eta eduki teknologikoaren arabera (2024)

(eskuragarri dagoen azken urtea)




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Hain zuzen ere, kapital gehiena atzerrikoa duten enpresei buruzko grafikoek kontzentrazio handia erakusten dute teknologikoki aurreratuak eta estrategikoak diren sektoreetan: farmazian, automobilgintzan, IKTetan, kimika finean, eta abar. Horrek esan nahi du enpresa ehundurarik teknikoena eta eskalatuena oso nazioartekotuta dagoela eta, hein batean, errotu gabe dagoela. Hortaz, mendekotasun estrukturalaren arriskuak, kanpoko erabaki korporatiboekiko zaugarritasuna eta tokiko kateatze sendoak sortzeko zailtasunak ekar ditzake.

39. grafikoa. Atzerriko kapitalaren %51 baino gehiago duten enpresen portzentajea sektorearen eta eduki teknologikoaren arabera (2024)

(eskuragarri dagoen azken urtea)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Ekoi-zerbitzuen desertze prozesu hori ezin da ulertu egun korporazio handiek nazioartean gauzatzen duten egiturazko boteretik kanpo. Globalizazio finantzarioaren eta nazioarteko balio kateen testuinguru horretan, inbertsioari, lokalizazioari edo sektorearen espezializazioari buruzko


erabaki estrategikoek gero eta gehiago erantzuten diete behar korporatiboei eta geratzen dira kontrol demokratikotik kanpo. Lurraldeek kapitala erakartzeko duten lehiak are gehiago okertzen du egoera hori eta ahultzen dute gobernuen arautzeko gaitasuna. Hortaz, txikitu egiten da gobernuen enpresa jarduera baldintzatzeko aukera eta zailtzen ditu ekoizpen eredua estrukturaliki bideratzeko saiakerak.

Aldiz, erakunde publikoen industria politiken esku hartzeko gaitasuna bereziki adierazgarria da enpresa txiki eta ertainetan (ETE), zaurgarritasun handiagoa eta kanpo laguntzarekiko mende-kotasun handiagoa dutelako. Orkestrak Tokiko Garapen Agentziekin egindako lanari dagokionez argitaratutako emaitzen arabera, ETE-ek muga handiak dituzte giza baliabideetan eta baliabide ekonomikoetan, eta horrek zailtzen du haien berrikuntzarako eta ingurune eskakizunetara egokitzeko gaitasuna. Hori horrela, ekintza publikoa eta bitarteko eragileen laguntza funtsezkoak dira egiturazko oztopo horiek gainditzeko eta antolaketa eraldatzeko prozesuak bideratzeko aukera zabaltzeko.

3.2.4. Enplegua

2024an, enpleguaren sektorekako banaketak erakusten du zerbitzuen nagusitasuna, enplegua dutenen %72,3 baitira. Industria Hego Euskal Herriko enpleguaren %21,4 izan zen, 278.400 langilerekin, EPA datuen arabera. Bestalde, eraikuntzak %4,9 du, 2008ko krisiaren ondoren gertaturiko doikuntzak ezarritako mailan; nekazaritza, berriz, %1,4 baino ez da, eta produkzio egitura osoan oso pisu txikia izaten jarraitzen du.


40. grafikoa. Enpleguaren banaketa sektoreka Hego Euskal Herrian, 2024an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren EPAren datuetatik abiatuta

Hurrengo grafikoak enpleguaren banaketa islatzen du, EAeko industria jardueraren adarren arabera. Adarrik adierazgarriena da metalurgia eta burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuen fabrikazioa, 68.381 langilerekin (%31,7); ondoren, industria kimikoa (%11,4) eta elikagaien, edarien eta tabakoaren industria (%10,6). Kautsozko, plastikozko eta mineral ez metalikozko produktuen fabrikazioak (%9,1) eta ehungintza industriak, jantzigintzak, larruak eta oinetakoak (%7,2) ere pisu handia dute. Gainerako sektoreek ehuneko txikiagoak dituzte.

41. grafikoa. Enpleguaren banaketa adarren arabera EAEn, 2024an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten datuetatik abiatuta

Sexuaren eta adarraren arabeko grafikoa erakusten du EAEko industrian generoaren arabeko lan banaketa: gizonak dira nagusi sektore astunetan, teknikoetan eta energia sektoreetan, eta emakumeek, berriz, gainordezkaritza dute ehungintzarekin, elikadurarekin eta farmaziarekin lotutako adarretan. Oro har, emakumeek industrian duten lekua (%23) oso txikia da. Horrek erakusten du egiturazko desoreka handia dagoela.


42. grafikoa. Industriako enplegua sexuaren arabera, 2023an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten datuetatik abiatuta

Hurrengo grafikoek erakusten dute Hego Euskal Herriko enpleguak tertziarizazio prozesu argia izan duela 2000. eta 2024. urteen artean, eta zerbitzuen sektorea hazten joan dela, batez ere 2008ra arte eta 2014. urtetik aurrera. Bestalde, industriak ekonomian garrantzi historikoa izan duen arren, beheranzko joera izan du 2000. urtetik eta 2014tik aurrera egonkortzea baino ez du lortu, lehengo neurrietara itzuli gabe. Bilakaera horrek agerian uzten du lan merkatuaren egitura aldatzen ari dela eta zerbitzuek nagusitasuna hartzen ari direla industriaren aldean. Eraikuntzak eta nekazaritzak ere atzerakada handia izan dute.

43. grafikoa. Enpleguaren bilakaera sektoreka Hego Euskal Herrian




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, INEren Eskualde Kontabilitatetik abiatuta

Jarraian ageri den grafikoak sektorearen eta eduki teknologikoaren araberako datuak erakusten ditu. 2000. eta 2008. urteen artean, eraikuntzako eta zerbitzuetako enplegua pisu handiago hartu zuten (batez ere zeharkakoetan eta industriarekin lotutakoetan) eta lehen sektoreak eta manufakturaren zati handi batek (eduki teknologiko ertain-txikia eta txikia), berriz, atzera egin zuten. Horrek desindustrializazio prozesu erlatiboa islatu zuen, higiezinaren boomarekin batera. 2008-2014ko krisiarekin kontrakoa gertatu zen: eraikuntzak eta industriarako zerbitzu espezifikoek behea jo zuten, manufakturak pisu are handiagoa galdu zuen eta okupazioa zeharkako zerbitzuetara eta loturarik gabekoetara mugitu zen, enpleguaren tertziarizazioa handituz.

2015-2022 aldian, egokitze partziala gertatu zen: industriarako zerbitzu espezifikoek lekua berreskuratu zuten eta manufaktura segmentu batzuk egonkortu egin ziren edo are pisua handitu. Eraikuntzak, aldiz, ez zuen ia hazkunderik izan eta zeharkako zerbitzuek jarraitu zuten nagusi izaten. Oro har, ibilbideak erakusten du enplegua zerbitzuetara mugitu dela estrukturalki, baina azken fasean suspertu egin dira apur bat industriarekin lotutako ekoizpenak.


44. grafikoa. Enpleguaren bilakaera eduki teknologikoaren arabera



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustat eta Nastaten datuetatik (Input-Output Markoa)

Enpleguaren egituraren alderaketak erakusten du EAE eta batez ere Nafarroa industrializatutako erkidegoak direla Europan. Industriako enpleguaren ehunekoa %27koa da Nafarroan eta industriako enpleguari dagokionez, Europako bigarren erkidegoa da. EAEn datuak EBko batez beste koaren gainetik daude (%20 vs %17,5), Alemaniaren edo Italiaren maila berean eta Estatukoaren oso gainetik (%13,4).

45. grafikoa. Industriaren pisua BPGaren gainean EBko herrialdeetan, 2024an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eurostaten datuetatik abiatuta

3.2.5. Lurralde egitura

Hego Euskal Herriko BPGaren eta sektoreen arabera okupazioaren lurralde banaketaren azterketak islatzen ditu egiturazko desoreka adierazgarriak bai sektorean, bai lurraldean. Lehenik eta behin, desberdintasun argia dago BPGaren egituren eta enpleguaren artean: balio erantsirik handiena sortzen duten sektoreak ez dira zertan enplegu gehien kontzentratzen dutenak. Horrek agerian uzten du desberdintasun nabarmenak daudela lanaren ustezko produktibitatean. Adibidez, Bizkaian petrolioaren fintzeko jarduerak edo industria farmazeutikoak eta Araban automobilgintzak pisu handiko ekarpena egiten diote BPGari, nahiz eta okupazio nahiko txikia izan. Horrek erakusten du kapitalizazio eta teknifikazio handia dutela. Zerbitzuek, berriz, enplegu asko sortzen dute –batez ere Bizkaian eta Araban–, baina pisu proportzional txikiagoa dute BPGean. Horrek esan nahi du batez besteko produktibitatea txikiagoa dela.

Lurraldearen ikuspegitik, industriako balio erantsia hirigune edo leku estrategiko gutxi batzuetan pilatu ohi da eta enplegua, berriz, sakabanatuago dago, batez ere zerbitzuen, eraikuntzaren edo elikagaien industriaren sektoreetan. Sektore horiek presenteago egon ohi dira periferiako eta landako eremuetan. Ondorioz, lurralde jakin batzuek kontzentratzen dute BPGaren zati handi bat, nahiz eta enplegua sortzen duten lurralde nagusiak ez izan, eta, hala, handitu egiten dira lurraldeen arteko desorekak errentari, laneko aukerei eta kohesio sozialari dagokionez. Halaber, patroi desberdinak daude lurraldearen arabera: Gipuzkoak egitura koherentea eta espezializazio industrialak ditu eta BPGean zein enpleguan islatzen da hori. Hala ere, zaugarri bihurtzen du horrek krisi sektorialen aurrean. Arabak ekonomia polarizatuagoa du eta mendekotasun handia du Gasteizetik. Nafarroak, berriz, dibertsifikazio eta lurralde oreka handiagoa du eta ekoizpen ehundura deszentralizatua eta erresilientea du.


3.2.5.1. BPG

Oro har, mapek erakusten dute desberdintasunak daudela ehundura ekonomikoaren lurralde antolaketan: Bizkaia metropolian dago zentralizatuta, Gipuzkoako industria oinarria banatuta dago, Nafarroa sakabanatuta dago eta lurraldean oreka du. Arabak zentralizazio eta polarizazio handia du.

Bizkaian, jarduera ekonomiko handia kontzentratzen da Bilboko metropolin. Sektore guztiek presentzia handia dute eremu horretan eta zerbitzuak nabarmentzen dira batik bat. Oso zabaldua daude horiek eta pisu handia dute. Industriak ere pisu nabarmena du, baina sakabanatuago dago lurraldean. Horrek esan nahi du lurraldea nahiko dibertsifikatuta dagoela, Bilbo inguruan egon arren zentralizatuta.

Zehazki industrian, mapak ehun anitza erakusten du, baina polo nahiko definituekin. Bereziki nabarmentzen da industria farmazeutikoaren pisua, Bilbao inguruan kontzentratua, baita beste sektore batzuk ere, hala nola, metaleko produktuen fabrikazioa, elikadura eta jarduera grafikoak. Kasu berezi bat da ezker aldean koke-lantegiak eta petrolioaren fintzeak duten pisu handia; horrek tokiko BPGan duten garrantzia adierazten du, nahiz eta enplegu intentsitate txikiagoa izan. Oro har, Bizkaiko industriak teknologia ertain eta handiko sektoreak uztartzen ditu jarduera tradizionalagoekin, eta eremu metropolitano kontzentratzen da, dentsitate txikiagoarekin hegoaldean eta mendebaldean.

2. irudia. Bizkaiko udalerrietako BPGa sektoreen arabera, 2024an




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Gipuzkoan ere sektorea sakabanatuta dago, baina patroia apur bat desberdina da. Industriak Bizkaian baino garrantzi erlatibo handiagoa du eta tamaina handiko hainbat puntu daude lurraldearen erdialdean eta hegoaldean (Goierrri eta Tolosa). Horrek agerian uzten du Gipuzkoako industria ehunduraren pisua. Horrez gain, zerbitzuen nukleo garrantzitsuak ditu, kostaldean batez ere. Eraikuntzak edo lehen sektoreak presentzia txikiagoa dute, periferiako eremu jakin batzuetan izan ezik.

Industriaren kasuan, barnealde-erdialde-hegoalde ardatzean kontzentrazio handia ikusten da, metalurgiaren, makineria-fabrikazioaren eta kautxu eta plastikoen produktuen fabrikazioaren pisu handiarekin. Halaber, elikadura-industriak presentzia esanguratsua du eremu periferikoetan. Mapak berresten du Gipuzkoa lurraldearen izaera, industria espezializazio handikoa, teknologia ertain eta ertain-handiko jardueretan oinarritua, eta Bizkaiarekin alderatuta lurralde eredu orekatua duena.

3. irudia. Gipuzkoako udalerrietako BPGa sektoreen arabera, 2024an




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Nafarroaren kasuan, mapak jarduera ekonomikoaren sakabanaketa geografiko handia erakusten du, zerbitzuek lurralde osoan presentzia nabarmena dutela, landa eremuetan ere bai. Horrek zerikusia izan dezake Iruñearen hiriburu izaerarekin eta jarduera ekonomikoa lurraldean hobeto banatuta egotearekin. Industriak ere presentzia handia du, bereziki erdialdean; lehen sektorea, berriz, ia lurralde osoan banatuta ageri da, Nafarroako landa ekonomiaren barruan duen pisu erlatiboa erakutsiz. Leku berean sektore asko egoteak erakusten du jarduera ekonomikoa askotariko dela.

Nafarroako mapak erakusten du manufakturari lotutako jarduerak sakabanatuago daudela. Elikadura industria da nagusi kokalekuari dagokionez, ia lurralde osoan zehar banatua baitago. Horrekin batera, beste sektore batzuk ere nabarmentzen dira, hala nola, metaleko produktuen fabrikazioa, ibilgailu motordunen fabrikazioa (Iruña inguruan eta hegoaldean), eta produktu elektronikoa eta informatikoen fabrikazioa. Metalurgiak eta makineriaren sektoreek Gipuzkoa edo Bizkaiarekin alderatuta duten pisu erlatibo txikiagoak iradpkitzen du industria egitura desberdin, eraldaketa industriaren eta azken kontsumora bideratutako jardueren presentzia handiagoarekin. Halaber, kontzentrazio txikiagoa eta lurralde oreka handiagoa ere nabarmentzen dira.


3. irudia. Nafarroako udalerrietako BPGa sektoreen arabera, 2024an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Azkenik, Araba polarizatuago dago. Jarduera ekonomikoa Gasteiz inguruan dago kontzentratua eta zerbitzuak eta industria dira nagusi bertan, argi eta garbi, tamaina handiko zirkuluekin. Lurraldeko gainerako eremuek jarduera ahulagoa eta espezializatuagoa dute eta lehen sektoreak pisu erlatibo handiagoa du periferian. Mapa honek argi erakusten du Arabako ehun ekonomikoaren izaera oso zentralizatu dagoela Gasteiz inguruan, eta bertan kokatzen dira industria ugari: elikadura, metaleko produktuak, farmazia, kimika, etab. Halaber, hegoaldean (ziurrenik Araba-Errioxan) edari fabrikazioaren gune esanguratsu bat ikusten da, baita automobilgintzaren eta haren eratorrien presentzia ere. Beste lurraldeekin alderatuta kopuru txikiagoa izan arren, ordezkatutako sektoreak askotarikoak dira, nahiz eta gune jakin batzuen mendekotasun handia izan. Arabako industria polarizatuagoa dela dirudi, landa eremu zabalekin, non industriak BPGari egiten dion ekarpena txikia edo ezdeusa den.


5. irudia. Arabako udalerrietako BPGa sektoreen arabera, 2024an



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Azken bi hamarkadetan, industriaren BPGaren pisuak behera egin du Hego Euskal Herriko eskualde ia guztietan, lurralde desoreka nabarmenekin. Hogei urteko ikuspegiak (2004–2024) prozesuaren benetako neurria erakusten du. Bilbo Handiak 63 puntu portzentual baino gehiagoko galera metatzen du epe horretan, tertziarizazio bizi baten isla. Enkartazioak, Arratia-Nerbioi, Gernika-Bermeo eta Plentzia-Mungiak antzeko joerak jarraitzen dituzte. Gipuzkoan, Donostialdeak 17 puntu galtzen ditu bi aldietan; bitartean, historikoki industrialak den Debagoienak 17 puntuko atzerakada du hogeitun urtean. Salbuespen positiboak urriak dira: Debabarrenak eta Tolosaldeak industria pisua mantentzen edo zertxobait handitzen dute, eta Goierri nolabaiteko erresilientzia erakusten du hamar urtera. Nafarroan, kontrasteak muturrekoak dira: Doneztebek lagin osoko jaitzierarik handiena du BPGan eta enpleguan; aldiz, Tafallak eta Tuterak egonkortasun handia erakusten dute. Otsagabiaren kasua bereziki deigarria da ikuspegi estatistikotik, hogeitun urtean ia 279 puntuko hazkundera baitakar, ziurrenik oinarri ekonomiko oso txikia duen lurralde batean industria jarduera handi baten ezarpenagatik.

6. irudia. Eskualdeka industria-BPGaren aldaketa portzentuala (2004–2024)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

3.2.5.2. Enplegua


Bizkaian, okupazioaren zama Bilbo Bilboko metropolaren bueltan pilatzen da argi eta garbi, eta zerbitzuak dira nagusi, intentsitate handiarekin. Zerbitzuen sektorea da lurraldeko enpleguaren motor nagusia, bereziki Bilbo-Barakaldo-Getxo ardatzean. Industriak ere presentzia handia du, baina sakabanatuago dago. Beste sektore batzuek (adibidez, lehen sektoreak edo eraikuntzak) rol askoz ere txikiagoa dute. Kasu honetan, enpleguaren tertziario handia eta hiri-ekonomiaren kontzentrazio indartsua islatzen du ehundura ekonomikoaren mapak.

Gipuzkoak patroi orekatuagoa du sektoreen artean eta industriak presentzia erlatibo handiagoa du okupazioari dagokionez. Industriako enplegua modu nahiko homogeneoan dago banatuta lurralde osoan zehar, batez ere barrualdean. Zerbitzuak ere adierazgarriak dira, baina ez dute Bizkaiko nagusitasun berbera. Ehundura ekonomikoa dibertsifikatuago dago eta industria eta zerbitzuak uztartzen dira nukleo askotan. Dualtasun horrek berresten du lurraldeak izaera industrialak duela, baina zerbitzuen oinarri esanguratsuekin uztartuta.

Nafarroako mapak erakusten du egitura ekonomikoa oso sakabanatuta dagoela lurraldean zehar. Zerbitzuen arloko okupazioa lurralde osoan dago sakabanatuta; ez du Bizkaiko zentralitatea. Industriako enpleguak presentzia handia du, batez ere erdialdean eta hegoaldean eta, gainera, lehen sektoreak presentzia handiagoa du, landa eremu askotan agertzen baita. Iruñea eta Tutera inguruan dago kontzentrazio handiena, baina enplegu guneak daude sakabanatuta. Hortaz, lurraldea eta sektorea orekatuta daude eta zerbitzuak eta industria uztartzen dira, nekazaritzaren pisu handiagorekin.

iAraban, Gasteiz inguruan kontzentratzen da enplegua argi eta garbi, eta zerbitzuek eta industriak hartzen dute maparen zatirik handiena. Hiriburutik kanpo, okupazioa txikiagoa da bolumenaren aldetik eta banatuago dago sektoreetan. Lurraldeko gainerako eremuetan industriako edo nekazaritzako enplegu poltsa txikiak daude, baina metaketa handirik gabe. Kontzentrazio horrek ekonomia oso polarizatuaren irudia indartzen du, enpleguaren zatirik handiena xurgatzen baitu hiriburuak eta funtzio espezifikokoak edo txikiagoak betetzen baititu periferiak.

7. irudia. Enplegua udalerrika eta sektoreka Hego Euskal Herrian, 2024an




Iturria: ELAko Ikerketa Kabinetea, Merkataritza Erregistroaren (SABI) datuetan oinarrituta

Industria enpleguari dagokionez, ereduak, oro har, BPGarenarekin koherentea da, nahiz eta badauden desberdintasun garrantzitsuak. Zenbait kasutan, enpleguak hobeto eusten dio BPGean duen pisuari baino; horrek adieraz lezake produktibitate erlatiboaren galerak edo lanpostu bakoitzeko balio erantsi txikiagoa gertatzen ari direla. Araba Mendialdea kasu berezia da: hamar urtera industriako enplegua galtzen du (-21 puntu), baina hogeit hamar urtera indarrez berreskuratzen du (+69 puntu), 2004–2014 aldirian berrindustrializazio bat iradokiz. Baztanek ere portaera nabarmena du, hamar urtera enplegua irabaziz (+43 puntu), baina hogeit hamar urtera neurri batean atzera eginez (-12 puntu). Oro har, desindustrializazio estrukturala nabarmenagoa da eskualde urbanoetan eta Nerbioi ardatzean, eta Gipuzkoako tarteko eskualde batzuetan eta oinarri txikiagoko Nafarroako lurraldeetan iraupen handiagoa da. Kasu gehienetan, industriak BPGan duen pisuaren galera okupazioaren galera baino handiagoa da; horrek iradokitzen du industria-balio erantsia langile bakoitzeko okertu egin dela ekonomiaren multzoarekin alderatuta.

46. grafikoa. Hego Euskal Herriko emisio totalen bilakaera sektore igorleen arabera

(1990 = 100)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, EDGARen datuetatik abiatuta (Eurostat, 2022)

Ibilbide hori estuki lotuta dago industria jarduera sostengatzen duen energia ereduarekin. EAEn, industriaren energia kontsumoa 2023an elektrizitatean (%42,23) eta gas naturalean (%38,91) oinarritu zen, eta berriztagarriek sektorearen kontsumoaren %8,89 baino ez zuten ordezkatu. Nafarroari buruzko datu zehatzik ez badugu ere, ondoriozta daiteke Nafarroako industriaren energia beharrak ez direla nabarmen desberdinak EAEn daudenekin alderatuta. Energia mendekotasun hori ez da berria: 2019an jada hemengo ekonomiak kontsumitzen zuen ekoizteko gai zen energia baino laurogeita hamar aldiz gehiago, petrolio eta gas natural inportatuen mendekotasun absolutuarekin.

Hego Euskal Herriko ekonomiaren metabolismoa, eta bereziki industriarena, gure esku ez dauden faktore askoren menpe dago, eta horrek ahultasun egoera nabarmena sortzen du. Sektorea energia fosilean eta erauzketa ereduan oinarritzen da. Industria oso menpekota da garraioarekiko, eta garraioa, aldi berean, petrolioarekiko: EAEn garraio osoaren %92,57 erregai fosilen menpe dago, eta soilik %6,57 funtzionatzen du berriztagarriekin; datu horiek Nafarroara ere estrapola daitezke. Garraioaren petro mendekotasun hori egituraz erabakigarria da, distantzia luzeko logistika arinik gabe industria jarduera osoa kolapsora eramango bailitzateke.


Hori guztiak erakusten du industriak inportatutako baliabideak xurgatu eta eraldatzen dituen eredu baten barruan jarduten duela: kanpotik erregai fosilak eta mineralak inportatzen ditu, eraldatu eta berriro esportatzeko. Fakturazio eta enplegu gehien sortzen dituzten jarduerak, hain zuzen ere, funtzionamendu horrekin lotuta daude, inportazioan eta esportazioan oinarritutakoarekin: balio erantsi handiko merkantzien ekoizleak (automobilak edo altzairua), logistika globalizatua-ren menpeko sektoreak, energia intentsitate handiko sektoreak eta, Nafarroaren kasuan, elikagai industria. Metabolismo eredu honek, hala ere, hainbat muga ditu.

3.2.6.1. Muga materialak

Hego Euskal Herrian erabilitako materialen gehiengoa ez da berriztagarria, ez birziklagarria, eta EAEn erabilitako materialen %75 inportatua da. Mineralek EAEko inportazio guztien %31 osatzen dute, eta zehazkiago, erregai fosilek erabilitako materialen %34 eta mineral metalikoeak %18 ordezkatzen dute; biak ere %99n kanpotik inportatzen dira. Gainera, gero eta zailagoa da ekonomia-aren funtzionamendurako giltzarri diren material batzuen eskuratzea: kobrea elektrizitaterako, fosforo elikagaien ekoizpenerako, teluroa eta zilarra elektronikarako eta energia berriztagarrien kaptadoreetarako, edo plastikoa negutegiko nekazaritzarako. Material horiek beste batzuekin ordezkatu beharko lirateke, berrerabili edo birziklatu ahal izango liratekeenekin. Europar Batasunak berak ofizialki identifikatu ditu mineral horiek ahulgune metaboliko eta geopolitiko gisa, hornidura arriskuaren arabera sailkatuz.

Mineralen eskasia horri gehitzen zaio erregai fosilek EAEko inportazioen %49 ordezkatzen dutela, haien erauzketa gailurrera iristen ari den une batean. Munduko petrolioaren gailurra ziurrenik 2018an iritsi zen, eta dieselarena 2016an, garraiorako eta nekazaritzarako funtsezko erregaia. Horri gehitu behar zaio Espainiako Estatuari gas gehien hornitzen dion herrialdeak, Aljeriak, bere erauzketa gailurra jada gainditu duela, eta horrek aukerak txikiagotzen ditu horniduren eten posibleen aurrean. Ondorioz, EAEko eta Nafarroako Gobernuak eurek aitortutako larrialdi klimatikoaren testuinguruan, behar-beharrezko bihurtzen du mendekotasun fosilak murriztea.

9. irudia. EAEko ekonomiaren Sankey diagrama 2016an



Iturria: IHOBE, 2018

3.2.5.2. Energia berriztagarrien mugak

Panorama horren aurrean, pentsa liteke energia berriztagarriek irtenbide bideragarri bat eskaintzen dutela. Hala ere, berriztagarriek ezin dute energia fosila eta nuklearra guztiz ordezkatu. Haien ezaugarriak oso desberdinak dira energia fosilarekin alderatuta: energia askoz sakanatuago dago eta ezin da modu berean biltegiatu. Gehienez ere, gaur egun erregai fosilek hornitzen duten energiaren erdia soilik hornitzeko gai izango lirateke. Horri gehitzen zaio elektrizitateak EAEn eta Nafarroan energia kontsumoaren %23 inguru baino ez duela ordezkatzen, eta gainerako %77 ez dagoela elektrifikatuta eta nekez egongo dela, bereziki garraioaren eta sektore petrokimikoaren kasuan. Beraz, beharrezkoa da energia trantsizio bat, nahitaez energia kontsumo globalaren murrizketarekin batera etorriko dena.

3.2.6.3. Hondakin industrialak

Aurreko guztiarekin lotuta, Hego Euskal Herrian industria hondakinen kopurua hazten ari da, eta hondakinen gehiegizko sorrera ekonomia kapitalistaren ezaugarri nagusietako bat da. EAEn industria hondakinak 2019an 6.674.779 tonara iritsi ziren, eta Nafarroan 829.987 tonara, 2021eko azken datu eskuragarrien arabera. Une honetan, industria hondakinen birziklatzeak txikiak dira: 2016an, euskal ekonomiak erabilitako materialen %7 baino ez zuen birziklatzen, edozein berrera-biltzen helburutik urrun dagoen kopurua.

EAEn, hondakin ez arriskutsuen %65 berrerabili edo birziklatu zen, %33 zabortegira joan zen eta %2 erraustu. Hondakin arriskutsuen kasuan, %65 birziklatu ziren eta %34 zabortegi berezietan utzi ziren, gainerako %2 erraustera bideratu zen. Nafarroan, hondakin ez arriskutsuen %81 birziklatu zen eta %19 zabortegira joan zen; hala ere, hondakin arriskutsuen %37 baino ez ziren birziklatu 2021ean, eta gainerako %63 zabortegira bideratu zen.

Zabortegietan uzten den industria hondakinen kopurua ere oso handia da, eta Zaldibarren gertatutakoaren ondoren, industria hondakinak arazo handia izaten jarraitzen dute. Zabortegi horretara eramaten ziren milaka tona hondakinak ez dira desagertu; orain beste zabortegi batzuetara eramaten dira, eta, beraz, arazoak handitzen jarraitzen du. Gaur egun errausten den industriahondakinen kopurua txikia bada ere, aurreikusitako industria hondakinen tratamendu plantak erraustegiak dira, nahiz eta paperaren eta plastikoaren birziklatzeak aurrerapen handiak izan dituen eta teknologia hobek eskuragarri egon. Nolanahi ere, industria-metabolismoa zirkulartasunera benetan hurbilduko duen eraldaketa sakon batek nahitaez birziklapen neurrietatik harago joatea eskatuko du, kontsumoaren murrizketa eta berrerabilpena lehentasun bihurtuz, eta hondakinak ziklo ekosistemikoetan integratuz; hori baita benetan esanguratsuak diren zirkulartasun tasak lortzeko bide bakarra.

4. INDUSTRIA POLITIKAREN ATZERABEGIRAKOA

4.1. Europar Batasuna

Europako industria politikak bilakaera esanguratsua izan du azken hamarkadetan: merkatuaren akatsak zuzentzera mugatutako ikuspegi errektibo eta horizontal batetik, estrategia askoz ere aktiboago eta estrategikoago baterantz egin du. Aldaketa hori, hala ere, ez da kontraesanik eta barne tentsiorik gabe gertatu. Norabide aldaketa hori bereziki agerikoa bihurtu zen 2008ko finantza krisiaren ondoren, eta areagotu egin zen COVID-19aren pandemiarekin, Ukrainako gerrarekin eta azken urteotako erronka geopolitikoekin. Hala ere, eraldaketa hori diskurtso handinahi batez lagunduta etorri da, baina maiz diskurtso horrek gizarte osoaren ongizatea baino gehiago interes korporatiboak lehenesten dituzten praktikak estali ditu.

Hamarkada luzez, EBk esku-hartze txikiko ikuspegi bati eutsi zion, merkatu bakarrean oinarrituta eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 173. artikulua babestuta. Ikuspegi hori 2000ko Lisboako Estrategiak berretsi zuen, eta industria politika tresna horizontal gisa ulertzen zuen, sektore jakinen aldeko apusturik eta plangintza estrategikorako mekanismorik gabe. 2005etik aurrera, Lisboako Estrategiaren berrikuspenarekin, eta bereziki Europa 2020 estrategiarekin (2010), hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailearen ideia indarra hartzen hasi zen. Hala ere, kontzeptu horiek sarritan lehiakortasuna jasangarritasunaren edo ekitatearen gainetik lehenesten zuten politiketan gauzatu ziren. Digitalizazioari, berrikuntzari eta punta-puntako sektore teknologikoei emandako babesari garrantzi handia eman zitzaion, baina desberdintasuna eta lan prekarietatea ez ziren egiturazko ikuspegitik jorratu.

Garai honetan, Europako gobernantza ekonomikoa egiturazko doikuntza neoliberalaren logikaren arabera berrantolatzen joan zen. Europako Seihilekoaren osagarri gisa sortutako produktibitate batzorde nazionalak lan kostu unitarioen gaineko zaintza eta soldaten gaineko presioa instituzionalizatu zituzten, teknikoki independenteak baina legitimazio demokratiko zuzenik gabeko erakunde bidez. Horrela, parlamentu nazionalak, Europako Parlamentua eta sindikatuak soldatak zehazteko prozesutik baztertuta geratu ziren, erabaki ekonomikoak eztabaida demokratikotik aldentzea helburu zuen neoliberalismo autoritarioaren dinamika baten barruan.

“Europako industria berpizkundearen alde” komunikazioarekin (2014) eta Juncker Planarekin (EFSI, 2015), industriak BPGan duen pisua handitzeko helburua ofizialki ezarri zen. Helburu hori berme publikoen bidez inbertsio pribatua mobilizatzen zuen finantza palankatzean oinarritzen zen. Orduetik, logika horrek gidatu du Europako industria politikaren finantza arkitektura, eta hasieratik bertatik zalantza handiak sortu zituen arriskuen sozializazioari eta mozkinen privatizazioari buruz.

Aldi berean, Espezializazio Adimendunaren politika (Smart Specialisation), 2014an kohesio politikaren zutabe gisa onartua, berrikuntza arrakala murriztera bideratu zen, Industria 4.0ko teknologiak eskualdeetako ekoizpen sareetan txertatuz. Hala ere, hautaketa lehiakorrean oinarritzen den logikak joera du dagoeneko ezagutza intentsiboko industriak, kluster teknologiko aurreratuak eta inbertsio pribatua erakartzeko gaitasun handiagoa dituzten eskualdeei mesede egiteko. Europako hegoaldeko eta ekialdeko ekonomiek, berriz, ezagutzan hain intentsiboak ez diren ekoizpen egiturak eta austeritate politikak murriztutako eskualde aurrekontuak dituztenez, egiturazko desabantailak dituzte. Espezializazio Adimendunak ez ditu desabantaila horiek zuzentzen; aitzitik, sendotu egiten ditu, ipar-hego eta mendebal-ekialde arteko asimetriak arindu beharrean sakonduz. Gainera, azpimarratzekoa da langile antolakundeak ez direla estrategia horien diseinuan, ezarpenean edo ebaluazioan parte hartzen duten eragile gisa ere airtortzen.

Ondoren, Europako Itun Berdeak (Green Deal, 2019), bere erretorika eraldatzailea gorabehera, kritikak jaso zituen, jasangaitzak diren dinamikak “berde” bihurtutako diskurtso baten pean erreproduzitzeagatik. Izan ere, trantsizio benetan bidezko eta demokratiko baten kaltetan, eragile

ekonomiko handiek sustatutako megaproiektuei mesede egitea leporatu zitzaion. Hurrengo urtean, 2020ko “Europako industriarako eredu berri bat” komunikazioak (eta haren 2021eko eguneratzeak) esku-hartze publikoaren areagotzea ekarri zuten, autonomia estrategikoa ardatz zuen diskurtso baten bidez, baina eredu erauzle eta produktibista nagusia zalantzan jarri gabe. Aldi berean, tamaina handiko finantza tresnak jarri ziren martxan: Next Generation EU (750.000 milioi euro), Horizonte Europa (95.500 milioi), Trantsizio Justurako Funtza (100.000 milioi euro), Berrikuntza Funtza eta FSE+, besteak beste.

Aldi horretako tresna nagusia InvestEU izan zen, EBren 2021-2027 aurrekontu ziklorako inbertsio programa. Hala ere, argitu behar da EBk ez duela programa horren bidez zuzenean inbertitzen: izenak berak erakusten du hori, InvestEU baita, eta ez EUInvest. Izan ere, arrisku gaitasunean oinarritutako eskema bat da; haren bidez, inbertitzaile publiko eta pribatuei bermeak eskaintzen zaizkie arriskuak har ditzaten, EBren aurrekontu erreserbak babes mekanismo gisa erabiliz. Praktikan, arriskua mutualizatzen duen eta babes finantzarioaren truke prima bat kobratzen duen aseguru emaile publiko baten moduan jarduten du.

Proiektuen hautaketa finantza bitartekari pribatuen esku uzten da. Bitartekari horiek publikoki bermatutako kapitalaren atezain edo kontrolatzaile gisa aritzen dira, eta etekin pribatura bideratutako inbertsio erabakiak hartzen dituzte. Diseinu instituzional hori ez da kasualitatea: finantza kapital antolatua aktiboki parte hartu zuen haren konfigurazioan, arrisku publikoaren estaldura handiagoak eta inbertitzaile pribatuentzako malgutasun handiagoa eskatuz. Ondorioz, arriskuak sozializatzen eta etekinak pribatizatzen dituen arkitektura bat eratu da. Bien bitartean, Europako Parlamentuak ez du aurrekontutik kanpoko tresnak gainbegiratzeko benetako gaitasunik, eta Europako Kontu Auzitegiak ere ez du Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) Taldeak kudeatutako funtsak auditatzeko eskumenik. Funtz horiek baliabide handiak mugiarazi badituzte ere, haien ezarpenak batez ere enpresa handiei egin die mesede, eta ETEak zein tokiko ekonomiak mendeko posizioan utzi ditu.

Azken urteotako lege ekimenek (hala nola European Chips Act, Critical Raw Materials Act eta Net-Zero Industry Act arauak) autosufizientzia teknologiko eta energetikoaren aldeko apustua areagotu dute. Hala ere, baliabide estrategikoen kontrolaren inguruko lehia ere indartu dute, eta horrek mundu mailako erauzketa-dinamikak areagotzeko arriskua dakar. Defentsa Industrialera-ko Estrategiak (2024) joera hori are gehiago indartzen du, berrarmatzea eta ekonomiaren militarizazioa helburu estrategiko gisa txertatzen baititu, lehentasun sozial eta ekologiko premia-koak bigarren mailan uzten diren testuinguru batean.

Zehazki, Europako Batzordeak 2024ko martxoaren 5ean aurkeztu zuen A New European Defence Industrial Strategy dokumentua, Europako proiektuaren norabide belizistaren azkartzean jauzi kualitatiboa ekarri duena. Testuinguru horretan, Europako Inbertsio Bankuaren (EIB) barne arauak aldatzea proposatu zen, orain arte baztertuta egon diren Europako industria militarrei zuzeneko finantzaketa ahalbidetzeko. Horrez gain, Bruselan Defentsa Industrierako Prestaketa Batzorde bat sortzea eta BEZetik salbuetsitako erosketak bateratuak ahalbidetuko dituen Europa-ko Armamentu Programa bat abian jartzea ere planteatu zen.

Lehendik zeuden Europako Defentsa Funtsei (8.000 milioi eurokoak) beste 1.500 milioi euro gehitu zaizkie 2025-2027 aldirako, armen ekoizpena indartzeko eta herrialde bazkideen arteko erosketak bateratuak errazteko helburuarekin.


“Lehiakortasunerako Iparorratzak” (2025) ibilbide hori sendotu eta instituzionalizatu egiten du. Hiru zutabe nagusi dituen arren -berrikuntza, deskarbonizazioa eta segurtasun ekonomiko- eta bost elementu laguntzaile -sinplifikazioa, merkatu bakarra, inbertsioa, talentua eta koordinazioa-, estrategiak ez du benetako eraldaketa ekonomikorako esku-hartze mekanismo argirik proposatzen. Haren helburu nagusia Kapitalen Merkatuen Batasuna osatzea da, orain Aurrezki eta Inbertsio Batasuna izenez berrizendatua. Horrek argi erakusten du azpian dagoen logika: InvestEU

bezalako tresnen bidezko esku-hartze publikoa behin-behineko mekanismo gisa ulertzen da, kapital merkatu pribatuak suspertzeko, harik eta haiek industria beren kabuz finantzatzeko adinako garapena lortu arte; une horretan, esku-hartze publikoak atzera egin beharko luke.

Gaitasun publiko estrategikoak indartu beharrean, agenda honek industria politikaren finantzarizazioa sakontzen du, eta estatuak etorkizunean inbertsioa helburu kolektiboetara bideratzeko izango duen gaitasuna ahultzen du. Horrela, trantsizio ekologikoa hazkunde ekonomikoaren eta lehiakortasun globalaren menpe geratzen da, eta planetaren muga materialei zein desberdintasun sozial sakonei buruzko eztabaida bazterrean uzten da.

Gaur egungo Europako industria politikak aurreko etapekiko bilakaera bat ekarri badu ere, paradigma berriak korporazio handiei mesede egiten dieten metaketa logikak erreproduzitzen jarraitzen du, askotan jasangarritasunaren edo autonomiaren izenean. EBren industria politika berria, azken finean, elementu kontraesankorrez osatutako egitura da: haren garapen asmoek etengabe egiten dute talka neoliberalismotik heredatutako tresnekin, tresna horiek asmo horiek beraiek indargabetzen baitituzte. InvestEUK esleipen erabakiak finantza kapital pribatuaren esku uzten ditu; Espezializazio Adimendunak zuzendu nahi dituela dioen lurralde asimetriak sendotzen ditu; produktibitate batzordeek soldaten gaineko presioa egiten dute legitimazio demokratiko zuzenik gabeko erakundeetatik; eta defentsa politikak baliabide publikoak berrarmatzera bideratzen ditu.

Finantza, lege eta gobernantza tresnen ugaritasuna ez da eraldaketa bidezko, ekitatibo eta ekologikoki bideragarri baterako mekanismo eraginkorretan gauzatzen. Erronka, beraz, ez da soilik gehiago esku-hartzea, baizik eta beste modu batean esku-hartzea: baliabideak benetako trantsizio sozial eta ekologiko batera bideratzea, kapital transnazionalaren interesen gainetik behar kolektiboak lehenetsiz.



4.2. Espainiar Estatua

Espainiar Estatuko industria politikak Europakoaren antzeko bilakaera izan du. Kontraesanek beteriko trantsizio geldo baten bidez, demokraziaren lehen hamarkadetan nagusitu zen ikuspegi liberalek esku-hartze handiagorantz jo du, nahiz eta gaur egun ere lehiakortasun globalaren dinamikek baldintza handiak ezartzen dizkioten. Industria politika koherente eta egiturazko bat izan beharrean, neurri errektiboen, programa sakabanatuen eta erreforma partzialen segida izan da neurri handi batean. Politika horiek, askotan, botere ekonomikoaren kontzentrazioa, finantzarizazioa eta

interes publikoa korporazio handien helburuen menpe jartzea indartu dituzte. Horri gehitu behar zaio genero ikuspegia sistematikoki baztertua izan dela urte luzez: ez da ez helburuetan ez tresnetan txertatu, eta industria politikaren lehentasun instituzionaletatik kanpo geratu da.

1980ko eta 1990eko hamarkadetan, industria birmoldaketak eta Telefónica, Repsol edo Endesa bezalako enpresa publikoen pribatizazioak industria ehun tradizionalaren desegiteko lehen fasea markatu zuten. Politika horien helburua eraginkortasuna eta modernizazioa sustatzea bazen ere, ondorio sozialak oso larriak izan ziren: kaleratze masiboak, enplegu egonkorren galera eta sektore estrategikoen gaineko kontrol publikoaren ahultzea. Autonomia erkidegoen mailan, eskualde garapenerako politikak bultzatu ziren, azpiegiturak eta berrikuntzako tokiko sareak sustatuz; hala ere, ez zuten industria kohesiorako estatu mailako estrategia koordinaturik izan.

2010ean Industria Politikako 2020 Plan Integrala onartu zen, eta 2014an Industria Sektorea Indartzeko Agenda. Bi ekimen horien bidez industriaren eginkizun ekonomikoa berrindartzen saiatu ziren, bereziki krisi testuinguruetan. Hala ere, pizgarri fiskaletan, digitalizazioan, klusterretan eta ETEentzako laguntzetan oinarritutako politika horiek ez ziren benetako ikuspegi eraldatzaile batean txertatu. Aitzitik, enpresak merkatu globaletan txertatzea erraztera mugatu ziren, industria eredu jasangarri eta erresiliente bat sendotzera baino gehiago.

2018an, Espainia Industrialia 2030 Esparru Estrategikoak jardura ardatz berriak ezarri zituen: digitalizazioa, berrikuntza, giza kapitala, jasangarritasuna, erregulazioa eta finantzaketa. Ikuspegi integralagoa proposatu bazuen ere, berrindustrializazioa hazkunde ekonomikoaren menpe ulertzen jarraitu zuen, muga ekologikoak eta egiturazko desberdintasunak auzitan jarri gabe. Kontsumitzaile Elektointentsiboaren Estatutua, Industria Konektatua 4.0 Estrategia edo energia-eraginkortasunerako pizgarriak bezalako neurriek lehiakortasuna eta energiarako sarbide egonkorra lehenesten jarraitu zuten, ekoizpen ereduaren benetako eraldaketan sakondu gabe eta gorabidean zeuden sektoreetan parte hartze parekidea bermatu gabe.

Pandemiaren ondoren Europako funtsen bidez bultzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak digitalizazioan, trantsizio berdean eta lurralde kohesioan inbertsio handiak sustatu zituen. Hala ere, haren ezarpenak ere egiturazko desorekak erreproduzitu ditu: funtsen kontzentrazioa korporazio handietan, ETEen eta eragile sozialen parte hartze urria, eta jasangarritasuna hazkunde ekonomikoaren motor gisa ulertzea, justizia ekologiko eta sozialerako helburu gisa baino gehiago.

2024ko Industriaren eta Autonomia Estrategikoaren Lege Proiektuak aurrerapauso bat dakar esku-hartzeko tresna gehiago eta koordinazio handiagoa izango duen esparru baterantz. Testuak hainbat kontzeptu berri txertatzen ditu, hala nola industria-ekosistema estrategikoak, Erreserba Estrategikoa (RECAPI) eta Industria Proiektu Estrategikoak; horiekin batera, tresna berriak ere aurreikusten dira, besteak beste Estatuko Bisore Kartografikoa, Industria Erregistro Integratua eta autonomia estrategikorako giltzarri diren enpresen ziurtapena. Gainera, deslokalizazioari aurre egiteko mekanismoak ezartzen dira, laguntza publikoak itzularaziz, zigorrak ezarriz eta berrindustrializatorako pizgarriak sustatuz. Berrindustrializazio Mahaia sortzea eta itxiera kasuetan ekonomia soziala jarduerari jarraipena emateko aukera gisa aitortzea elementu positiboak dira, nahiz eta derrigortasun faltak eta baliabide bermatuen gabeziak haien irismena mugatu.

Hala ere, deigarria da legeak, hain zabala izan arren, ez aurreikustea ekintza positiborako neurri zehatzik, ezta genero ikuspegidun jarraipen mekanismorik ere. Izan ere, generoaren auzia lehen aldiz modu esplizituan arau honetan agertzen da, baina modu berantiar eta mugatuan. Aurreikusitako tresnak urriak dira, eta gainera, oso zehaztugabeak. Neurri gehienek soldata arrakala "goitik" murriztea dute helburu, emakumeen presentzia zuzendaritza postuetan eta sektore teknologikoetan (STEAM) handituz; alabaina, ez dute modu egituratuan aitortzen ez indartzen historikoki feminizatuak eta prekarizatuak izan diren sektoreak, nahiz eta horiek ere ekonomiaren eta industria sarearen parte izan. Gabezia horrek nabarmen mugatzen du industria politikaren gaitasun eraldatzailea genero berdintasunaren ikuspegitik.

66

Lege honetan aurreikusitako tresnen artean, besteak beste, administrazio prozedurak hobetzea nabarmentzen da, inbertsiorako oztopoak murrizteko helburuarekin; baita energia intentsiboko industriari trantsizio energetikorako neurrien bidez zuzeneko laguntza ematea ere. Horrez gain, estrategikotzat jotako proiektuentzat lehentasunezko finantzaketa, zerga-salbuespenak eta administrazio izapideak arintzea aurreikusten dira.

Hala ere, kritikagarria da kenkari eta salbuespen fiskalak politika ekonomikoaren tresna nagusi gisa behin eta berriz erabiltzea. Izan ere, neurri horiek nabarmen murrizten dute politika publikoak garatzeko marjina fiskala, estatuaren diru-bilketa txikituz. Gainera, ez dute birbanaketa funtziorik betetzen, ez baita aurreikusten errenta altuenek edo gaitasun ekonomiko handiena duten eragileek ekarpen proportzionalki handiagoa egitea. Horrelako pizgarriek, oro har, baliabide gehien dituzten sektoreei egiten diete mesede, eta ez nahitaez behar handiena dutenei edo bidezko trantsizio baterako estrategikoak diren sektoreei. Izan ere, enpresa handiek eta nazioartekotuenek gaitasun handiagoa dute ingeniarietza fiskalaren bidez onura horiek aprobetxatzeko.


Era berean, legeak industria arloko prestakuntza sustatzeko neurriak jasotzen ditu, baita STEAM lanbideak bultzatzeko programak, talentua erakartzeko politikak eta nazioartekotze programen nahiz ziurtagirien elkarrekiko aitortza hitzarmenen bidez kanpo merkatuetara iristeko tresnak ere. Horrez gain, plangintza eta gobernantzarako hainbat egitura aurreikusten dira -Industria Politikako Estatuko Kontseilua, Espainiako Industriaren Goi Mailako Foroa, Industria eta ETEen Sektore Konferentzia eta Inbertsio Estrategikoen Batzordea-, industria politika modu koordinatuagoan antolatzeke, erakunde eta gizarte eragile desberdinen arteko artikulazioa indartuz.

Ingurumenaren ikuspegitik, gaur egun indarrean dauden arau esparruek (besteak beste, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 7/2021 Legeak eta 2024ko Mugikortasun Legearen zirriborroak) mekanismo esanguratsu batzuk aurreikusten dituzte, nahiz eta oraindik ere ez diren nahikoak. Lehenengoak industria politika energia trantsizioarekin eta berrikuntzarekin lotzen du, ingurumen aztarna murrizten duten edo teknologia garbiak erabiltzen dituzten industrientzako laguntzak eta pizgarriak sustatuz. Hala ere, ez dira planteatzen sektore kutsatzaileak pixkanaka baztertzea behartuko duten mekanismoak, ezta industria eredua errotik berrantolatuko duten ekoizpen birmoldaketarako planak ere. Aitzitik, lehiakortasuna eta inbertsioa aldatetaren motor gisa aurkezten dira, egiturazko eraldaketarik gabeko hazkunde logika indartuz.

Gainera, arau esparru horiek ez dute genero justizia txertatzen duen trantsizio ekologikoa bermatzeko mekanismorik jasotzen. Ondorioz, ez dute kontuan hartzen deskarbonizazio prozesuek emakumeengan eta gizonengan lan eta industria eremuan duten eragin desberdina.

Bestalde, etorkizuneko Mugikortasun Legeak aurreikusten du tamaina handiko enpresetan eta industria guneetan mugikortasun jasangarriko planak nahitaez ezartzea, baita salgaien logistika deskarbonizatzeko neurriak ere. Neurri horiek isurketak murrizten lagun dezaketen arren, haien benetako eragina autonomia erkidegoek egingo duten ezarpenaren araberakoa izango da, eta gaur-gaurkoz ez dago horri lotutako aurrekontu nahitaezkorik. Gainera, salgaien garraioaren jario-kortasuna lehentasun ekonomiko gisa mantentzeko ikuspegiak talka egin dezake mugikortasuna murrizteko eta ekoizpena birlokalizatzeko helburu errealekin.

Aurrerapauso horiek gorabehera, legeak lehiakortasuna eta nazioartekotzea lehenesten jarraitzen du, birlokalizazioaren eta eraldaketa ekologikoaren gaineratik. Deskarbonizazioa sustatzeko neurriak energia-eraginkortasunera, karbonoa biltegitzera edo oraindik heldutasun teknologikorik lortu ez duten irtenbide sintetikoetara mugatzen dira, energia eredua bera edo sektore kutsatzaileenak zalantzan jarri gabe. Ekonomia zirkularra printzipio orokor gisa aipatzen da, baina ez da mekanismo loteslerik ez helburu anbiziosorik ezartzen. Horrenbestez, energia-segurtasunak eta prezio lehiakorretarako sarbideak lehentasuna izaten jarraitzen dute, trantsizio ekosozial baten zerbitzura egongo den industria eredua planifikatzearen gaineratik.



4.3. Hego Euskal Herria

EAEko eta Nafarroako industria politikek bilakaera sakona izan dute azken lau hamarkadetan: birmoldaketa traumatikoaren garaitik lehiakortasunean, nazioartekotzean eta lankidetzeta publiko-privatua oinarritutako eredu baterantz igaro dira. Bi lurraldeek arkitektura instituzional sendoak eta esku-hartzeko tresna ugari garatu dituzten arren, egungo ereduak egiturazko muga handiak izaten jarraitzen du. Plangintza ikuspegi teknokratiko sendo batek baldintzatu du, enpresa handien aldeko joera argiarekin eta birbanaketari, jasangarritasunari zein genero berdintasunari dagokienez ikuspegi mugatuarekin. Azken hori, gainera, urte luzez ia erabat baztertuta egon da plangintza estrategikotik, eta dokumentu berrienetan baino ez da modu apalean agertzen, tresna espezifikorik eta benetako eraldaketa asmorik gabe.

1980ko hamarkadan, EAEk sektore helduen krisiari emandako erantzuna industria birmoldaketa eta bideragarritzat jotzen ziren enpresen erreskatean oinarritu zen. Horretarako, dirulaguntzak, maileguak eta funts publikoak erabili ziren, SPRI (1981), ELKARGI (1986) eta Energiaren Euskal Erakundea (1982) bezalako tresnen bidez antolatuta. Tresna horien helburua ekoizpen sarea mantentzea eta modernizazioa, dibertsifikazioa nahiz energia-eraginkortasuna sustatzea zen. Aldi berean, Zamudioko Parke Teknologikoa (1985) bezalako azpiegiturak bultzatu ziren, eta eskualde garapenerako agentziak zabaldu ziren. Neurri horiek erabateko desindustrializazioa saihesten lagundu bazuten ere, kostu sozial handiak eragin zituzten, batez ere enplegu egonkorren galerari dagokionez. Nafarroan, berriz, industria politikak garapen instituzional apalagoa izan zuen etapa horretan, eta arreta handiagoa jarri zuen sektore tradizionalak laguntzean eta lehendik zegoen ekoizpen ehuna sendotzean.

Dinamika horrek ondorengo hamarkadetan errepikatuko zen joera bat agerian utzi zuen: esku-hartze publikoa krisia lehertu ondoren aktibatzen zen gehienetan, zailtasunak zituzten enpresak garaiz detektatzeko protokolorik gabe, partaidetza publikoa zuten enpresen jarraipen sistematikorik gabe eta eragile sindikalekin koordinazio eskasarekin. Industria politikak, hortaz, modu erreaktiboa jarduten zuen, desindustrializazio prozesuaren ondorioei erantzunez, horiek aurreikusi edo gobernatu beharrean.

1990eko hamarkadan eta 2000ko lehen urteetan, lehiakortasunaren diskurtsoak gero eta zentralitate handiagoa hartu zuen bi lurraldeetan. EAEn, Enpresen Nazioartekotzea Sustatzeko Planak (PIPE 2000-2003) eta, bereziki, Industria Legeak (4/2004 Legea) inflexio puntu garrantzitsua markatu zuten. Lege horrek ikuspegi liberal bat sendotu zuen, administrazioaren egitekoa espa-

rruaren baldintzak erraztera mugatuz, plangintza zuzeneko eginkizunik bere gain hartu gabe eta ikuspegi publikotik kontrol edo gobernantza ekonomikorako tresnarik aurreikusi gabe. Literaturak soft interbentzioa edo esku-hartze arina deitu izan duen eredu horren ezaugarria da enpresen erabakiak laguntzea eta erraztea, baina haiek baldintzatu gabe; hau da, norabide estrategikorako tresnei, baldintzapen sozialari eta baliabide publikoen erabileraren gaineko kontrol mekanismoei uko egitea.

Nafarroak hainbat Plan Teknologiko garatu zituen (1996-1999, 2000-2003 eta 2004-2007), baita Moderna Plana ere (2009-2012), automobilgintza, nekazaritza-elikadura eta energia berriztagarriak bezalako sektoreak sustatzeko helburuarekin. Etapa horretan sortu ziren, halaber, zentro teknologikoak (AIN, CNTA, CENER), eta, aldi berean, bi lurraldeetan kluster sektorialak sendotu ziren; bereziki EAEn, industria-ereduaren ezaugarri bereizgarrienetako bat bihurtu baitziren. Kluster horiek sektore arteko lankidetzaren egonkorreko egiturak sortzen lagundu bazuten ere, gobernantza itxiko dinamikak erreproduzitzeko joera izan zuten: enpresa handiek lehentasunen eta baliabide publikoen gaineko kontrol neurrigabea zuten, eta laguntzen banaketan bitartekari pribilegiatu gisa jarduten zuten, inolako baldintzapen sozial edo ingurumeneko menpe egon gabe. Etapa honetan ere ez zen genero ikuspegia txertatu, ezta industria-enpleguaren egiturazko segmentazioa jorratu ere.

2010eko hamarkadatik aurrera, eredu sofistikatuago bat sendotu zen, finantza-tresna ugarietan (Seed Capital, FCR-Pyme edo 2020tik aurrerako Finkatuz bezalako arrisku-kapitaleko funtsak), tresna fiskaletan (I+G+b-rako kenkariak, sektoreko hobariak) eta programa espezifikoeetan (Hazi-tek, Elkartek, Emaitek, BDHI, Industria Digitala) oinarritua. Euskadiko 2014-2016 Industrializazio Planaren ondoren etorri ziren 2017-2020 Garapen Industrialerako Plana eta egungo 2021-2024 plana. Nafarroak, bere aldetik, S3 Espezializazio Adimendunaren Estrategia (2016) eta 2020ko Industria Plana garatu zituen, eta ondoren S4 Estrategia (2021), balio-kateen ikuspegia txertatu zuena. Azken hamarkada honetan instituzionalizatu ziren, halaber, partzuergo teknologikoak, berrikuntza publikoko erosketak eta atzerriko inbertsioak erakartzeko programak (Invest in Navarra, Basque Trade & Investment).

Beraz, nahiz eta esku-hartze publikoa tresna aldetik nabarmen zabaldu den, haren orientazioa oraindik ere enpresa-kostuak murriztera, inbertsio pribatua mobilizatzera eta goi-teknologiako sektoreak sustatzera bideratuta dago nagusiki. Orientazio horrek ondorio praktikoak ditu, banaketa ikuspegitik eraginkorra ez izatetik harago doazenak. Ereduek mugak bereziki agerian geratzen dira enpresa-krisien testuinguruan: zailtasunak aurrez identifikatzeko protokolorik ezak, konkurtso-prozesuetan esku-hartzeko borondate eskasak eta sailen arteko koordinazio faltak jardun instituzionalaren hutsuneak eragiten dituzte, kostu sozial eta ekonomiko handiekin.

Fagor Electrodomésticos, Xey altzari-enpresa (Zumaia), CEL paper-fabrika (Enkarterri) edo La Naval ontziola (Sestao) bezalako azken kasuek joera hori erakusten dute: guztietan sektore publikoak akzio-partaidetza zuzena zuen edo mailegu handiak eman zituen, eta bakar batean ere ez ziren erabilgarri zeuden tresnak ekoizpenaren jarraipena eta enpleguaren mantentzea bermatzeko. Emaizta baliabide publikoen galera izan zen, itzulkinik gabe, eta enpleguaren suntsipena, kasu askotan esku-hartze aktibo eta goiztiar batekin saihestu ahal izango zena.

Lehentasunezko sektoreei dagokienez, EAEn industria-planek automobilgintza, industria aeronautikoa, energia, bioosasungarriak, fabrikazio aurreratua, eduki digitalak eta ingurumenaren arloa nabarmen dituzte espezializazio-ardatz estrategiko gisa. Gainera, sistema adimendunak, mugikortasun jasangarria, energia-biltegiak, hiri-irtenbide integratuak, material berriak eta ekoberrikuntza aukera estrategikoko eremu gisa identifikatzen dira. Nafarroan, nekazaritza-elikadura, automobilgintza, energia berriztagarriak, bioteknologia, osasuna, industria farmazeutikoa, mekatronika, turismo jasangarria, eraikuntza berdearen industria eta ekonomia zirkularra aipatzen dira sektore giltzarri gisa. Sektore horiek garapen lehiakor, berrikuntza eta enplegu-sorrerarako palanka gisa aurkezten dira, nahiz eta ez dauden beti justizia sozial edo ekologikoko irizpideekin lerrokatuta.

Azken tresna nabarmenen artean Finkatuz funtsa (2020) dago, EAEn enpresa estrategikoen erro-tzea bermatzera bideratua, haien kapitalean partaidetza minoritarioen bidez. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren PCTI 2030 Plana (EAE), 3E2030 Estrategia edo fabrikazio aurreratuaren eta digitalizazioaren zentroek ere goi-teknologiaren eta nazioarteko lidergoaren aldeko apustua ekarri dute. Nafarroan, Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Plana (2020) eta S4 Estrategiak Berreskurapen Planeko Europako funtsak gidatu dituzte (2021-2023), nahiz eta exekuzioa neurri handi batean korporazio handietan zentratu den. Bi kasuetan, trantsizio ekologikoa eta digitala aukera lehiakorraren logika batetik lantzen da, eraldaketa sozial eta ekonomiko sakon baten prozesu gisa baino.

Orain dela gutxi, 2024ko martxoan, Eusko Jaurlaritzak Euskal Finantza Aliantzaren sorrera iragarri zuen, bederatzi finantza-erakunderekin batera, legegintzaldian zehar 4.000 milioi euro mobilizatzeko helburuarekin, EAEn industria-erlaketarako. Ekimen hau industria-ahultasun gero eta handiagoaren eta gaitasun produktiboaren galeraren testuinguruan sortzen da, eta 2025eko ekainean aurkeztutako Industria Plana - Euskadi 2030era gehitzen da, hiru ardatzen inguruan egituratua (industria gehiago, industria hobea eta emisio gutxiago) eta administrazio-simplifikazio ardatz zeharkako batekin.

2028ra arte 3.900 milioi euro inguruko inbertsio publikoa aurreikusita, planak guztira 15.900 milioi mobilizatzeko du helburu, ekarpen pribatuak gehituta, neurri batean Euskal Finantza Aliantzaren bidez, Proiektu Eraldatzaile deiturikoetara 1.200 milioi euro bideratzeko. Hala ere, aliantza publiko-pribatu hau kritikak jaso ditu arrisku pribatuak arintzera soilik bideratuta egoteagatik, baldintzapen sozial, ekologiko edo laboralik gabe, eta industria armamentistikoa bezalako jarduera polemikoak baztertu gabe. Ikuspegi hau ez da berria: euskal industria-politikaren lehen hamarkadetatik errepikatzen den egiturazko erdua erreproduzitzen du, inbertsio-arriskuen sozializazioan eta ondorengo onuren pribatizazioan oinarritua. Gamesa, Euskaltel, ITP edo Cementos Lemona bezalako enpresak ekarpen publiko handiekin bultzatu ziren, eta ondoren kapital pribatura transferitu ziren, askotan atzerrikoa, itzulkin sozialerako mekanismorik eta errotze produktiboa bermatzeko baldintzarik gabe. Zentzu honetan, Euskal Finantza Aliantza ez du logika horrekin hausturarik adierazten, baizik eta dagoen arkitektura instituzional beraren eguneraketa bat da, haren oinarriak aldatu gabe..


Zentzu honetan, Planak IRABAZI, HAZI eta JAUZI bezalako figurak barneratzen baditu ere, eta errotzea, jasangarritasuna edo ekonomia zirkularra bezalako helburuak aitortzen baditu ere, orientazioa nazioarteko lehiakortasunean, lidergo enpresarial pribatuan eta goi-teknologiako sektore esportatzaileei emandako laguntzan zentratuta dago oraindik. Halaber, Proiektu Eraldatzaile izeneko figura berri bat sortzen du, enpresa-proiektuak direnak, baina ez direnak plangintza ekosozial koherente batean txertatzen, ezta baldintzapen edo kontrol publiko sendoetarako mekanismoak ere ez dituztenak. Maila orokorrean, jasangarritasuna abantaila lehiakor soil gisa aurkezten da, errotzeak ez du tresna eraginkorrik, eta ez da agertzen ere aginte-koadroaren adierazle nagusien artean; sindikatuen parte-hartzeak, aitortua izan arren, ez du benetako gaitasun deliberatiborik. Ez dira planteatzen dibertsifikazio-estrategia argiak ere, ezta metabolismo produktiboaren berrdefinizioerik ere, eta proposatutako administrazio-simplifikazioa Europako desregulazio-jarrai-bideekin lerrotatzen da, inbertsiorako ingurune arinagoak sustatuz baina kontrol demokratikoari dagokionez exijentzia txikiagoekin. Horrela, planak egungo ereduaren jarraipen teknokratikoa ordezkatzeko du, dentsitate instituzional handiagoarekin baina politika industrial aktibo baterantz, interes orokorrera, subiranotasun ekonomikora eta trantsizio ekosozialera bideratutako norabide-aldaketarik gabe.

Legeei dagokionez, arau-esparruen arteko konparazioa argigarria da. EAEn Industria Legeak (2004) ez ditu aurreikusten gobernantza publiko sendoaren egiturak, ezta esku-hartze estrategikorako mekanismoak ere. Nafarroako Industria eta Enpresa Sustapenari buruzko Foru Legearen aurreproiektuak (2023), ordea, esku-hartze elementu gehiago jasotzen ditu, hala nola sektore estrategikoen definizioa, deslokalizazioen aurrean laguntzak berreskuratzeko aukera, industria

-politika integratu baten artikulazioa eta sektore publikoaren inplikazio handiagoa garapenaren orientazioan. Hala ere, Estatu mailako Industria eta Autonomia Estrategikoaren Legea (2024) baino anbizio txikiagoa du; azken honek tresna hauek barneratzen ditu: Erreserba Estrategikoa (RECAPI), Industria Proiektu Estrategikoak, itzulkin publikoaren eskakizunak eta eskala anitzeko koordinazio-printzipioak. Beraz, Nafarroako legea tarteko posizio batean geratzen da, euskalaren baino anbizio handiagoarekin baina estatu mailako esparruaren potentzial eraldatzailea lortu gabe.

Ingurumenaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da industria-planekin batera garatu diren lege eta estrategia ingurumenekoak ere. EAEn, Klima 2050 Klima Aldaketaren Estrategiak (2015ean onartua) emisioen murrizketarako eta egokitzapenerako helburuak ezartzen ditu, baina ez ditu industria-sektorerako betebeharrak espezifikorik ezartzen, ezta laguntza publikoetarako baldintza-pen-mekanismoak ere. Energia Jasangarritasunaren Legeak (2019) eta Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzko Legeak (2024) eraginkortasunaren eta berriztagarrien helburuak indartu dituzte, baina eredu energetiko nagusia zalantzan jarri gabe eta industria-funtsak ingurumen-justiziako irizpideekin zuzenean lotu gabe. Nafarroan, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko Foru Legeak (2022) neutraltasun klimatikoaren helburuak eta sektore-planak edo karbono-aurrekontuak bezalako tresnak sartzen ditu, baina oraindik ez da guztiz integratu industria-politikan. Bi kasuetan, ingurumen-legediak esparru normatibo garrantzitsua eskaintzen du, baina orientazio produktiboaren gaineko lotura-ahalmen txikiarekin eta oraindik borondatezkoak diren edo deialdi sakabanatuen menpe dauden tresnekin

Generoari dagokionez, Nafarroan zein EAEn azken industria-plan eta legeetan berdintasunari buruzko erreferentzia esplizitu gehiago agertzen dira, emakumeen lidergoa sustatzeko neurrien eta STEAM talentua erakartzeko programen bidez. Hala ere, neurri horiek partzialak eta sinbolikoak dira, soldata-arrakala "goitik" murriztera bideratuak, sektore feminizatuen egiturazko prekariotasuna edo erabaki estrategikoen esparruan emakumeen presentzia eskasa kontuan hartu gabe. Euskal eta nafar industria-politikek garapenaren logika maskulinizatu batetik jarduten jarraitzen dute, sektore tradizionalen eta enpresa handietan zentratuta, zaintza-ekonomiak edo lan erreproduktibo intentsiboko sektoreak balioetsi eta integratu gabe.



4.4. Egungo erreferentzia-esparrua

Europar Batasuneko, Espainiako Estatuko eta Hego Euskal Herriko industria-politiken azterketak joera komun bat erakusten du: tresna, plan eta arau-esparruen ugaritzeak ez du benetako eraldaketarik ekarri ekoizpen-ereduan. Maila guztietan ageri da tentsio estruktural bera: alde batetik, trantsizio ekologikoaren, autonomia estrategikoaren eta justizia sozialaren aldeko diskurtsoa; bestetik, lehiakortasunaren, finantzarizazioaren eta korporazio handien interesen logikari men egiten dion esku-hartze publikoa. Gobernantzak izaera teknokratikoa izaten jarraitzen du, sindikatuen parte-hartze eraginkorra mugatua da, baldintzapen sozial eta ingurumeneko sendoak falta dira, eta arriskuak sozializatzeko eta etekinak pribatizatzeko logika nagusitzen da. Genero-ikuspegiari dagokionez, berandu eta modu periferikoan txertatu da maila guztietan, eta oraindik ez dago nahikoa tresnarik enpleguaren egiturazko segmentazioari aurre egiteko edo emakumeen presentzia handia duten sektoreak balioesteko.

Ondorengo taulan gaur egun indarrean dauden industria-, teknologia- eta klima-aldaketari lotutako arau- eta programa-tresna nagusiak laburbiltzen dira, hiru maila instituzionaletan.

2. taula. Industria- eta klima-politikaren arloko egungo antolamendu-esparruaren laburpena

Eremua	Izena	Urtea	Deskribapena
Europar Batasuna	Europako Industria Estrategia	2021	Estrategia eguneratzea erresilientzia, autonomia estrategikoa eta trantsizio ekologikoa eta digitala indartzeko.
Europar Batasuna	Clean Industrial Deal	2025	Industria garbia Green Dealearen barruan sustatzeko plana, arreta jarrita deskarbonizazioan, zirkulartasunean eta teknologia-subiranotasunean.
Europar Batasuna	Defentsaren Industria Estrategia (EID)	2024	Industria militarra sustatzea finantza-tresna berriekin, baterako erosketekin eta BEZik gabe
Espainiar estatua	Industriako eta Autonomia Estrategikoko Legea (proiektua)	2024	Estatuko lege berria, tresna hauekin: RECAPI, proiektu estrategikoak eta dirulaguntzen itzulera publikoa.
Espainiar estatua	Espainia Industrial 2030 Esparru Estrategikoa	2018	Epe luzeko esparru estrategikoa; lehiakortasunean, jasangarritasunean eta digitalizazioan ardaztua.
Espainiar estatua	Aldaketa Klimatikoari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea	2021	Helburu hauek ezartzen ditu: deskarbonizazioa, sektoreko klima-integrazioa eta karbonoaren aurrekontuak.
Espainiar estatua	Mugikortasun Jasangarriaren legea	2024	Isurpen baxuko mugikortasuna sustatzeko neurriak ezartzen dituen Lege berria

Eremua	Izena	Urtea	Deskribapena
Nafarroa	Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko Foru Legea	2022	Arau-esparru horrek klima-neutraltasuneko helburuak ditu, baita zenbait tresna ere (esaterako, sektoreko planak eta karbono-aurrekontuak)
Nafarroa	Nafarroako Industriari eta Enpresa Sustapenari buruzko Foru Legea		Hauetan jartzen du arreta: balio-kateak, kalitatezko enplegua, lurralde-kohesioa eta jasangarritasuna, zenbait tresnaren bitartez, hala nola proiektu estrategikoak, hainbat eragileren arteko gobernantza eta industrializazioko funts propioa. Halere, guztien onerako eta balio sozialetara bideratutako erretorika izanagatik, testuak ez ditu ekimen pribatuaren aurrean helburu publikoak beteko direla bermatzen duten baldintzatze-, jarraipen- edo zehapen-mekanismo argiak.
Nafarroa	Nafarroako Industria Plana 2021-2025	2021	Indarreko industria politika gidatzen duen plan estrategikoa, jasangarritasunean, digitalizazioan eta erresilientzian arduatua.
Nafarroa	S4 estrategia (Especializazio Adimenduna)	2021	Estrategia berri honek arreta jartzen du balio-kateetan, ekoizpen-autonomian eta egiturazko eraldaketan.
Nafarroa	Nafarroako Energia Plana, 2030 Horizontea	2018	Indarrean dagoen plan estrategikoak Nafarroako energia-trantsizioa eredu berriztagarri, eraginkor eta autonomo baterantz bideratzen du.
EAE	Euskadiko Industria Legea	2004	Oraindik indarrean dagoen legea da; plangintza estrategikorako eta baldintzapen publikorako tresnarik gabeko esparru liberala ezartzen du.
EAE	Industria Plana - Euskadi 2030	2025	Eusko Jaurlaritzako oraingo plana, sektoreko kategoria berriak gehitzen ditu eta zenbait helburu aitortzen ditu (esaterako, jasangarritasuna edo errotzea); ez du plangintza ekosozialik, baldintzapen sendorik eta kontrol publikoko mekanismo eraginkorrik.
EAE	ZTBP 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana	2020	Euskadiko I+G+b esparruko estrategia, ekosistema zientifiko-teknologikoa eta industrialia indartzera bideratua.
EAE	3E2030 Estrategia Energetikoa	2021	Euskadiko trantsizio energetikoa eredu eraginkor, berriztagarri eta seguru baterantz bideratzen du.
EAE	2050erako klima-aldaketaren estrategia	2015	Euskadin epe luzera klima-aldaketara egokitze eta hura arintzeko plan estrategikoa.

Eremua	Izena	Urtea	Deskribapena
EAE	Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea	2019	Eraikin publikoetan energia-eraginkortasuna arautzen du eta energia berriztagarriak sustatzen ditu.
EAE	Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (PTS) (zirriborroa)	2023	Euskadin energia berriztagarriak ezartzeko lurralde-antolamenduko tresna.

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa

5. PROPOSAMENAK

Hego Euskal Herria ez da kapitalismo globalaren salbuespena; haren kontraesanen adierazpen konkretua baizik. Dokumentu honetan garatutako diagnostikoak erakusten duenez, sendotasun industrialaren eta esportatzeko gaitasunaren itxuraren azpian, egiturazko ahultasun sakonak piltzen ari dira. Kapitalaren errentagarritasuna ez da ekoizpenaren hedapenaren bidez mantendu, balio erantsiaren birbanaketa erregresiboaren bidez baizik: produktu unitate bakoitzeko soldata errealak jaitsi egin dira, inbertsioak ez ditu 2008 aurreko mailak berreskuratu, eta manufaktura enpresa handien zorpetzea handitu egin da, horrek produkzio aparatuaren benetako eraldaketarik ekarri gabe. Errentagarritasun parasitarioa da, soldatak mugatetik elikatzen dena eta ez dinamismo ekonomikoaren gainean eraikia.

Aldi berean, Hego Euskal Herriaren ekonomiaren egitura eta kokapenak egiturazko mendekotasuna agerian uzten du. Euskal ekonomia gero eta gehiago integratu da balio kate globaletan eta Espainiako lanaren lurralde banaketaren barruan, baina erabaki ahalmen txikiena duten katebegietatik egin du integrazio hori: zerbitzu inputen hornitzaile gisa, kanpotik ekarritako osagaien muntatzaile industrial gisa, eta baliabide estrategikoen (hala nola energia, zerbitzu aurreratuak edo finantza kapitala) kontrola metatzen duten guneen menpe. Mendekotasun hori ez da kointurazkoa, ezta politika okerren baten ondorio ere; metaketa logika baten lurralde adierazpena da, balioa erdiguneetan kontzentratzeko eta periferietatik, industrialki garatuak direnetatik ere, transferitzeko joera duena.

Diagnostiko horren aurrean, hamarkadetan zehar garatutako politika industrialek modu erreaktiboan jardun dute, benetako baldintzarik ezarri gabe, arriskuak sozializatuz eta etekinak pribatizatuz. Planak bata bestearen atzetik etorri dira, tresnak ugaritu egin dira, baina eredia ez da aldatu: esportazio lehiakortasunean, enpresa pribatuen lidergoan eta goi teknologiako sektoreen sustapenean oinarritzen jarraitzen du, irabazien banaketa, balio kateetan duen kokapena eta planetaren muga materialak auzitan jarri gabe.

Egungo testuingurutik abiatuta, ondoren aurkezten diren proposamenek sistema ekonomiko eta industrialaren eraldaketa sakona dute helburu, ikuspegi ekosozial batetik, ekoizpena eta kontsumoa langileen beharren zerbitzura jartzeko. Eraldaketa hori burujabetza mota desberdinak bermatzera bideratu behar da (produktiboa, laborala, elikadura burujabetza, energetikoa, finantzarioa eta politikoa), Hego Euskal Herrian trantsizio bidezko eta demokratiko baterako oinarri izan daitezen.

Proposamenak elkarren osagarri diren bi neurri multzoren inguruan egituratzen dira. Alde batetik, neurri erreformistak daude, lan baldintzak hobetzera, sindikatuen esku hartze gaitasuna handitzera eta egungo erakunde egituraren enpresa boterea mugatzera bideratuak. Bestetik, neurri eraldatzaileak daude, egungo ereduaren oinarrian dauden botere harremanak aldatzea helburu dutenak: jabetza publiko, sozial eta kolektiboko formak indartzea; erabaki ekonomikoen demokratizazioan sakontzea; eta ekoizpenaren ziklo osoa muga ekologikoen barruan berrantolatzea. Bi neurri mota horiek ez dira elkarren baztertzaile; aitzitik, lehenengoen bigarrenak garatzeko baldintza material eta politikoak sortzen dituzte.

Eraginkorrak izan daitezen, proposamen horiek aldi berean jardun behar dute ekoizpen egitura baldintzatzen duten esparru guztietan: inbertsioa eta berrikuntza, trebakuntza, baliabideetarako sarbidea, azpiegiturak, barne eta kanpo eskaria, finantzaketa, araudia eta gobernantza. Esparru bakar batean, gainerakoekin koherentziarik gabe, esku hartzeak desorekak birsortu edo eragin mugatuak sortzen ditu. Gainera, esku hartzea ez da sektore bakoitza modu isolatuan aztertuz pentsatu behar, lurraldeko interdependentzia produktibo guztiak kontuan hartuta baizik: balio kateak, materialen eta ezagutzaren fluxuak, eta tokiko sare ekonomikoari kohesioa ematen dioten sektoreen arteko osagarritasunak. Industria politika eraldatzaileak, beraz, ikuspegi integral bat eskatzen du, esparru horiek guztiak lurraldean errotutako norabide politiko argi baten inguruan artikulatzeko gai izango dena.

Norabide hori proposamen guztiak zeharkatzen dituzten hiru printzipiotan oinarritzen da. Lehenik, sektore estrategikoetako ekoizpen bitartekoaren jabetza soziala, kontzentrazio korporatiboa mugatzeko eta ekoizpena interes orokorraren zerbitzura jartzeko baldintza gisa. Bigarrenik, lanaren eta inbertsio erabakien antolaketa demokratikoa, langileak eta haien erakundeak gobernantza ekonomikoaren erdigunean kokatuz. Hirugarrenik, behar sozial eta ekologikoak asetzeari helburu duen ekoizpena, eta ez etekin pribatuaren maximazioa. Hiru printzipio horiek ez dira urruneko horizonte abstraktu bat; aitzitik, neurri zehatz bakoitza ebaluatzeko irizpidea dira, baita proposatutako eraldaketa guztiek, modu metagarrian, hartu behar duten norabidea ere.

5.1. Gobernantza eta jabetza

Enpresen, Estatuaren eta ustezko gizarte zibil neutral baten arteko interakzioan oinarritzen den koordinazio ekonomikoaren eredu nagusia baztertzeko dugun premisa batetik abiatzen da: Estatuaren eta interes korporatiboaren artean benetako independentzia dagoela, eta gizarte zibilak klase-harremanetatik kanpo jarduten duela. Ekonomia kapitalista batean, klase egiturak baliabideak eskuratzeko eta erabakiak hartzeko desoreka egituratzen du, eta Estatuak ez da arbitro neutral bat, baizik eta gatazka eta lehia gune bat, non kapitalaren interesek egiturazko posizio pribilegiatua duten. Horren aurrean, gehiengo langilea subjektu izango duen politika industrial baten alde egiten dugu, Estatuaren, langileen eta komunitate mailako ekoizpen unitateen arteko koordinazio eraginkorrerako mekanismoen bidez agituratua.

Koordinazio horrek egitura bat eskatzen du, langileei, gizarte ekonomia eraldatzaileko kideei eta lurralde mailan, kontsumitzaileei eta komunitateei erabaki estrategikoetan parte hartzea bermatuko diena. Epe luzera, erabakien demokratizazio horrek produkzioaren helburu sozialen erdigunetik baztertu behar ditu merkatua eta errentagarritasun pribatua, irizpide ekosozialetan oinarritutako plangintza demokratiko baterantz aurrera eginez. Plangintza horrek, ordea, ez ditu eremu guztiak hartu behar; aitzitik, oreka bilatu behar du ekoizpen zentralizatuaren -bertikalki integratutako enpresa publikoen bidez garatua- eta ekoizpen deszentralizatuaren artean, azken hori gizarte ekonomia eraldatzaileko enpresek garatutako kate edo zirkuitu laburretan oinarritua.

Jabetzari dagokionez, baztertu egiten ditugu langileek akzioak eskuratzeko proposamenak, demokratizazio ekonomikorako tresna gisa. Bide horrek langileen eta enpresaren arteko harremana individualizatzen du, indar kolektiboa ahultzen du, eta ez die aurre egiten kontrol kapitalistari eusten dioten egiturazko botere harremanei: finantza kapitalari, sare transnationalei eta politika publikoetan duten eragin sistemikoari. Horren ordez, jabetza mistoko egitura baten alde egiten dugu, bitarteko sektoreetan edo kapital intentsiboko sektoreetan nagusitasun publikoa izango duena, tokiko sindikatuarekin eta kontseilu ekonomikoekin elkarlanean fiskalizatua, eta jabetza kooperatiboa edo komunitarioa azken ondasunen sektoreetan. Lurraren auzian, helburua da zuzeneko eskubidea eta erabilera uztartuko dituen politika dual bat ezartzea, udal jabetza kolektiboa eta kooperatiben edo familia unitateen erabilera eskubidea bateratuz, eskala ekonomiak sustatzeko, betiere kontzentrazioa eta espekulazioa saihestuta.

Proposatzen diren neurriak:

5.1.1. Arkitektura instituzionala

- Etengabeko eta berariazko trebakuntza eskaintzea industria politikaren zuzendaritza eta garapen maila guztietan parte hartzen duten funtzionario guztiei, eta bereziki enpresa krisien, hartzekodunen konkurtsoen edo krisian dauden enpresak lan sozietate, kooperatiba edo gizarte ekonomiako egitura bihurtzeko prozesuetan aholkularitza, laguntza edo bitartekaritza lanak egiten dituztenei. Trebakuntza horrek, besteak beste, honako eduki hauek jasotzeko behar izan litezkeen informazio eta kontsulta eskubide sindikalak; sindikatuen eta langileen parte hartzea

enpresen kudeaketan eta jabetzan; merkataritza eta konkurtso zuzenbidea; enpresen diagnostiko ekonomiko finantzarioa eta hortik eratorritako industria eta enplegu bideragarritasun planak gainbegiratzeko metodologia; finantzaketa publiko eta pribaturako formulak; eta krisian dauden enpresak lan sozietate, kooperatiba edo gizarte ekonomiako egitura bihurtzeko elementu juridiko, ekonomiko eta prozedurazkoak.

- Enplegu publiko espezializatua handitzea industria politika eraldatzaileko prozesuei laguntzeko beharrezkoak diren arloetan, bereziki honako hauetan: Lan, Gizarte Segurantzaren eta Lan Ikuskaritzako zuzendaritzetan, erregulazio kolektiboko prozesuetan eta hartzekodunen konkurtsoetan esku hartzeko; Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzan, krisian dauden enpresak gizarte ekonomiako proiektu bihurtzeko prozesuetan jarduteko; Industria Garapenerako Zuzendaritzan eta garapen agentzietan, produkzio kateen birlokalizazioa eta kapital publikoa duten enpresetako esku hartzea sustatzeko; eta Finantza Politikako Zuzendaritzan, abal, berme, mailegu eta kapital partaidetza publikoen ebaluazioa eta jarraipena egiteko.
- Tokiko gobernuen autonomia erlatiboa indartzea, garapen ekonomikoko plan propioak diseinatzeko aukera emango dieten arau erreformen bidez, baliabideak kudeatzeko eta lehenetasun sektorialak ezartzeko gaitasuna bermatuz.
- Enpresa txiki eta ertainei zuzendutako harreman eta laguntza publiko guztiak estrategia nazional bakar batean integratzea, haien egiturazko garrantzia eta tresnen nahiz baldintzen lerrotzeak lurraldean izan dezakeen eragina aitortuz.
- Ikerketa zentro publiko bat sortzea unibertsitate publikoekin lankidetzan, joera globalak eta horien tokiko eragina aztertzeko, industria sarea aldi aldi ebaluatzeko eta politika publikoak diseinatu zein egokitzeko.
- Industria Partaidetzarako Euskal Erakunde bat sortzea, ekimen publikoak, pribatuak eta kooperatiboak koordinatzeko ardura izango duena, horiek helburu estrategikoekin eta lurralde errotzearekin bat datozela bermatuz.
- Lurralde mailako lan mahaiak abiaraztea Garapenerako Lurralde Agentzien esparruan, sindikatuen eta komunitateen parte hartze loteslearekin. Lan mahai horiek oinarri instituzional gisa baliatu behar dira Tokiko Kontseilu Ekonomikoak garatzeko. Kontseilu horiek kontsumo, enplegu eta plangintza produktiboaren beharrak uztartuko dituzte, hainbat tresnaren bidez, hala nola produkzio kateen mapak, sektore arteko fluxuen analisisa eta plataforma parte hartzaileak.
- Industria politika gidatzeko erakunde agentzia bakar bat garatzea, egitura deszentralizatua izango duena, tokiko kontseilu ekonomikoen eta lurralde eskalen arteko koordinazio organoen bidez antolatua.

5.1.2. Enpresetan eta jabetzan esku hartzea

- Industria sarearen jarraipen eta alerta goiztiarreko sistema publiko bat garatzea, zailtasunak dituzten enpresak, egiturazko gainbeheran dauden sektoreak edo deslokalizazio arriskuak aurrez identifikatzeko aukera emango duena. Sistema hori ikerketa zentroyen eta agentzia instituzional bakarraren bidez egituratuko litzateke, eta sindikatuek informazioa biltzen eta aztertzen parte hartze aktiboa izango lukete. Sistema horrek krisian dauden enpresentzat aurreikusitako esku hartze publikoko protokoloak elikatu beharko litzuzke, egoera konponezina bihurtu aurretik prebentziozko erantzuna bermatzeko.
- Krisian dauden enpresen aurrean jarduteko protokolo publikoak garatzea, auditoria soziala eta kontrol demokratikoa izango dituztenak, eta honako neurri hauek jasoko dituztenak:

- Lehen mailako hipoteka bermeak dituzten abal, mailegu edo dirulaguntzak ematea krisian dauden enpresei.
- Laguntza horien jarraipena egiteko beharrezko baliabideak eskaintzea, inbertsioen jarraipenaz arduratuko diren analistak izendatuz. Analista horiek Administrazio Kontseiluetan eta Zuzendaritza Batzordeetan hitza eta botoa izango lituzkete.
- Langileek jarduera ekonomikoaren eta enpresa jardueraren jarraipenean modu aktiboan parte hartzea sustatzea, haien ordezkariak sindikalaren bidez, kapital edo partaidetza mailegu publikoak dituzten enpresa guztietan.
- Estatuak konkurtso faseetan parte hartzea, kreditu publikoa eta jarduera produktiboa defendatzeko, kargarik gabeko ekoizpen unitateak eskuratzeko eta ondoren horiek enpresa publiko edo kooperatiba bihurtzea bermatzeko. Horrez gain, jardueraren jarraitutasuna sustatuko litzateke finantza birkapitalizazioaren, zor kitapenaren edo zorra kapital bihurtzearen bidez.
- Merkataritza likidazioan edo konkurtso egoeran dauden ekoizpen unitateak publikoki erostea, jarduera berrabiarazi, mantendu eta jabetza pixkanaka publiko edo kooperatibo bihurtzeko, enpresaren eta sektorearen ezaugarrien eta beharren arabera. Bideragarritasuna ebaluatzeko, finantza irizpidez gain, kate laburretan txertatzeko gaitasuna eta lurraldearen beharrei emandako erantzuna ere kontuan hartu beharko lirateke.
- Sektore estrategikoetan enpresa txiki eta ertainen arteko bat egite prozesuak sustatzea, ekoizpen efizientzia handitzeko, I+Gn inbertitzeko gaitasuna indartzeko eta korporazio handien zein balio kate globalen aurrean negoziazio posizioa hobetzeko beharrezko masa kritikoa lortzeko. Prozesu horiek jabetza kooperatibo edo sozialeko formuletara bideratu beharko lirateke, lurralde errotzea eta langileen kudeaketako parte hartzea bermatuz.
- Sektore estrategikoetan kokatutako enpresen eskuratzeko publikoak sustatzea, bereziki lurraldearen oinarri industrialak osatzen dutenen kasuan.
- Soldatapekoentzako inbertsio funtsak sortzea, jabetza sozialeko enpresa sare bateranzko trantsiziorako tresna gisa.

5.2. Finantzaketa eta inbertsioa

Finantzaketa eta inbertsioaren auzia ez da soilik tekniko; batez ere, auzi politikoa da: zer ekoizten den, norentzat eta zer helbururekin. Egungo sistema finantza kapitalaren logika espekulatiboak baldintzatzen du sakonki; izan ere, logika horrek epe laburreko etekina, opakutasuna eta botere kontzentrazioa lehenesten ditu. Ekonomia produktiboaren eta interes kolektiboaren zerbitzura egon beharrean, finantza bitartekaritza pribatuak eta zorpetze mekanismoek sistema ekonomikoaren hauskortasuna areagotu dute, eta baliabideen orientazio estrategikoa zaildu. Inbertsio produktiboa, bestalde, errentagarritasun finantzarioaren mende geratu da: zer inbertitzen den, non eta zein helbururekin erabakitzea sistematikoki kontrol demokratikotik kanpo egon da, eta horrek Hego Euskal Herriko industria politikaren hamarkadetako egiturazko joera berriztu du, hau da, arriskuak sozializatzea eta etekinak pribatizatzea.

Egoera hori eraldatzeko, beharrezkoa da finantza eta inbertsio arkitektura publiko bat eraikitzea, deszentralizatua eta demokratikoki kontrolatua, aurrezkoa mobilizatzeko eta inbertsioa bidezko trantsizio ekosozial baterantz bideratzeko gai izango dena. Horrek esan nahi du finantza bitartekari pribatuen rola mugatu behar dela, errentetatik bizitzeko logikari amaiera eman behar zaiola, baldintzak eta gardentasun mekanismo eraginkorrak bermatu behar direla, eta

interes komunaren ikuspegitik estrategikoak diren sektoreak berreskuratu behar direla, hala nola aseguruak edo epe luzerako finantzaketa. Era berean, inbertsio publikoa egiturazko eraldaketaren motor gisa kokatu behar da, kontrol demokratikoaren pean, eta ez ekimen pribatuaren osagarri huts gisa.

Proposatzen diren neurriak:

5.2.1. Baldintzak eta kontrol demokratikoa

- Baldintza irizpide argiak ezartzea finantzaketa eta inbertsio publiko guztietan (lurralde irizpideak, tokiko hornitzaile eta bezeroekiko harremanak, eta irabaziak gizarte erabilerara bideratzeko berrinbertitzeko konpromisoak barne), zehatzeko gaitasun errealarekin, baliabide publikoak galerak sozializatzeko mekanismo bihur ez daitezzen edo praktika espekulatiboak indartu ez ditzaten.
- Lantokietan inbertsio erabakiei buruzko informazio eta kontsulta eskubide sindikalak indartzea, hitzarmen kolektiboetan klausula espezifikoak txertatuz eta enpresa batzordeei beto eskubidea aitortuz.
- Tokiko inbertsioa sustatzea atzerriko zuzeneko inbertsioaren aurrean, egungo Europako araudiak eskaintzen dituen aukerak baliatuz (2019/452 Erregelamendua), lurralde garapena indartzeko eta kanpoko finantza mendekotasuna murrizteko.
- Inbertsioa behar duten sektoreak eta mugatu beharrekoak definituko dituzten sektore katalogoak egitea, jasangarritasun, lurralde integrazio eta bideragarritasun estrategikoko irizpideetan oinarrituta. Katalogo horiek aldizka eguneratuko dituzten inbertsio agentzia publikoak sortzea.
- Inbertsio publikoetan gardentasuna, inpaktua eta irizpide estrategikoen betetzea aldi aldi ebaluatuko dituzten auditoria publiko eta komunitarioko mekanismoak martxan jartzea.
- Finantza bitartekaritza pribatua eta zor bidezko finantzaketa modu aktiboan gainbegiratzea eta pixkanaka mugatzea, produktoria bideratzen ez den errentismoa eta kreditua interes kolektiboaren zerbitzura dagoela bermatzeko.
- BGAeetan metatutako kapitala mobilizatzea (euskal langile-klasearen aurrekia) Hego Euskal Herriko industrian eta etxebizitza publikoan inbertitzeko, administrazio publikoek etorkizuneko pentsioen babesa eta galeren kasuan inbertsioen errentagarritasuna bermatuz. Diru horrek Euskal Herrian errotuta dauden enpresak bultzatzeko, enplegua hobetzeko eta trantsizio ekosoziala bultzatzeko balio behar du. Gainera, beharrezkoa da inbertsioen gaineko kontrol publikoa handitzea, eta baztertu egin behar dira armamentu-industrietara edo lan-baldintzak okertzen dituzten enpresetara bideratutako funtsak.
- Lurraldean eragin esanguratsua izan dezakeen edozein inbertsio kontsulta publikoaren mende jartzea, hura onartu aurretik ingurumenaren eta enpleguaren gaineko ondorioak ebaluatuz.

5.2.2. Finantza arkitektura eraldatzailea

- Bidezko trantsizio energetikorako euskal funts bat sortzea, tokiko ekoizpen sistemetan edo balio kate laburretan integratutako enpresentzako lehentasunezko tasak eskainiko dituen, eta ixte edo birmoldaketa prozesuan dauden sektoreetan lan baldintza duinak, trebakuntza planak eta birkokatze neurriak bermatuko dituen.

- Aseguru etxe publiko bat sortzeko bidea abiatzea, aseguru sektorea publikatzeko lehen urrats gisa; izan ere, gaur egun sektore horrek finantza fluxu handiak bideratzen ditu kontrol erregulatzailetik kanpo.
- Garapenerako banku publiko bat sortzea, epe luzerako eta izaera antiziklikoko finantzaketa eskaintzeko gaitasuna izango duena, egitura dual baten bidez antolatuta: maila nazionalean, plangintza estrategikoa eta eskala handiko inbertsioak gidatzeko; eta lurralde mailan, tokiko, kooperatiba eta komunitate proiektuak sostengatzeko.
- Kapital publikoak enpresa estrategikoetan duen partaidetza pixkanaka handitzea, ekoizpena helburu estrategikoen arabera orientatzeko, zonbi enpresen ugalketa saihesteko eta finantzaketa publikoari lotutako baldintzak betetzen direla bermatzeko tresna gisa.

5.2.3. Inbertsioa eta berrikuntza

- Errentaren gaineko zergaren tasa marjinala progresiboki handitzea, gutxieneko soldataren bost halakotik gora, epe ertainera %100era iritsi arte. Enpresetan metatutako soberakinak zirkulazio kapitala askatuko luke, eta hori inbertsio produktibora bideratu ahal izango litzateke; gaur egun, ordea, dibidenduen banaketaren nagusitasunak inbertsio mota hori desinzentibatzen du.
- Enpleguari, lan baldintzei eta lurraldearekiko loturari buruzko betebeharrak txertatzea erakundeek sustatutako programa eta jarduera guztietan, inbertsioak bultzatzeko orduan.
- Laguntza publikoak baldintzatzea soberakina tokiko ekoizpen dibertsifikazioan berrinbertitzera, eta berrinbertsio horrek gizartean eta ingurumenean duen eragina ere ebaluatzea.
- Gutxiegi erabiltzen diren gaitasun teknologiko eta produktiboen inbentario publiko bat sortzea.
- Misio teknologikoen ikerketa eta garapenerako sistema publiko bat sustatzea, trantsizio ekoszialera orientatua eta produkzio sarean aplikatzeko helburua izango duena.
- Lurralde jakin batean inbertsio bat garatzeko, Tokiko Kontseilu Ekonomikoaren baimena nahitaezkoa izatea, aurretik inbertsio horrek ingurumenean eta enpleguan izan ditzakeen ondorioei buruzko informazio eta kontsulta prozesua egin ondoren.
- Berrikuntza eta transferentzia teknologikorako zentro publiko komunitarioak sortzea, ekoizpen kate laburrei edo tokiko ekoizpen sistemei lotuta, tokiko produkzio testuingurura egokitutako teknologien erabilera sustatzeko eta lurraldean dagoen ezagutza inplizitua sistematizatzeko.
- Pixkanaka autonomia teknologiko handiagoa lortzea, AIE edo joint venture moduko enpresa formulen alde eginez, Txina bezalako herrialdeetako esperientzia arrakastatsuak erreferentzia gisa hartuta.
- Tokiko moneta bat sortzea, birlokalizazio-irizpideak, ekonomia zirkularra edo euskararen sustapena sustatzeko, kooperatiben eta ekoizle eta kontsumitzaile txikien arteko harremanen alternatiba sozial eta lokala formalizatuz.

5.3. Araudia eta eskubide sindikalak

Hego Euskal Herrian indarrean dagoen araudi egiturak (2004ko EAeko Industria Legeak, 2023ko Nafarroako foru aurreproiektuak eta 2024ko Industriari eta Autonomia Estrategikoari buruzko espainiar estatuko legeak) erakusten du esku hartze publikoa hamarkadetan zehar lehiakortasunaren eta enpresa erabakietan esku ez hartzearen logikaren menpe egon dela. Esparru horietako batek ere ez du modu loteslean bermatzen produkzio sarearen errotzea lurraldean, laguntza publikoen baldintzazkotasun sozial eta ekologikoa, ezta langileen eta haien erakundeen benetako parte hartzea ere erabaki estrategikoetan. Muga horiek gainditzeko, ez da nahikoa lehendik dauden tresnak hobetzea; beharrezkoa da euskal oinarria izango duen esparru juridiko propio bat eraikitzea, ekoizpenaren burujabetza, eskubide sindikalak eta plangintza demokratikoa juridikoki lotesleak diren printzipio bihurtuko dituena.

Aldi berean, 2010eko eta 2012ko lan erreformen ondorioz ezarritako eta 2022an sendotutako lan harremanen esparruak sindikatuen esku hartzeko gaitasuna errotik ahuldu du, kaleratzeak eta enpresen itxierak erraztu ditu, eta negoziazio kolektiboaren indarra higatu du. Erreforma horiek indargabetzea ezinbesteko baldintza da industria politika eraldatzaile orok lantokietan benetako errotzea izan dezan.

Proposatzen diren neurriak:

5.3.1. Egungo araudia gainditzea

- 2010eko eta 2012ko lan erreformak, eta horien 2022ko sendotzea, indargabetzea, kaleratzeak erraztera bideratutako neurriak ezabatuz. Zehazki:
 - Irabaziak izanda ere kaleratzeko aukera kentzea.
 - Kaleratze kolektiboetan administrazio kontrola berrezartzea.
 - Kaleratzea merkatzea ahalbidetu duten neurriak indargabetzea.
 - Izapidetze edo auzia ebazten den arteko soldatak berrezartzea.
 - Enpresek hitzartutako lan hitzarmenak ez aplikatzeko aukera ezabatzea.
 - FOGASAREN estaldurak lehengoratztea eta indartzea.
- Estatuko Industriari eta Autonomia Estrategikoari buruzko proiektuan aurreikusitako Berrindustrializazio Mahaia osatzeko betebeharra ezartzea, funtzio lotesleekin. Hala, itxiera eragoztziko da legalki.
- Errotzea garapen ekonomikorako politika publiko guztien printzipio gidari gisa finkatzea, borondatezko irizpide huts gisa ulertzetik harago.
- Enpresen deslokalizazio kasuetan laguntza edo dirulaguntza publikoak itzultzeko betebeharra ezartzea.
- Egiturazko arrazoirik gabe ekoizpen zentro errentagarriak ixtea erabakitzen duten enpresei lurzoru urbanizaezinaren balioari dagokion inmobilizatuaren desjabetzea aplikatzea.
- Ekonomikoki bideragarriak diren lantokien itxiera edo deslokalizazioa legez eragozte, eta Lan Agintaritzari iruzur zantzen aurrean salaketak aurkezteko eta zigorrak proposatzeko eskumena ematea.
- Energia berriztagarrien instalazioen bizi ziklo osoa ebaluatzea behartuko duen araudia ezartzea, ingurumen inpaktu txikiagoko proiektuak lehenetsiz eta makroinstalazioak murgatuz.

- Erregai fosiletan egiturazko desinbertsio progresiboa ezartzea arau bidez, eta azpiegitura berrien garapena blokeatzea.
- Arau bidez ezartzea erregai fosilen egiturazko desinbertsio progresiboa, azpiegitura berrien blokeoa, eta egungo industriaren birmoldaketa, enpleguari eutsiz.
- Interes orokorrak hala eskatzen duenean, desjabetzea, enpresetan esku hartzea edo inbertsioak mugatzea ahalbidetuko duten eskumenak Hego Euskal Herriaren esku uzteko beharrezko lege aldaketak sustatzea.
- Tokiko gobernuen eskumen ekonomikoak zabaltzeko araudia erreformatzea, garapen ekonomiko eta zirkulartasun planak definitu ahal izan ditzaten, ekoizpen unitateak sortzeko baliabideak kudeatu ahal izan ditzaten eta lehentasun sektorialak ezarri ahal izan ditzaten.
- Langileen Estatutuan egin beharreko lege-aldaketak bultzatzea, LGS autonomiko bat ezarri ahal izateko, bai eta beste lan-eskumen batzuk ere, Hego Euskal Herriko lanaldiarekin, banakako kaleratzearekin, kaleratze kolektiboarekin edo kontratuak etetearekin zerikusia dutenak.
- Lurraldean errotutako zerga erregimen progresibo bat ezartzea, tokian berrinbertitzen ez diren irabaziei eta lurraldean integrazio txikia duten jardueri gainkarguak aplikatuz, ekoizpen lokalizatua, kooperatiboa eta enplegu egonkorra sustatzeko.

5.3.2. Informazio, kontsulta eta kontrolerako eskubide sindikalak

Enpresen itxiera edo berregituratzei buruzko erabakiak tokiko esparruetan hartzea ahalbidetzea, estatuko sindikatuen inposizioak saihestuz eta lurraldearen beharrei erantzun egokia ematea bermatuz.

Enpresetan informazio eta kontsulta loteslerako eskubideak sakondu eta indartzea, 2/2025 Legegintzako Errege Dekretuaren (Langileen Estatutua) 64. artikulua aldatuz. Eskubide horiek negoziazio kolektiboaren bidez zabaldu ahal izango lirateke, hitzarmen kolektiboetan klausula espezifikokoak txertatuz eta enpresa batzordeei beto eskubidea aitortuz inbertsio, nazioartekotze edo esportazio erabakietan, besteak beste.

5.4. Lan indarra: lan baldintzak eta trebakuntza

Ekoizpen egituraren eraldaketak aldaketa sakona eskatzen du lanaren antolaketan eta langileek bizitza ekonomikoan parte hartzeko dituzten baldintzetan. Langileek lan munduan modu aktiboan parte hartu ahal izan dezaten, lanbide-heziketa ezin da soilik gaitasun teknikoen transmisio gisa ulertu; aitzitik, prozesu zabalago baten parte da: lan indarraren ekoizpen sozialarena. Horrek esan nahi du ez dela nahikoa ezagutza teknikoak izatea, baizik eta lan egiteko beharrezko baldintza materialak bermatu behar direla.

Horretarako, ezinbestekoa da zaintza lan guztiak aitortu eta balioestea (elikadura, osasuna, atsedena, afektua edo denboraren antolaketa); historikoki ikusezin bihurtutako lanak dira, familia eremuan, modu pribatuan eta gehienbat emakumeek eginak, baina eguneroko bizitza sostengatzen dutenak eta lan indarraren erabilgarritasuna ahalbidetzen dutenak. “Txanpiñoi gizonaren” ideiarekin aurrean (hau da, lan munduan inolako sostengu beharrik gabe agertzen den subjektu autosufizientearen irudiaren aurrean), premia da zaintza lan horien balioa aitortzea eta haien publikazioan aurrera egitea. Dimentsio hori erantzukizun kolektibo gisa ulertu behar da, eta enplegu, trebakuntza eta ongizate politiketan integratu.

Logika horrek berak azaltzen du zergatik ez diren lan-baldintzak (soldata, lanaldia, egonkortasuna, erantzunkidetasuna...) prestakuntzatik bereizitako kontua, prozesu beraren zati baizik: baldintza duinik gabe, lan-indarraren benetako prestasuna kolokan geratzen da. Prestakuntza-politikak eta lan-baldintzak elkar indartzen dira eta modu koherentean planifikatu behar dira.

Ikuspegi horretatik, lan baldintzak ez dira merkatuaren doikuntza tresna huts bat; justizia sozialaren eta ekoizpen ereduaren iraunkortasunaren funtsezko osagaia dira. Horregatik, lan egonkorra, ondo ordaindua, prekarizaziorik gabea eta sozialki aitortua izango duen eredu baten alde egiten da, lanaren adierazpide guztiak barne hartuta: bai ekoizpen lan ordaindua, bai ugalketa eta zaintza lanak.

Lanbide-heziketaren arloan, finantzaketa pribatuaren hazkundeak ikasketa planak baldintzatu ditu, haien aniztasuna murriztuz eta merkatura bideratutako orientazioa indartuz. Horren aurrean, beharrezkoa da lanbide-heziketaren berrikuspen kritikoa egitea, ikuspegi ahalduzailerik bat garatzeko. Trebakuntzak langileen eta produkzio prozesuaren arteko lotura indartu behar du, bai eta egindako lanaren emaitzarekiko lotura ere, eta oinarri izan behar du ekoizpen egitura gizarte ekonomia eraldatzailearen norabidean eraldatzeko.

Trebakuntzaren diseinuak enpresen eta langileen trebakuntza beharren tokian tokiko azterketa zorrotz eta etengabetik abiatu behar du, enpleguaren errotzea indartzeko eta ekoizpen sarearen kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Proposatzen diren neurriak:

5.4.1. Trebakuntza eta zaintza

- Trebakuntza beharren eskualdekako mapak ezartzea, sindikatuen eta komunitatearen parte hartze loteslearekin.
- Zaintzaren arloko erantzunkidetasun klausula espezifikoak hitzarmen kolektibo guztietan txertatzea. Klausula horiek ugalketa lanaren dimentsio soziala aitortu behar dute, eta haren zama birbanatzeko neurri zehatzak ezarri, hala nola:
 - Zaintzarako baimenak zabaltzea eta malgutzea.
 - Bizitzaren antolaketarekin bateragarriak diren lan ordutegiak ezartzea.
 - Lantokietan laguntza zerbitzuak eskaintzea.
 - Familia kargetatik diskriminaziorik ez dela emango bermatzea.
- Zaintzen publikazioan aurrera egitea eta zaintza lanak industria politikan integratzea.
- Lanbide-heziketako zentro publikoak lehenestea eta gardentasunik bermatzen ez duten egiturei funts publikoak esleitzea mugatzea.
- Sektore estrategikoei eta zaintza sektoreei lotutako trebakuntza tekniko profesional ekosozialeko zentro publikoak sortzea.
- Enplegu zerbitzu publikoak indartzea lan bitartekaritzaren ardatz nagusi gisa, kalitate edo ekitate bermerik gabeko erakunde pribatuak diruz laguntzeko egungo eredu albo batera utzita.
- Birkualifikazio profesionaleko zerbitzuak garatzea, bereziki digitalizazioaren eta automatizazioaren ondorioei aurre egiteko.
- Bigarren eta goi mailako hezkuntzan prekarietatea murriztea.
- Unibertsitate publikoaren finantzaketa hobetzea eta irakasle zein ikertzaileen behin behinekotasuna murriztea.

- Unibertsitateko eta bigarren mailako ikasketa-planen berrikuspen kritikoa, aniztasuna, pentsamendu kritikoa eta ezagutzaren merkantilizazioaren aurrean orientazio eraldatzailea bermatzeko.

5.4.2. Lan baldintzak

- Per capita BPGren % 60ren baliokidea den lanbide arteko gutxieneko soldata ezartzea. Batez besteko soldatan oinarritutako egungo kalkuluak egiturazko muga bat du: soldaten errepresio testuinguru batean, LGSa batez besteko soldatari lotzeak banaketaren behealdean kontzentratzen ditu soldadak, eta kanpo uzten du errentaren ekoizpenaren zati handi bat, langileen lan osotik datorrena. Per capita BPGak, aldiz, sortutako aberastasun osoa jasotzen du, eta erreferentzia bidezkoagoa da soldata-lurzoria finkatzeko.
- Lanaldia pixkanaka murriztea, soldata murriztu gabe, lanaren banaketa bermatzeko tresna gisa, sektore-mailan talka desberdinak eragingo dituen agertoki baten esparruan.
- ELAk 2022ko apirilean etxebizitza arloan egindako proposamenak garatzea, bizitegi-egoera funtsezko erabakigarria baita familien errenta erabilgarriari dagokionez.

5.5. Baliabideak, azpiegiturak eta lurraldea

Bidezko trantsizio ekosozial baterako oztopo nagusietako bat egungo ekoizpen ereduaren oinarrian dauden materialekiko, energiarekiko eta baliabide estrategikoekiko kanpo mendekotasun sakona da. Burujabetzari dagokion inpaktuaz gain, baliabide horietako asko lurralde-gatazkek, eskubide sozialen urraketek, inpaktu ekologiko itzulezinek eta jabetzearen logika kolonialek markatutako testuinguruetan ateratzen dira, lan-kostu baxuekin, ikusi dugun bezala.

Ildo horretan, funtsezkoa da baliabideak eskuratzeko aukera ez ezik, baliabideen erabilera ere birpentsatzea. Alde batetik, industria-politikak ikuspegi kritikoa izan behar du erauzketari, ekoizpen-birlokizazioari, berrerailerari eta metabolismo ekonomikoaren plangintzari dagokionez, kanpoko lurraldeen gaineko presioa nabarmen murrizteko eta burujabetza materiala indartzeko xedez. Horrek produkzio-kateak baliabideen eskuragarritasun errealean eta jasangarriaren arabera birkonfiguratzeko dakar, kanpoarekiko egiturazko mendekotasunarekin amaituz, eta lurralde-eredu ekonomiko bat garatzea, natura- eta produkzio-baliabideen gaineko subiranotasunean oinarritua, justizia ekologikoaren eta gizarte-ekitatearen logikatik kudeatua.

Bestalde, ezinbestekoa da esku publikoetan edo komunitarioetan dauden baliabide estrategikoen gobernantza demokratikoa finkatzea (baliabide naturalak, energetikoak eta logistikoak barne), interes orokorraren zerbitzura gera daitezen: berrikuntza teknologikoak, nahikotasun-irizpiderik eta premien plangintza demokratikorik ez badago, are gehiago areagotu dezake kontsumoa: fenomeno horri Jevonsen paradoxa deritzo, eta bertan deskribatzen da efizientzian egindako aurrerapenak baliabideen erabileraren hazkunde garbia eragin dezaketela, muga sozialak eta ekologikoak ezartzen ez badira.

Bestalde, azpiegiturak ekoizpena, kontsumoa eta eguneroko bizitza antolatzen dituen baldintza materiala dira. Lurraldearen arabera diseinuak eta banaketak zehazten dute zer ekoizten den, non eta norentzat. Horregatik, ezinbestekoa da plangintzan esku hartzea hurbiltasuneko, iraunkortasun ekologikoko, lurzoruaren erabileraren eraginkortasuneko eta sarbidearen demokratizazio irizpideetatik abiatuta. Industria-politika eraldatzaile batek azpiegiturak birlokalizatu eta deszentralizatu behar ditu, tokiko produkzio-sistemen eta gizarte-beharren zerbitzura bideratuz. Esparru horretan, mugikortasun-ereduaren egitura-erlaldaketa funtsezko ardatza da: elektrifikazioa ezin da helburu bakarra izan; aitzitik, honako hauekin konbinatu behar da: salgaien mugikor-

tasunaren murrizketa orokorrarekin, garraio publikoa eta kolektiboa bultzatzearekin eta lurraldea berrantolatzearekin, hurbiltasunaren eta nahikotasunaren ikuspegitik.

Zerbitzuei eta ukiezinei dagokienez, funtsezkoa da industria-zerbitzu aurreratuetarako eta baliabide ukiezinetarako (hala nola ezagutza, softwarea, datuak edo adimen artifiziala) sarbide kolektibo eta demokratikoa bermatzea, egiturazko mendekotasunak murrizteko eta burujabetza teknologikoa eraikitzeko. Esparru hori merkatuaren eta korporazio digital handien esku utzi beharrean, azpiegitura eta zerbitzu publiko eta komunitarioen ekosistema bat sortzea proposatzen da, baliabide ukiezinak tokiko produkzio-sistemen eta interes orokorraren zerbitzura jartzeko.

Proposatzen diren neurriak:

5.5.1. Metabolismo materiala

- Egungo baliabide naturalak, materialak eta giza baliabideak identifikatzeko lurralde-auditoretzak egitea, bai eta baliabide horien eskuragarritasun, iraunkortasun eta kanpo-mendekotasun maila identifikatzeko ere.
- Kanpo-harremanen berrikuspen kritikoa bultzatzea, ikuspegi ekosozial batetik, aztarna ekologikoa eta soziala, eta baliabide berriztaezinen ustiapenean duen eragina aztertuz.
- Lurralde-multzo bereko ekoizpen-unitateek intsumo gakoak elkarrekin pilatzea errazteko mekanismoak ezartzea, horrela baliabide urriengatiko lehia saihestuz.
- Teknologia eolikoan, fotovoltaikoen eta ibilgailu elektrikoan bizitza baliagarria luzatzea, lehengai kritikoen erauzketa murrizteko funtsezko neurri gisa.
- Hiri-meatzaritzaren industria garatzea, bilketa- eta birziklatze-tasak handituz, mineralen eskariaren zati handi bat material berreskuratuen bidez estaltzeko.
- Lehengai kritikoen erauzketa erdira murriztea, nahikotasun-ereduak eta justizia soziala lehenetsiz. Ekintza estrategikoen artean honako hauek daude: mugikortasun ereduaren aldaketa (ibilgailu pribatuen murrizketa zorrotza), horniduraren plangintza demokratikoa eta birlokalizazio produktiboa.

5.5.2. Energia eta ekonomia zirkularra

- Industria-hondakinak errausteko makina berrien gaineko moratoria bat ezartzea, teknologia hori ekonomia zirkularraren printzipioen aurkakoa baita. Horren ordez, inbertsioak birziklatze-planta aurreratuetara bideratu behar dira, materialen berreskuratze-tasak nabarmen hobetzeko.
- Hondakinak lehengai gisa berrerabiltzeari lehentasuna ematera behartzen duen Europako araudia aplikatzea (2018/851 EB Zuzentaraua), hondakinen hierarkia benetan betetzen dela bermatuz. Hierarkia horren helburua eredu linealaren ordez zirkular bat ezartzea da.
- Energia-instalazio berriztagarriak eremu babestuetan, balio ekologiko handikoetan edo nekazaritza-lurzoruetan kokatzea debekatzea, eta horien ezarpena lurraldearen benetako beharretara egokitutako eskala batera egokitzen dela ziurtatzea.
- Erauzketa-proiektuek eragindako tokiko komunitateen parte-hartzea bermatzea erabakiak hartzean, beto-eskubidea eta lurralde-alternatibak zehazteko gaitasuna ziurtatuz.

- Ekonomia zirkularreko eskualde mailako planak inplementatzea, hondakinen sorrera murriztera, birziklapena eta materialen berrerabilera sustatzera, ekoizpen kateak birlokalizatzea eta kanpo baliabideen mendekotasuna murriztera bideratuta. Horrek ekoizpen, mugikortasun eta kontsumo eredua eraldatzea dakar, eta energia berriztagarriekin funtzionatzen duten industria sektore iraunkorren alde egitea.
- Energia berriztagarrien enpresa publiko bat sortzea, energia eskuratzeko eskubide unibertsalak bermatzeaz gain, errentak birbanatzeko tresna gisa funtzionatuko duena. Enpresa horrek koordinazio deszentralizatua eta eskariaren lurralde-artikulazioa uztartu behar ditu, kooperatiba-sareen eta gizarte-ekonomia eraldatzailearen bidez.

5.5.3. Lurralde-plangintza

- Lehendik dauden azpiegitura industrialen eta behar sektorialenkatalogo bat egitea, lurralde-disfuntzioak zuzentzeko eta erabilera industrialak planifikatzeko efizientzia, lurzorua optimizazio eta iraunkortasun ekologikoko irizpideen arabera.
- Etekinak ematen dituzten ekoizpen-zentroak ixtea erabakitzen duten enpresen ibilgetua lurzoru urbanizaezinaren balioaren arabera desjabetzea.
- Produkzio-kate laburren garapena sustatzea, kostu logistikoak, kanpoko garraioarekiko mendekotasuna eta aztarna ekologikoamurriztuz. Produkzioaren eta kontsumoaren arteko hurbiltasunak plangintza ekonomiko demokratikoa indartzen du tokiko kontseilu ekonomikoetatik.
- Hiri- eta industria-lurraldea berrantolatzeo prozesuak abiaraztea, tokiko beharretan, sektoreko konpromiso estrategikoetan eta garapen ekologikoaren printzipioetan oinarrituta. Berrantolaketa horrek lehentasuna eman behar die lurzorua erabileraren eraginkortasunari, lurralde-integratioari eta klima-aldaketaren aurreko erresilientziari.
- Tokiko ekoizpen-multzoen eta gobernantza publiko-komunitarioko multzoen arabera planifikatutako lurralde-parke industrialak diseinatzea eta garatzea, produkzio-unitateen artean partekatutako funtsezko intsumoak eta zerbitzu komunak eskuratzeko bermatzeko, bikoiztasunak murriztuz eta eraginkortasuna hobetuz.

5.5.4. Mugikortasuna eta logistika

- Enpresa-mugikortasuneko eta industria-arloko planak sustatzea, ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko eta alternatiba iraunkorrak sustatzeko, hala nola garraio kolektiboa, partekatua edo mugikortasun aktiboa.
- Ibilgailuen eta bizikleten erabilera partekatua sustatzea, carsharing-eskemen edo erkidegoko garraio-ekimeneen bidez, landa-inguruneetara nahiz industria-inguruneetara egokituta.
- Lurraldearen beharretara egokitutako trenbide-sarea sustatzea, irizpide ekonomiko, sozial eta ekologikoetan oinarrituta diseinatua. Sare horrek lehenik dauden bideen aprobetxamendua lehenetsi behar du, eraikuntza berri oro gizartearen adostasunaren mende jarri behar du, eta ziurtatu behar du haren kostu ekonomikoa, energetikoa eta ingurumenekoa emandako zerbitzuarekiko proportzionala dela.
- Nodo logistikoak lurralde-mailan berrantolatzea, produkzio-egituraren deszentralizazioarekin eta birlokalizazioarekin koherente izanik.

- Salgaien trenbidearen mugikortasuna sustatzea, errepideko garraioaren alternatiba gisa, logistika-sektorearen ingurumen-aztarna nabarmen murriztuz.

5.5.5. Industria-zerbitzu aurreratuak

- Datu-base publiko bat sortzea, industria-zerbitzu aurreratuak eskaintzeko gai diren eragile publikoak eta kooperatibak identifikatzeko. Tresna horrek tokiko soluzioetarako sarbidea erraztuko du, aholkularitza pribatu handien mendekotasuna murriztuko du eta hurbileko ehun ekonomikoa indartuko du.
- Erosketa publiko estrategikoa ezartzea gastu publikoaren printzipio orientatzaile gisa, eta lehenasuna ematea erakunde publikoek edo kooperatibek sortutako zerbitzu aurreratuak kontratatzeari, lurraldean errotuta ez dauden enpresa pribatu transnazionalen aurrean.

5.5.6. Burujabetza teknologikoa

- Datu-zentroen azpiegitura publiko bat garatzen hastea, segurtasun, irisgarritasun eta subiranotasun digitaleko irizpideekin kudeatuta, informazio kritikoa modu demokratikoan biltegiratu eta prozesatu ahal izateko.
- Kode irekiko, irisgarriko eta kolektiboki auditatutako software publiko bat garatzea eta ezartzea, gardentasunari mesede egingo diona eta, aldi berean, produkzio-zentroetan ezartzea eta independentzia teknologikoa erraztuko duena.
- Adimen artifizial baten garapen publikoak sustatzea, behar sozial zehatzak konpontzera eta zerbitzu publikoen eta Erkidegoko produkzio-sektoreen funtzionamendua hobetzera bideratuta, kontrol demokratikoko eta onura kolektiboko logika batetik.

5.6. Errotzea eta burujabetza

Errotzea eta burujabetza funtsezko bi dimentsio dira industria politika eraldatzaile baterako. Balio kate globalek markatutako testuinguru batean, kate horien barruan mendeko upgrading estrategien alde egiteak (hau da, gaitasun produktiboak hobetzea eragile transnazionalekiko mendekotasuna zalantzan jarri gabe) egiturazko posizio periferiko batera eramaten du. Hego Euskal Herriko automobilgintzaren kasuak argi erakusten du hori: mendekotasun horrek zaildu egiten du haustura teknologiko propioak garatzea eta, ondorioz, etorkizunean ere periferia egoeran geratzeko arriskua areagotzen du. Horren aurrean, eredu autozentratua proposatzen dugu, kontsumo guneak eta ekoizpen guneak elkarrengana hurbilduko dituen eta dimentsio ekologikoa, ekonomikoa, politikoa eta soziala hurbiltasunaren eta burujabetzaren ikuspegitik uztartuko dituen.

Zentzu horretan, helburu estrategikoa lurraldean errotutako eredu ekonomiko bat eraikitzea izan behar da, non ekoizpena eta kontsumoa lurraldeetan bertan errotuta egongo diren, hurbiltasuneko harremanen, kontrol demokratikoaren eta jasangarritasun ekologikoaren bidez lotuta. Burujabetza integralak baliabide material eta immaterialen birbanaketa, sektore estrategikoen kontrol publiko edo kooperatiboa, eta eskubide sozial, linguistiko eta kulturalen artikulazioa barne hartu behar ditu, komunitate demokratiko eta kohesionatu baten oinarri gisa.

Horretarako, errotzeak esan nahi du ekoizpenaren kokapena ez dela soilik finantza logiken arabera erabaki behar, eta mekanismoak ezarri behar direla produkzio sarearen lurralde iraunkortasuna, ingurunearekiko konpromisoa eta estrategia kolektibo batean txertatzea bermatzeko. Burujabetza, bere

aldetik, ezin da autosufizientziara mugatu; ongizate kolektiboaren, justizia sozialaren eta jasangarritasun ekologikoaren arabera baliabideak, soberakinak eta zirkuitu produktiboak erabakitzeke benetako gaitasun gisa ulertu behar da. Horrek soberakinaren birbanaketa, jardueren birlokalizazioa eta hizkuntza, kultura eta gizarte kohesioaren aldeko apustu argia eskatzen du, burujabetzaren osagai gisa.

Errotzarekin lotura zuzenena duten neurri batzuk, hala nola itxierak eta deslokalizazioak legez debekatzea, laguntza publikoak itzultzeko betebeharra edo Berrindustrializazio Mahaiaren derri-gortasuna, 5.3 atalean jaso dira, haien izaera nagusiki arauemailea dela eta.

Proposatzen diren neurriak:

5.6.1. Errotzea

- Inbertsio publiko estrategikoko prozesuak abiatzea (partaidetza nagusi edo minoritarioaren bidez), kudeaketan parte hartzea bermatuz, estrategikotzat jotzen diren edo itxiera, atzerriko desinbertsio edo kapital ihesaren mehatxupean dauden enpresa bideragarrietan.
- Lurraldean errotutako zerga erregimen progresibo bat ezartzea, tokian berrinbertitzen ez diren irabaziei eta lurraldean integrazio txikia duten jardueri gaitasunak aplikatuz, eta ekoizpen lokalizatua, kooperatiboa eta enplegu egonkorra sustatuz.
- Errotzea garapen ekonomikorako politika publiko guztien printzipio gidari gisa finkatzea, borondatezko irizpide huts gisa ulertzetik harago.

5.6.2. Burujabetza

- Nazioartekotzeari lotutako aurrekontu publikoetako partidak ekoizpenaren birlokalizazio politketara bideratzea.
- Tokian toki sektore tradizionalen eta emergenteen arteko ekoizpen kateak sustatzea, lurraldearen oinarri ekonomikoa indartzeko.
- Enpresa irabazien berrerabilera sustatzea jarduera produktibo osagarri edo dibertsifikatu berrietan, kofinantzaketa mekanismoen, ekoizpen unitateen inkubagailuen eta lan birmoldaketarako trebakuntzaren bidez. Garapenerako Lurralde Agentzien esparruan.
- Enpresa soberakinaren lurralde birbanaketa abiatzea, irabazien zati bat udal mailako inbertsio sozial parte hartzaileko funtsetara bideratuko duten mekanismo fiskal eta finantzarioen bidez.
- Dimentsio kulturala eta linguistikoa industria politikan integratzea, euskal herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituen politika publiko aktibo baten bidez, euskararen erabilera, transmisioa eta presentzia bizitza sozialaren esparru guztietan sustatuz.
- Zaintza lanen sozializazioa, ongizate kolektiboaren zutabe gisa aitortzea eta eremu publikoan integratzea 5.4 atalean garatzen dira, lan baldintzekin eta birproduktio sozialarekin duten lotura zuzena dela eta. Hala ere, burujabetzak esparru honetan ere aurrera egitea eskatzen du, autonomia kolektiborako baldintza gisa: zaintzarako azpiegitura komunitariorik gabe, ez dago benetako burujabetzarik ez denboraren gainean, ez bizitzaren gainean.

5.7. Eskaria

Industria politika eraldatzaile bat eraikitzeko, ez da nahikoa ekoizpen eskaintza berrantolatzea; ezinbestekoa da eskariaren gainean ere jardutea, bai barne eskariaren gainean, bai kanpo eskariaren gainean. Barne eskaria indartzeak ekoizpen sarearen iraunkortasuna bermatzeko aukera ematen du, errotzea, hurbiltasuna eta lurralde artikulazioa oinarri hartuta. Era berean, nazioartekotze estrategietan esku hartzea funtsezkoa da kanpo dinamikek egiturazko desberdintasunak, mende-kotasuna edo estruktibismoa berriz ez sortzeko. Esportazio lehiakortasunean soilik oinarritutako ikuspegiaren aurrean, eskariaren orientazio demokratiko, birbanatzaile eta solidarioa proposatzen da, tokiko komunitateen ongizatea eta justizia globala lehenetsiko dituen. Horretarako, tokiko kontseilu ekonomikoak tresna eraginkor gisa ulertzen dira plangintzarako eta baliabide publikoen esleipenerako, lurralde mailako autogobernu ekonomikorako espazio egonkor bihurtuz; eta kanpo politika ekonomikoa nazioarteko lankidetzan eta elkartasunean oinarritu behar dela defendatzen da.

Barne eskariaren gainean eragiten duten neurri batzuk, hala nola per capita BPGaren %60aren pareko lanbide arteko gutxieneko soldata ezartzea, 2010eko eta 2012ko lan erreformak indargabetzea, lanaldia murriztea edo etxebizitzaren arloko proposamenak, 5.3 eta 5.4 atalean garatzen dira, lan baldintzei eta lan eskubideei dagokienez duten izaera nagusia dela eta. Hala ere, neurri horien helburu nagusietako bat da eskari agregatua eta etxeko kontsumoa indartzea; horregatik, eskari politikako tresna gisa ere ulertu behar dira.

Proposatzen diren neurriak:

5.7.1. Barne eskaria

- Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko bitartekaritza egingo duten lurralde agentzia publikoak sortzea, hurbiltasun irizpideetan oinarrituta, nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetako enplegua bermatzeko.
- Tokiko kontseilu ekonomikoak sortzea, lurraldetik ekonomiaren orientazioan esku hartzeko gaitasunarekin, ekoizpen eskaintza herritarren benetako beharrekin lotuz, 5.1 atalean deskribatutako funtzioez gain.

5.7.2. Kanpo eskaria

- Sektore arteko elkarguneak sustatzea enpresa eta ekoizpen unitate txiki zein ertainen nazioartekotzerako, baliabideak, ezagutzak eta gaitasunak partekatzeko aukera emango duten aliantza estrategikoak bultzatuz, nazioarteko merkatu berrietara modu kolektiboan iristeko eta globalizazio multipolar baten testuinguruko aldaketa dinamikoari modu kooperatiboan aurre egiteko.
- Bazkide komertzialen politikaren berrikuspen kritikoa sustatzea, nazioarteko testuinguru berriak eskaintzen dituen behar eta aukerak ebaluatuz, Estatu Batuen edo NATOren interes politikoen menpe egongo ez den ibilbide orri propio bat garatzeko helburuarekin, eta epe luze-ra bloke otanistatik kanpoko merkataritza harreman egonkorak sendotzeko.
- Nazioartekotzea sustatzeko programa eta laguntzetarako sarbidean baldintza argiak ezartzea (teknologia transferentzia bidezkoa, lan eta ingurumen eskubideak, tokiko balio erantsiaren sorrera, soberakina tokiko garapenean berrinbertitzeko konpromisoa, epe luzeko presentzia eta ekoizpen nahiz inbertsio prozesu osoaren ingurumen aztarna barne), zigorrak ezartzeko gaitasunarekin. Helburua da Iparralde globalaren eta Hegoalde globalaren arteko harreman

desorekatu edo esplotatzaileak sustatzen dituzten praktikak saihestea eta ez betikotzea; izan ere, praktika horiek garapenaren motor izan beharrean, hura oztopatzen dute.

- Euskal Enpresa Transnazionalen eta Giza Eskubideen Zentroa sortzea, enpresen nazioartekotzearen esparruan giza eskubideen errespetua bermatzeko tresna estrategiko gisa. Zentro hori erakunde autonomo gisa planteatzen da, jarduera korporatiboak arautu eta kontrolatzeko, publiko sozial aliantzen logika sustatuz eta herritarren parte hartze antolatua indartuz.
- Aldian aldian eguneratuko den produktu esportagarrien katalogo bat garatzea, zehazteko zein produktu edo produktu horien zein zati gorde behar den barne merkaturako.

5.8. Politika sektoriala: lehentasunak, eraldaketa eta inbertsioaren berrorientazioa

Industria politika eraldatzaile batek modu kolektiboan erabakitzea eskatzen du zein sektore hedatu behar diren, zein eraldatu eta zein murriztu. Baina politika horrek ez du sektore isolatuetan soilik esku hartu behar: estrategikotzat jotzen diren balio kateak identifikatu eta berrantolatu behar dira, oinarrizko beharrak asetzea, kanpo mendekotasuna murriztea, lurralde errotzea indartzea eta bidezko ziklo ekonomiko jasangarri baterantz aurrera egitea ahalbidetzen dutenak lehenetsiz. Berrantolaketa horrek katebegi ahulak indartzea eskatzen du, bai eta jarduera estrategikoak birlokalizatzea edo ekoizpen prozesu kaltegarriak birmoldatzea ere. Horregatik, politika sektorialek kate osoari begiratu behar diote, eta ez soilik sektore jakinei.

Sektoreetako esku hartzeen zehaztapena eta garapena askotan dokumentu honen irismenetik kanpo geratzen diren xehetasun teknikoen mende dago; horregatik, atal honetako proposamenak orientagarriak dira, eta aurreko ataletan garatutako neurriekin lotuta irakurri behar dira, haiei espresuki erreferentzia eginez.

Sektoreen arteko interdependentziak, mendekotasunak eta ekoizpenaren orientazioa aztertzeko, EAEko (2022) eta Nafarroako (2016) input-output taulak erabili dira (ikus 3.X atala), eta horien laburpena 3. taulan jasotzen da. Balio kateak hiru multzo handitan antolatzen dira, metabolismo ekonomikoan duten funtzioaren arabera: birproduktzio sozialeko sektoreak, trantsizio ekologikoko sektoreak eta gaitasun teknologikoa garatzeko sektoreak. Horiez gain, desinbertsioari buruzko atal bat ere gehitzen da.

3. taula. Kateen araberako diagnostikoa, burujabetzarako ekoizpena birlokalizatzeari begira

Katea	Mendekotasun inportatzailea	Kanpo orientazioa	Ahultasun nagusiak
Elikadura	Altua (kimika, plastikoak, esnekiak)	Altua(edariak, kimika)	Lur emankorra galtzea, mugikortasun gehiegi
Eraikuntza	Altua (altzairua, metalak, plastikoak)	Altua (siderurgia, metalak)	Industria hondakinak, energia eraginkortasunik eza
Zaintza	Altua (farmazia)	Ertaina (farmazia)	Lan prekarietatea, kanpora ateratzea
Oinarrizko zerbitzuak	Baxua/ertaina	Oso baxua	Pribatizazioa, azpifinantzaketa

Katea	Mendekotasun inportatzailea	Kanpo orientazioa	Ahultasun nagusiak
Oinarrizko kontsumo ondasunak	Altua (ehungintza, kimika)	Altua (manufakturak)	Manufakturen mendekotasun inportatzailea
Energia	Oso altua (gasa)	Baxua	Mendekotasun fosila, kontrol demokratikorik eza
Birziklapena eta ekonomia zirkularra	Baxua	Baxua	Gutxi birzikla daitekeen diseinua, zaharkitze programatua
Mugikortasuna	Altua (osagai elektrikoak)	Altua (automozioa)	Mendekotasun fosila, inportatutako osagaiak
Logistika eta garraioa	Ertaina	Altua (garraio materiala)	Gehiegizko mugikortasuna, aztarna fosila
Diseinua, ingeniari-tza eta makinak	Altua (osagai elektrikoak)	Altua (makinak)	Muga teknologikoak
Enpresentzako zerbitzuak	Baxua/ertaina	Heterogeneoa	Korporazio digital handien mendekotasuna, Madrilatik mendekotasuna etxeko eskarirako

Iturria: ELAren Ikasketa Kabinetea, Input-Output tauletan oinarrituta MRIO FIGARO (Eurostat, 2017)

5.8.1 Erreproduzio sozialerako kateak

5.8.1.1. Elikadura

Elikadura kateak inportazio-mendekotasun handia du inpùt kimikoekiko (oinarrizkoak eta amaierakoak), bilgarri eta ontziratzeko materialeekiko (plastikoa/kautxua) eta tarteko zenbait industrietatik, hala nola esnekiak eta okintza edo errotaritzaren sektoreekiko. EAEn, esportaziora argi orientatutako sektoreak dira oinarrizko kimika, amaierako kimika eta edarien industria; gainera, sektore horiek inportazio mendekotasun handia dute. Nafarroan ere antzeko joera dute elikadura agregatuaren eta edarien sektoreek. Nekazaritzak eta arrantzak, aldiz, inportazio intentsitate txikia dute bi lurraldeetan. Horri gehitu behar zaizkio salgai gehiegizko mugikortasuna eta lur emankorra kontsumitzen duen hirigintza hedakorra, hurbileko banaketa zailtzen dituen. Inportazioen %55,3 Espainiar Estatutik dator, batez ere Andaluziatik, Estatuko sektoreko inportazioen %39,3, eta %35,3 Europar Batasunetik; horrek erakusten du kanpo mendekotasuna nagusiki Europako eremuan kokatzen dela.

Helburu estrategikoa elikadura burujabetzan aurrera egitea da, biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzea eta karbono isurbideak mantentzea. Horretarako, lehentasuna eman behar zaio inportazio mendekotasun handiena duten katebegien birlokalizazioari, batez ere input kimikoei eta ontziratzeko materialei dagokienez; eta kanpora orientazio txikiagoa duten sektoreak (esnekiak edo okintza eta errotaritza, esaterako) barne merkatura berriz bideratzeari. Ez da egokia kanpora erabat bideratuta dauden jarduerak birlokalizatzea, hala nola edarien industria edo kanporatutako kimika; kasu horietan, baliabideak berrorientatzea da egokiena. Era berean, ezinbestekoa da kate osoan zehar jarduerak birlokalizatzea, ekoizpenetik banaketara arte, eredu agroekologiko eta jasangarriak sustatuz, eta estrategia hori lur emankorra babestuko duen eta hurbileko logistika sare bat erraztuko duen lurralde antolaketarekin osatzea.

Proposatzen diren neurriak:

- Gazteak nekazaritza sektoreran erakartzea laguntza espezifikoaren bidez, praktika agroekologikoetako trebakuntza sustatuz eta basogintza jasangarria bultzatuz, bereziki bertako basoa indartuta eta kanpoko espezieak (hala nola pinua eta eukaliptoak) pixkanaka ordezkatzuz.
- Arrantzaleei zuzeneko txikizkako salmentarako baimenak erraztea, lurralde balio erantsia sortzen duen tokiko arrantza sustatzeko.
- Banaketa eta logistikako enpresa publiko bat sortzea, tokiko eskalan modu publiko komunitarioan kudeatua, ekoizleentzat zein kontsumitzaileentzat prezio bidezkoak bermatzeko eta bitartekarien espekulazio marjina ezabatzeko (ikus 5.1, Enpresetan eta jabetzan esku hartzea).
- Kateko enpresen finantzaketa publikoari baldintzak ezartzea, hurbiltasun, lurralde integrazio eta soberakina tokiko zirkuituetan berrinbertitzeko irizpideekin lotuta (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Input kimikoen eta ontziratze materialen birlokalizazioa lehenestea, baldintzatutako finantzaketa publikoaren bidez, hurbiltasun, lurralde integrazio eta soberakina tokiko zirkuituetan berrinbertitzeko irizpideekin lotuta (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Lurraldearen berrantolaketa irizpide ekosozialetan oinarritzea, lur emankorra babesteko eta hurbileko logistika sare bat errazteko (ikus 5.5, Lurralde plangintza).
- Nekazaritza eta elikadura sektorearen eta bioekonomiaren arteko ekoizpen kateak sustatzea (ikus 5.6, Burujabetza).

5.8.1.2. Eraikuntza

Eraikuntza da material eta energia kontsumo handiena duten kateetako bat, eta mendekotasun handia du inportatutako altzairuarekiko eta siderurgia produktuekiko, burdinazkoak ez diren metalekiko, plastikoekiko eta pintura nahiz itsasgarrien industri kimikoarekiko. Zementuak, beirak eta bestelako mineral ez metalikoek, berriz, inportazio intentsitate ertaina dute. EAEn, esportaziora gehien orientatutako sektoreak siderurgia eta metala, plastikoak eta azken produktu kimikoak dira; Nafarroan, berriz, produktu metalikoak, zura eta kortxoak, altzariak eta plastikoa nabarmentzen dira. Eraikuntza sektoreak berak bere ekoizpenaren zatirik handiena barne merkatura bideratzen duen arren, inportatutako osagaien pisua handia da, sektorearen bolumenagatik eta erabiltzen dituen inputen garrantziagatik. Horri gehitu behar zaizkio hondakin industrialen sorrera handia, birziklatze tasa eskasekin, energia fosilen erabilera intentsiboa eta energia eraginkortasun eskasa duen eraikin parkea. Jatorriari dagokionez, eraikuntza da Espainiar Estatuarekiko kontzentrazio handiena duen sektorea (%82,3), eta Europatik kanpoko presentzia ia hutsala da; horregatik, epe laburrean birlokalizatzeko ahalmen handiena duen sektoreetako bat da.

Helburu estrategikoa anitza da: eraikinen energia efizientzia hobetzea, material birziklatu edo berrerabilgarrien erabilera sustatzea eta etxebizitza duin eta jasangarria izateko eskubide unitibertsala bermatzea. Lehenetsuna eman behar zaie inportazio mendekotasun handiena eta input gisa zentralitate handiena duten katebegiei: altzairuari eta burdinazkoak ez diren metalei, produktu metalikoei eta ontziratze nahiz estaldura materialei. Zementuaren eta beiraren kasuan lehenetsuna txikiagoa da, haien inportazio intentsitatea ertaina delako. Proposatzen da baliabideak esportaziora bideratutako jardueretatik eraikuntzako makineria eta materialen industriaren birlokalizaziora bideratzea, eta, aldi berean, egiturazko zuraren eta material birziklatuen erabilera sustatzea.

Proposatzen diren neurriak:

- Egungo etxebizitza-parkea birgaitzea erraztea, isolamendu termikoko obretarako laguntza zabal eta iraunkorren bidez.
- Eraikuntza bioklimatikoko lanbide-heziketa sustatzea, sektoreko eraikuntza-praktika eraldatzeko beharrezko urrats gisa (ikus 5.4, Trebakuntza eta zaintzak).
- Industria hondakinen birziklapenerako I+G sustatzea, hondakinen sorrera eta baliabide berrien erazketa murrizteko helburuarekin (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).
- Barne eskariari erantzuteko beharrezkoa den altzairuaren, burdinazkoak ez diren metalen eta estaldura materialen ekoizpenaren birlokalizazioa lehenestea, baldintzaturiko finantzaketa publikoaren bidez, zirkulartasun, energia eraginkortasun eta lurralde errotze irizpideekin lotuta (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Lurraldean integrazio txikia duten sektoreko enpresetan tokian berrinbertitzen ez diren irabazien gaineko zerga erregimen progresiboa aplikatzea (ikus 5.6, Errotzea).
- ELAk 2022ko apirilean etxebizitzaren arloan egindako proposamenak garatzea, etxebizitza egoera familien errenta erabilgarrian eragin handiena duten faktoreetako bat baita (ikus 5.4, Lan baldintzak).

5.8.1.3. Zaintzak

Zaintza katea funtsezkoa da bizitzari eta ongizate kolektiboari eusteko, baina historikoki ikusezin bihurtu da eta prekarizatu egin da sistema ekonomikoaren barruan. Kanpo mendekotasun handia du farmazia produktuei dagokienez, eta farmazia industriaren esportazio orientazioak balio kate globaletan txertatzen du. Osasun eta gizarte zerbitzuak zein eguneroko zaintzari lotutako txikizkako merkataritza, berriz, nagusiki barne merkatura bideratuta daude, eta ez dute inportazioekiko mendekotasun zuzen handirik. Haien ahulgune nagusiak infrafinantzaketa, esternalizazioa eta lan baldintza txarrak dira. Kate hau osatzen duten lanak oso feminizatuak dira, baldintza prekarioetan egiten dira eta, askotan, ekonomia ezkutuan garatzen dira. Prekarietatea ez da soilik lan arlokoa, egiturazkoa ere bada: sistema publikoak oinarrizko estaldura baino ez du bermatzen, eta zaintza lanen zati handi bat merkatuaren edo ordaindu gabeko lanaren esku uzten da. Inportazioen jatorriari dagokionez, administrazio, hezkuntza eta osasun sektoreak %77,3ko mendekotasuna du espainiar estatuarekiko eta %14,3koa Europar Batasunarekiko; Europatik kanpoko presentzia, berriz, oso txikia da. Horrek erakusten du kate honen ahulgune nagusiak ez daudela kanpo mendekotasunean, baizik eta hornidura ereduan bertan.

Helburu nagusia zaintza duinak jasotzeko eskubide unibertsala bermatzea da, zaintza sistema publiko baten bidez, zaintza lanak egiten dituzten pertsonentzat lan baldintza egokiak ziurtatuko dituen. Horrek esan nahi du osasun arretarekin, gizarte arretarekin eta etxeko arretarekin lotutako zerbitzu publikoak garatu eta zabaldu behar direla, eta esternalizazio prozesuei buelta ematea zerbitzuen publikifikazioaren bidez. Farmazia arloan, komeni da funtsezko sendagaien eta sendagai generikoen barne hornidura indartzea, erosketa publikoak erresilientzia irizpideen arabera aktibatzea eta erreserba estrategikoak eratzea. Inportatutako inputekiko mendekotasuna handia den kasuetan, lehentasuna eman behar zaio barne eskari egonkorra duten segmentuetan ordezkapena sustatzeari: oinarrizko osasun materiala, laguntza produktuak eta zentroetan nahiz etxeetan eguneroko erabilera duten ekipamenduak.

Proposatzen diren neurriak:

- Osasun, gizarte eta etxeko arretari lotutako zerbitzu publikoak garatu eta zabaltzea, esternalizazio prozesuei buelta emanez zerbitzuen publikazioaren bidez (ikus 5.1, Enpresetan eta jabetzan esku hartzea).
- Erosketa publikoak erresilientzia irizpideen arabera aktibatzea farmazia arloan, eta funtsezko sendagaien nahiz oinarrizko osasun materialaren erreserba estrategikoak eratzea (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Zaintza lanak -ordainduak zein ordaindu gabeak- ekonomikoki aitortzea eta politika publikoen erdigunean kokatzea (ikus 5.4, Lan baldintzak).
- Zaintza lanen sozializazioan aurrera egitea, zaintzarako azpiegitura komunitarioak sortzea sustatuz eta lan horiek egiten dituztenentzat lan baldintza duinak bermatuz (ikus 5.6, Burujabetza).
- Zaintzaren arloko erantzunkidetasun klausula espezifikoak sektoreko hitzarmen kolektiboe-tan txertatzea, ugalketa lanaren dimentsio soziala aitortuz eta haren zama birbanatzeko neurri zehatzak ezarriz (ikus 5.4, Trebakuntza eta zaintzak).
- Zaintza sektoreari lotutako trebakuntza tekniko profesional ekosozialeko zentro publikoak sortzea, orientazio praktiko eta komunitario sendoarekin (ikus 5.4, Trebakuntza eta zaintzak).

5.8.1.4. Oinarrizko zerbitzuak

Oinarrizko zerbitzuak —uraren hornikuntza eta tratamendua, garraio kolektiboa, hezkuntza, telekomunikazioak, gizarte-zerbitzuak— ezinbestekoak dira ongizate kolektiboa eta oinarrizko eskubideentzako sarbide unibertsala bermatzeko. Gehienek etxeko orientazioa dute gehienbat, mendetasun inportatzaile txikiarekin hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan, ertaina bidaiarien garraioan eta hondakinen eta uren kudeaketan, eta nahiko handiagoa informazio eta telekomunikazio zerbitzuetan, ekipamenduaren eta softwarearen pisuagatik. Ahultasun horiez gain, zerbitzu pribatizatuak edo kanpora ateratakoak daude, sarbide unibertsala zailtzen dutenak eta sektore estrategikoen gaineko kontrol demokratikoa mugatzen dutenak, oinarrizko jarduerak errentagarritasun logikoen mende jarritz, funtzio sozialari jaramonik egin gabe. Jatorriaren ikuspegitik, administrazio, hezkuntza eta osasun sektoreak % 77,3ko mendekotasuna du Espainiarekiko, Europatik kanpoko presentzia marjinalarekin. Horrek baieztatzen du kate horren ahultasunak ez direla batez ere kanpo-mendekotasunari dagozkionak, hornidura-ereduari dagozkionak baizik.

Helburua da herritarren beharren estaldura zabala bermatzea, horniduraren aztarna ekologikoa minimizatuz eta sistemaren jasangarritasun soziala eta ingurumenekoa ziurtatuz. Birlokalizatzeko lehentasunak hiru eremutan biltzen dira: hondakinen eta uren kudeaketa eta tratamendua, arreta berezia jarrita makineriaren, mantentze-lanen eta errektiboen tokiko zirkuituak ixteari; oinarrizko azpiegitura digitala eta telekomunikazioak, mantentze-lanei eta ekipamendu kritikoari dagokienez; eta bidaiarien garraio kolektiboa, tokiko jardunei eta mantentze-lanei dagokienez. Telekomunikazioetan, beharrezkoa da esku-hartze publiko bat, kanpo inbertsioaren aurrean blindaje mekanismoak jasoko dituenak, 2019/452 Europako Erregelamenduan oinarrituta, sektorearen burujabetza teknologikoa eta orientazio soziala bermatzeko.

Proposatzen diren neurriak:

- Oinarrizko zerbitzu publikoak garatzea eta zabaltzea, gaur egun kanpora ateratakoen publikazioarekin batera, eta esku hartzeko protokoloak garatzea pribatizazio-prozesu berrien aurrean (ikus 5.1. Enpresetan eta jabetzan esku hartzea).

- Oinarrizko zerbitzuen finantzaketa publikoan baldintzazkotasuna ezartzea, lan-kalitatearen, hurbiltasunaren eta iraunkortasunaren irizpideei lotuta (ikus 5.2. Baldintzazkotasuna eta kontrol demokratikoa).
- Blindaje mekanismoak ezartzea telekomunikazioetan eta azpiegitura digital kritikoan atzerriko inbertsioaren aurrean, 2019/452 EEn oinarrituta (ikus 5.3, Egungo arau esparrua gainditzea).
- Oinarrizko zerbitzuetan inbertitzeko, kanpora ateratzeko eta kudeatzeko erabakiei buruzko informazio- eta kontrol-eskubide sindikalak zabaltzea (ikus 5.3, Informazio-,kontsulta- eta kontrol-eskubide sindikalak).
- Kanpora bideratutako sektoreetatik baliabideak berresleitzea, barne-merkatua indartzeko eta hondakinak kudeatzeko sistemen tokiko garapenerako (ikus 5.6, Errotzea)..
- Hondakinen eta uren kudeaketari aplikatutako ekonomia zirkularreko eskualde planak ezartzea, lurralde mailako ziklo materialak itxiz (ikus 5.5, Energia eta ekonomia zirkularra).

5.8.1.5. Ondasunak eta oinarrizko kontsumo-jarduerak

Oinarrizko kontsumo-ondasunen — arropa, oinetakoak, higiene-produktuak, kultura-ondasunak eta jolas-zerbitzu jakin batzuk — ekoizpenak eta hornidurak errealitate oso desberdinak dituzte kate beraren barruan. Kontsumo-manufaktura (bereziki, ehungintza, jantzigintza eta oinetakoak, azken erabilerako kimika eta beste manufaktura batzuk) kanpo-orientazio nabarmena eta inportazio-intentsitate handia erakusten dute. Txikizkako merkataritza, ostalaritza eta informatika-zerbitzuak, aldiz, inportazio-mendetasun txikia edo moderatua duen barne-merkatura bideratzen dira gehienbat. Kulturaren eta aisialdiaren esparruan, etxeko orientazioa da nagusi, ikus-entzunezko segmentu batzuk izan ezik, batez ere Nafarroan. Ibilgailuen salmenta eta konponketaren kasuan, profila irekiagoa da Nafarroan EAEn baino. Jatorriaren ikuspegitik, Espainiaren mendekotasuna handia da sektore osoan, eta Katalunia, Valentzia eta Andaluzia dira hornitzaile nagusiak estatuko blokearen barruan.

Helburua da herritarren beharren estaldura zabala bermatzea, kontsumo-ereduen aztarna ekologikoa murriztuz eta sistemaren jasagarritasun soziala eta ingurumenekoa ziurtatuz. Komeni da barne-merkatuenganako birlokalizazioa lehenestea inportazioekiko mendekotasunik handiena duten manufaktura kate-mailetan: ehungintza, jantzigintza eta oinetakoak, azken erabilerako kimika eta azken kontsumoko beste manufaktura batzuk. Ostalaritzan eta txikizkako merkataritzan lehentasuna ez da industria birlokalizatzea, baizik eta hurbileko hornidura hobetzea eta kontsumo materialak eta energetikoak murriztea, kate logistiko laburren alde eginez. Ibilgailuen salmentan eta konponketan, inportatutako insumoekiko mendekotasuna murriztea eta eskaria aztarna ekologiko txikiagoko aukeretara bideratzea da garrantzitsua.

Proposatzen diren neurriak:

- Lehentasuna ematea inportazio-mendekotasun handiena duten manufaktura-katebegietan (ehungintza, jantzigintza eta oinetakogintza, azken erabilerako kimika eta azken kontsumoko beste manufaktura batzuk) birlokalizatzeari, finantzaketa publikoko baldintzazkotasunaren bidez eta lurraldean zehar berrinbertitu gabeko etekinen gaineko zerga-araubide progresiboaren bidez (ikus 5.2, Baldintzazkotasuna eta kontrol demokratikoa, eta 5.6, Errotzea).
- Ostalaritzako eta txikizkako merkataritzako hurbileko hornikuntza hobetzea, kate logistiko laburren eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko lurralde-agentzia publiko bitartekarien aldeko apustua eginez (ikus 5.5, Lurralde-plangintza, eta 5.7, Barne-eskaria).

- Ibilgailuen salmentan eta konponketan inportatutako intsumoekiko mendekotasuna murriztea, eskaria aztarna ekologiko txikiagoko aukeretara bideratuz (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).
- Konponketa tokiko balio erantsia duen praktika ekonomiko gisa bultzatzea, konpontzeko eta berrerabiltzeko eskualdeko nodoak sortzen lagunduz (ikus 5.5, Energia eta ekonomia zirkularra).

5.8.2. Trantsizio ekologikorako kateak

5.8.2.1. Energia

Energia sistema gakoa da ekonomikoarentzat, baina zaurgarritasun handiak ditu. Euro bakoitze-ko inportazio eduki handia duen katea da, bereziki gas hornikuntzan; elektrizitatearen kasuan ere mendekotasuna ertain-handia da. Aldiz, esportazio orientazio txikia du bi lurraldeetan, outputaren zatirik handiena barne merkatura eta tarteko erabileretara bideratzen baita. Kanpo mendekotasun horri beste egiturazko muga batzuk gehitzen zaizkio: elektrifikazioaren muga fisiko eta materialak, elektrizitate sorkuntza ez berriztagarriaren iraunkortasuna, balio ekologiko eta agrario handiko lurretan energia azpiegitura handiak eraikitzea, eta energia nahiz lurralde plangintzari lotutako erabaki estrategikoetan parte hartze sozial eskasa. Inportazioen jatorriari dagokionez, gasarekiko kanpo mendekotasuna oso handia da, eta beste sektore batzuetan baino dibertsifikazio geografiko handiagoa dago; horrek are premiazkoago bihurtzen du autosufizientzia energetikoan aurrera egitea.

Helburua bikoitza da: batetik, ekonomiaren esparru guztietan iturri fosiletatik energia berriztagarrietarako trantsizioan aurrera egitea; bestetik, energiaren kontsumo globala murriztea eta autosufizientzia energetikoa pixkanaka handitzea. Horretarako, ekoizpen berriztagarriaren plangintza demokratiko eta parte hartzailea behar da, proiektuen errentagarritasun ekonomikoa ez ezik, haien bideragarritasun ekologikoa, lurraldekoa eta soziala ere kontuan hartuko dituen. Era berean, ezinbestekoa da erregai fosilei lotutako azpiegitura eta teknologietan egiturazko desinbertsioa egitea, garraio publikoaren elektrifikazioa sustatzea eta industria ekoizpen prozesuetan eredu energetiko berriztagarri baterantz aurrera egitea.

Proposatzen diren neurriak:

- Energia berriztagarrien enpresa publiko bat sortzea, energia eskuratzeko eskubide unibertsalak bermatuko duena eta errentaren birbanaketarako tresna gisa jardungo duena, koordinazio deszentralizatua eta lurralde artikulazioa uztartuz sare kooperatiboaren eta ekonomia sozial eraldatzailearen bidez (ikus 5.1, Enpresetan eta jabetzan esku hartzea).
- Energia sektoreko finantzaketa publikoa baldintzatzea, burujabetza energetikoari, kontrol demokratikoari eta justizia klimatikoari lotutako irizpideen arabera (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Bidezko trantsizio energetikorako euskal funts bat sortzea, tokiko ekoizpen sistemetan edo balio kate laburretan integratutako enpresentzako lehentasunezko tasak eskainiko dituen (ikus 5.2, Finantza arkitektura eraldatzailea).
- Erregai fosiletan egiturazko eta progresiboko desinbertsioa ezartzea arau bidez, bai eta lotutako azpiegitura berrien garapena blokeatzea ere (ikus 5.3, Egungo araudi egitura gaitzeta).

- Energia berriztagarrien plangintza demokratiko eta parte hartzailea arau bidez ezartzea, inpaktu handiko proiektuetan komunitateen beto eskubidea bermatuz, bizi ziklo osoaren nahitaezko ebaluazioa eginez eta instalazioak eremu babestuetan edo balio ekologiko nahiz agrario handiko lurretan kokatzea debekatuz (ikus 5.3, Egungo araudi egitura gainditzea).
- Garraio publikoaren elektrifikazioa sustatzea eta industria ekoizpen prozesuetan eredu energetiko berriztagarri baterantz aurrera egitea (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).
- Energia instalazio berriztagarriak eremu babestuetan, balio ekologiko handiko guneeetan edo nekazaritza lurretan kokatzea debekatzea (ikus 5.5, Energia eta ekonomia zirkularra).

5.8.2.2. Birziklapena eta ekonomia zirkularra

Hondakinen bilketa, tratamendu eta balorizazioari lotutako sektoreek barne merkatura orientatutako jarduera dute nagusiki, nahiz eta jarduera eta materialaren arabera kanporako irteera puntual eta heterogeneoak ere izan. Horrek agerian uzten du tokian sortzen diren hondakinen eta haien tratamenduaren arteko deskonexioa. Ekoizpen egitura nagusia birziklagarritasun irizpiderik gabe diseinatutako ondasunetan oinarritzen da, eta horrek asko zailtzen du haien berreskurapena edo berrerabilpena. Horri gehitzen zaizkio zaharkitze programatua indartzen duten enpresa dinamikak, produktuen bizitza erabilgarria luzatzea eragotziz. Inportazio mendekotasunari dagokionez, sektore honetan txikia da; horrek erakusten du muga nagusiak ez direla kanpo mendekotasunarekin lotutakoak, baizik eta ekoizpen ereduaren diseinuarekin eta tratamendurako tokiko azpiegitura faltarekin.

Helburu nagusia ekonomia zirkularrean oinarritutako ekoizpen sistema bat eraikitzea da. Horretarako, hondakinen kudeaketa jasangarrira bideratutako ikerketa eta garapen teknologikoa sustatu behar dira, diseinutik tratamenduraino; konponketa tokiko balio erantsia sortzen duen jarduera ekonomiko gisa indartu behar da; eta esportaziora bideratutako baliabideak birziklapenerako tokiko gaitasunak garatzera bideratu behar dira. Birlokalizazioaren ikuspegitik, proposatzen da bigarren mailako materialen barne merkatuak sendotzea, berrerabilpenerako eta konponketarako eskualde nodoak sortzea, eta alderantzizko logistika hobetzea bilketaren kalitatea handitzeko, horrela materialen zikloak lurralde mailan ixteko.

Proposatzen diren neurriak:

- Hondakinen kudeaketa jasangarrira bideratutako ikerketa eta garapen teknologikoa sustatzea, diseinutik tratamenduraino (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).
- Hondakin industrialen erraustegi berrien moratoria ezartzea eta birziklapen planta aurrera-tuetan inbertitzea (ikus 5.5, Energia eta ekonomia zirkularra).
- Hondakinak lehengai gisa berrerabiltzeari lehentasuna ematea ezartzen duen Europako araudia aplikatzea (EB 2018/851 Zuzentaraua), hondakinen hierarkia benetan betetzen dela bermatuz (ikus 5.3, Egungo araudi egitura gainditzea).
- Bigarren mailako materialen barne merkatuak sendotzea eta berrerabilpenerako nahiz konponketarako eskualde nodoak sortzea (ikus 5.5, Energia eta ekonomia zirkularra).
- Alderantzizko logistika hobetzea, bilketaren kalitatea handitzeko eta materialen zikloak lurralde mailan ixteko (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).
- Konponketa jarduera tokiko balio erantsia sortzen duen praktika ekonomiko eta laboral gisa sustatzea, enplegua sortzea eta hondakinak murriztea uztartuz (ikus 5.5, Energia eta ekonomia zirkularra).

- Ekonomia zirkularreko eskualde planak ezartzea, hondakinen sorrera murrizteko, materialen birziklapena eta berrerabilpena sustatzeko eta kanpoko baliabideekiko mendekotasuna gutxitzeko (ikus 5.5, Energia eta ekonomia zirkularra).
- Hiri meatzaritzaren industria garatzea, bilketa eta birziklapen tasak handituz, mineralen eskariaren zati esanguratsu bat material berreskuratuen bidez asetzeko (ikus 5.5, Metabolismo materiala).
- Teknologia eolikoaren, fotovoltaikoaren eta ibilgailu elektrikoaren bizitza erabilgarria luzatzea, lehengai kritikoaren erazketa murrizteko funtsezko neurri gisa (ikus 5.5, Metabolismo materiala).

5.8.2.3. Mugikortasuna

Ibilgailu motordunen fabrikazioak esportazio orientazio handia du bi lurraldeetan, eta horrekin batera inportatutako osagaiekiko mendekotasun handia dago, bereziki material eta ekipamendu elektrikoetan eta produktu informatiko nahiz elektronikoetan kontzentratua; izan ere, horiek automobilgintzaren kateko muga teknologiko nagusiak dira. Bidaiarien garraio zerbitzuek -trenbidea eta lurreko beste garraio batzuk-, aldiz, nagusiki barne merkatura bideratutako jarduera dute eta kanpoarekiko esposizio txikia. Horri gehitu behar zaizkio ibilgailu parkearen elektrifikazio urria, garraioan energia fosilen erabilera intentsiboa eta konbustio motordun ibilgailuen erosketari eusten dioten pizgarrien jarraipena. Osagaien jatorriari dagokionez, material elektriko eta elektronikoek Europatik kanpoko mendekotasun handia dute, Txina eta munduko gainerako herrialdeak hornitzaile nagusien artean baitaude; horrek dimentsio geopolitiko eta klimatikoa eranstendio sektorearen zaurgarritasun teknologikoari.

Helburua mugikortasun eredu jasangarri baterantz aurrera egitea da, bai ikuspegi energetikotik, bai sozialetik eta lurralde ikuspegitik. Ez da kanpora argi orientatuta dagoena birlokalizatzea proposatzen (ibilgailuak eta ekipamendu elektriko nahiz elektronikoaren zati handi bat), baizik eta baliabideak berriz bideratzea barne merkatuaren garapenera eta etxeko merkatura zuzendutako osagai eta azpimodulu estandarizatuen tokiko ekoizpenera, bidaiarien garraio zerbitzuak indartzearekin batera. Horrek esan nahi du, halaber, pertsonen eta salgaien alferrikako mugikortasuna murriztu behar dela eta lurralde antolaketa irizpide ekosozialen arabera berrantolatu behar dela, hurbiltasuna sustatzeko.

Proposatzen diren neurriak:

- Trenbideko eta errepideko garraio publikoaren sareak zabaltzea, lurralde antolaketa irizpide ekosozialen arabera berrantolatuz, hurbiltasuna sustatzeko eta joan-etorri luzeen beharra murrizteko (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).
- Baliabideak berriz bideratzea barne merkatuaren garapenera eta etxeko merkatura zuzendutako osagai eta azpimodulu estandarizatuen tokiko ekoizpenera, lehentasun hori baldintzaturiko finantzaketa publikoaren bidez ezarritik (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Material eta ekipamendu elektrikoaren nahiz osagai elektronikoaren I+G sustatzea, automobilgintzaren kateko katebegi kritikoetan kanpo mendekotasun teknologikoa murrizteko (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).
- Enpresetako eta industria eremuetako mugikortasun planak sustatzea, ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzeko eta alternatiba jasangarriak indartzeko (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).
- Ibilgailuen eta bizikleten erabilera partekatua sustatzea, carsharing ereduaren edo komunitate garraiorako ekimenen bidez (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).

- Lurraldearen beharretara egokitutako trenbide sare bat sustatzea, irizpide ekonomiko, sozial eta ekologikoetan oinarrituta diseinatua (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).

5.8.2.4. Logistika eta garraioa

Logistikak eta garraioak zeharkako eginkizuna dute ekoizpen sistema osoaren funtzionamenduan, lehengaien, tarteko ondasunen eta amaitutako produktuen fluxuak balio kate osoan antolatuz. Gaur egun, kateak kanpora orientazio handia du garraio materialaren ekoizpen segmentuetan, tokiko beharrekin lotura txikia duten sare globaletan txertatuta baitaude. EAEn, horri gehitzen zaio itsas garraioaren profil oso irekia eta biltegitratze nahiz jarduera osagarrien nazioartekotze handiagoa; Nafarroan, aldiz, azken horiek barne merkatura gehiago orientatuta daude. Ekoizpen egituraren egungo konfigurazioak gehiegizko mugikortasun dinamikak indartzen ditu, baita jatorri fosileko energia kontsumo intentsiboa eta azpiegitura handien eraikuntzarekin zein saihestu litezkeen inportazio eta esportazio fluxuen hazkundearekin lotutako inpaktuak ere. Inportazioen jatorriari dagokionez, Espainiar Estatuarekiko mendekotasuna handia da merkataritza, garraio eta ostalaritza sektorean (%57,1), eta Madril nahiz Katalunia dira garraio zerbitzu aurreratuen hornitzaile nagusiak.

Helburu nagusia hurbileko logistika eredu bat eraikitzea da, salgaien mugikortasuna murrizten, jarduera estrategikoak birlokalizatzen eta garraioaren aztarna ekologikoa minimizatzen lagunduko duena. Horretarako, proposatzen da garraiatutako salgaien bolumena murriztea, ekoizpen kateak hurbiltasun eta lurralde artikulazio irizpideen arabera berrantolatuz; flotak elektrifikatzea eta biltegitratze sareak nahiz jarduera osagarriak indartzea, haien barne merkaturako zerbitzu funtzioa lehenetsiz; eta baliabideak berriz bideratzea barne merkatuaren beharretara egokitutako garraio bide eta ekipamenduak garatzera.

Proposatzen diren neurriak:

- Garraiatutako salgaien bolumena murriztea, ekoizpen kateak hurbiltasun eta lurralde artikulazio irizpideen arabera berrantolatuz, eta gune logistikoak lurralde mailan berriz antolatzea, ekoizpen egituraren deszentralizazioarekin eta birlokalizazioarekin koherentzian (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).
- Garraio flotak elektrifikatzea eta biltegitratze sareak nahiz jarduera osagarriak indartzea, haien barne merkaturako zerbitzu funtzioa lehenetsiz, finantzaketa publiko baldintzatuaren bidez (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Baliabide publiko eta pribatuak berriz bideratzea, barne merkatuaren beharretara egokitutako garraio bide eta ekipamenduak garatzera (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).
- Salgaien trenbide bidezko garraioa sustatzea, errepideko garraioaren alternatiba nagusi gisa (ikus 5.5, Mugikortasuna eta logistika).
- Ekoizpen kate laburren garapena sustatzea, kostu logistikoak, kanpoko garraioarekiko mendekotasuna eta aztarna ekologikoa murrizteko (ikus 5.5, Lurralde plangintza).

5.8.3. Gaitasun teknologikorako kateak

5.8.3.1. Diseinua, ingeniariaritza eta makineria aurreratua

Diseinu, ingeniariaritza eta makineria aurreratuaren katea ezinbesteko oinarri tekniko produktiboa da industria sistema osoarentzat, hainbat sektore garatzeko, eraldatzeko eta sostengatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, tresnak eta ekipamenduak eskaintzen baititu. Kate hori osatzen

duten sektoreek kanpo orientazio ertain-handia dute, bereziki erabilera orokorreko makinerian eta material elektrikoan; EAEn, gainera, oinarritzko metalen sektorea ere nabarmentzen da, eta Nafarroan, berriz, material elektriko eta makineriaren zenbait segmentu. Nazioarteko txertatze horrek inportazio eduki handia du, bai kanpo eskariari dagokionez, bai barne eskariari dagokionez ere, bereziki osagai elektriko eta elektronikoetan eta metal inputetan. Aitzitik, arkitektura eta ingeniartzako zerbitzu teknikoek, saiakerek eta analisiek nahiz jarduera osagarriek inportazio intentsitate txikiagoa dute, eta tokiko ekoizpen sarearen euskarri izaten jarraitzen dute. Inportazioen jatorriari dagokionez, manufaktura industriak %43,6ko mendekotasuna du espainiar estatuarekiko eta %34,9koa Europar Batasunarekiko; horrez gain, Txinak (%3,6) eta munduko gainerako herrialdeek (%7,8) presentzia esanguratsua dute, eta horrek epe laburrean ordeztuko zailak diren mendekotasun teknologikoak erakusten ditu.

Helburu estrategikoa da eskaintza tekniko nahikoa, dibertsifikatua eta tokiko beharretara egokitu bermatzea, ekonomikoaren ziklo osoaren eraldaketa bidezko eta jasangarria sostengatzeko. Berrorientazioak lehenetsuna eman behar die inportazio mendekotasun handia duten eta barne merkaturako bokazioa nahiz beste sektore batzuk bultzatzeko gaitasun handia duten katebegiei, hala nola makineria eta ekipamenduen konponketa eta instalazioari; eta soberakinen berrinbertsioarekin lagundu behar da, tokiko eskaintza tekniko dibertsifikatzeko. Birlokalizazioaren lehenetsunen artean daude material eta ekipamendu elektrikoak, makina erremintak eta erabilera orokorreko makineria; eta oinarritzko inputetikiko mendekotasuna erabakigarria denean, ijezketa, galdaketa eta bestelako metalak. Zeharkako euskarri gisa, komeni da lurraldean errotutako ingeniariak, saiakuntza eta mantentze zerbitzu teknikoak indartzea.

Proposatzen diren neurriak:

- Osagaien tokiko ekoizpena handitzea, gaur egun esportaziora bideratutako baliabideak berriz esleitzuz, eta berrorientazio hori lehenetsunez sustatzea soberakinaren barne merkaturako berrinbertsioari lotutako baldintzaturiko finantzaketa publikoaren bidez (ikus 5.2, Baldintzak eta kontrol demokratikoa).
- Material eta ekipamendu elektrikoaren nahiz makina erreminten I+G sustatzea, oztopo teknologikoei lotutako inportazioak murrizteko eta barne beharrei erantzuteko gaitasun handiagoa izango duen ekoizpen oinarri bat eraikitzeke (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).
- Pixkanaka autonomia teknologiko handiagoa lortzea, AIE edo joint venture moduko enpresa ereduaren alde eginez, Txina bezalako herrialdeen esperientzia arrakastatsuak erreferentzia hartuta (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).
- Lurraldean errotutako ingeniariak, saiakuntza eta mantentze zerbitzu teknikoak indartzea, barne merkatuaren beharrei erantzuteko, erosketa publiko estrategikoaren bidez (ikus 5.5, Industria zerbitzu aurreratuak).
- Berrikuntza eta transferentzia teknologikoko zentro publiko komunitarioak sortzea, ekoizpen kate laburrei edo tokiko ekoizpen sistemari lotuta, tokiko ekoizpen testuingurura egokitutako teknologien erabilera sustatzeko eta lurraldean dagoen ezagutza inplizitua sistematizatzeko (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).

5.8.3.2. Enpresentzako zerbitzuak

Enpresentzako zerbitzuek (informatikarekin, aholkularitza teknikoarekin, finantzekin edo ikerketarekin lotutako zerbitzu aurreratuak) leku estrategikoa dute egungo ekoizpen arkitekturan. Kanpo orientazioa heterogeneoa da: EAEn edizioak eta finantza zerbitzuen zati batek kanpo irteera esanguratsua dute; telekomunikazioek, informatikak eta I+G jarduerak, aldiz, batez ere barne

merkatuari lotutako profila dute eta inportazio mendekotasun mugatua. Nafarroan, publizitateak eta merkatu azterketek dute kanpo orientazio handiena; finantza, aseguru eta telekomunikazio zerbitzuek, berriz, nagusiki barne merkaturako orientazioa dute. Jatorriaren ikuspegitik, zerbitzu profesional eta teknikoek kontzentrazio handia dute Madrilen (%30,0) eta Katalunian (%20,2), espainiar estatuko bloke osoaren (%59,1) barruan; horrek erakusten du zerbitzu aurreratuak estatuko bi metropoli gune nagusietan zentralizatuta daudela. Finantza eta aseguru sektorean, gainera, munduko gainerako herrialdeen (%16,0) eta Ipar Amerikaren (%3,7) presentzia nabarmentzen da, eta horrek adierazten du finantza sistema lurralde errotze eskasa duten kapital zirkuitu globaletan integratuta dagoela.

Helburua bikoitza da: alde batetik, bertako zerbitzu aurreratuaren eskaintza zabaltzea; eta, bestetik, haien balio erantsia eta lurralde errotzea sendotzea, ekonomiaren eraldaketarako beharrezkoak diren sektore estrategikoak lagundu eta indartzeko. Era berean, funtsezkoa da finantza sistemaren lurralde errotzea indartzea, tokiko ekoizpen sarearen beharretara bideratutako finantza tresnak sustatuz eta finantza gune global handiekiko mendekotasuna murriztuz.

Proposatzen diren neurriak:

- Informatika zerbitzuak eta ikerketa eta garapen jarduerak sustatzea, trantsizio ekosozialera bideratutako misio teknologikoen I+G sistema publiko baten bidez (ikus 5.2, Inbertsioa eta berrikuntza).
- Datu base publiko bat sortzea, industria zerbitzu aurreratuak eskaintzeko gai diren eragile publikoak eta kooperatibak identifikatzeko, lurraldean errotu gabeko aholkularitza pribatu handiekiko mendekotasuna murriztuz (ikus 5.5, Industria zerbitzu aurreratuak).
- Erosketa publiko estrategikoa ezartzea gastu publikoaren printzipio gidari gisa, lehentasuna emanez erakunde publikoek edo kooperatibek eskaintzen dituzten zerbitzu aurreratuak kontratatzeari, lurraldean errotu gabeko enpresa pribatu transnazionalen gainetik (ikus 5.5, Industria zerbitzu aurreratuak).
- Finantza sistemaren lurralde errotzea indartzea, garapenerako banka publiko bat sortuz eta BGAEetan metatutako aurrezkoa Euskal Herriko industriara eta etxebizitzara bideratuz (ikus 5.2, Finantza arkitektura eraldatzailea).
- Adimen artifizial publikoaren garapena sustatzea, behar sozial zehatzei erantzutera eta zerbitzu publikoen zein komunitate mailako ekoizpen sektoreen funtzionamendua hobetzera bideratuta (ikus 5.5, Burujabetza teknologikoa).

5.8.4. Desinbertsioa

Industria politika eraldatzaile bat ezin da mugatu sektore estrategikoak sustatzera: jarduera murrizteko edo pixkanaka uzteko erabaki esplizituak ere hartu behar ditu, ekologikoki, sozialki edo geopolitikoki jasanezinak diren adarretan. Funtsezkoa da desinbertsio publikoaren irizpide argiak ezartzea, eta, beharrezkoa denean, sektore jakin batzuetan debeku edo birmoldaketa neurriak aplikatzea, haien jarraipena trantsizio ekosozialaren eta burujabetza ekonomikoaren helburuekin zuzenean talka egiten duenean.

Desinbertsiorako lehentasunezko sektoreen artean daude erauzketa industriak, koke plantak eta petrolio findegiak, aire garraioa eta turismo globalizatuari lotutako jarduerak. Era berean, ezinbestekotzat jotzen da armen eta munizioen fabrikazioari lotutako sektoreari ematen zaion babes publikoa etetea eta sektore hori pixkanaka birmoldatzea, gaitasun industrialak eta teknologikoak sozialki erabilgarriak diren jardueretara bideratuz.

Sektore horietako desinbertsioak bidezko lan trantsizioekin batera joan behar du, eragindako langileen diru sarrerak bermatzeko, trebakuntza eta birkokatze planak garatzeko eta erabakiak hartzeko prozesuetan sindikatuen parte hartzea ziurtatzeko (ikus 5.2, Finantza arkitektura eraldatzailea, eta 5.3, Informazio, kontsulta eta kontrolerako eskubide sindikalak). Era berean, erregai fosiletako desinbertsio publikoa azpiegitura berrien blokeoan eta arlo horretako eskumenen transferentzia progresiboan gauzatu behar da, eskumen horiek pixkanaka Hego Euskal Herriaren esku geratu daitezen (ikus 5.3, Egungo araudi egitura gainditzea).

6. BIBLIOGRAFIA

Alcalde, H. et al. (2016) 'Gestión y liderazgo de procesos empresariales de transformación organizativa a través de agencias de desarrollo local', Cuadernos Orkestra. Bilbao: Fundación Deusto.

Albarracín Sánchez, D. (2023) 'Ondas largas: una revisión de la interpretación de Ernest Mandel tras 50 años de El capitalismo tardío', *Política y Sociedad*, 60(3)

Alberdi (2010) 'Economía vasca 1980-2010: tres crisis y una gran transformación', *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*, Núm. Extra 25.

Almazán, A. y González Reyes, L. (2023). *Una propuesta de hoja de ruta para la transición ecosocial de la economía de Hego Euskal Herria*. Manu Robles Arangiz Fundazioa.

Andreoni, A. y Chang, H.-J. (2019) 'The political economy of industrial policy: structural interdependencies, policy alignment and conflict management', *Structural Change and Economic Dynamics*, 48, pp. 136–150.

Aranguren, M. J., Magro, E., Navarro, M. y Valdaliso, J. M. (2021) *Estrategias para la construcción de ventajas competitivas regionales: el caso del País Vasco*. Madrid: Marcial Pons.

Bayo, A. (2000) 'La política industrial en Navarra: veinte años de experiencia (1980-2000)', *Economía Industrial*, 335–336, pp. 333–348.

Baixauli-Soler, J. S., Lozano-Reina, G. y Sánchez-Marín, G. (2023) 'Impulso de la política industrial España 2030 a partir de los fondos Next Generation EU', *Economía Industrial*, 428, pp. 41–50.

Bhattacharya, T. (2022) 'Lise Vogel (1938-) i la teoria de la reproducció social', *Catarsi*.

Brenner, N. y Schmid, C. (2013) 'The "urban age" in question', *International Journal of Urban and Regional Research*, 38(3), pp. 731–755.

Brenner, N. y Theodore, N. (2002) 'Cities and the geographies of "actually existing neoliberalism"', *Antipode*, 34(3), pp. 349–379.

Brenner, R. (2009). *La economía de la turbulencia global: Las economías capitalistas avanzadas del largo auge a la larga recesión, 1945-2005*. Madrid: Akal.

Brenner, R., Riley, D., Karp, M., Benanav, A., Anderson, G., Mann, G., Seaton, L. y Barker, T. (2024) *Sobre el capitalismo político*. Madrid: Traficantes de Sueños. ISBN 978-84-19833-19-8.

Brondino, G., Fora Alcalde, F. y Casau Guirao, M. Á. (2024) 'Measuring total labour productivity in the open economy: a proposal', *PSL Quarterly Review*, 77(309), pp. 173–193. Irakurgarri: https://rosa.uniroma1.it/rosa04/psl_quarterly_review/article/view/18495

Buisán García, M. (2023) 'La evolución de la política industrial europea y española en los últimos 20 años', *Economía Industrial*, 427, pp. 49–61.

Cámara de Comptos de Navarra (2013) *Informe de fiscalización sobre el Plan Moderna (2008–2012)*. Pamplona: Cámara de Comptos de Navarra.

Castillo, J. y Paton, J. (s. f.) *Política de promoción y reconversión industrial*. Bilbao: Universidad del País Vasco (UPV/EHU) e INFYDE, S.L.

Chang, D. (2009) Capitalist development in Korea: labour, capital and the myth of the developmental state. London; New York: Routledge. ISBN 978041545940.

Consejo de la Unión Europea (2025) Política Agrícola Común [página web]. Irakurgarria: <https://www.consilium.europa.eu/es/policies/the-common-agricultural-policy-explained/>

COTEC (s. f.) La complejidad económica en España [base de datos en línea]. Irakurgarria: <https://complejidadeconomica.cotec.es>

Departamento de Estudios, Laboral Kutxa (2021) Economía Vasca. Informe 2021. Bilbao: Laboral Kutxa. ISBN 978-84-946432-9-3.

Departamento de Estudios, Laboral Kutxa (2022) Economía Navarra. Informe 2022. Bilbao: Laboral Kutxa. ISBN 978-84-125750-2-6.

Di Meglio, G. et al. (2018) 'Services in developing economies: the deindustrialization debate in perspective', *Development and Change*, 49(6), pp. 1827–1855.

Durand, C. (2023) 'El retorno viciado de la política industrial', *Sidecar, El Salto Diario*, 18 mayo. Irakurgarria: <https://www.elsaltodiario.com/sidecar/vaciar-estados-nueva-politica-industrial>

Economistas sin Fronteras (2024) Transición ecosocial justa. Dossieres EsF, nº 52 (invierno 2024). Madrid: Economistas sin Fronteras.

ELA (2020) 'ELA presenta y registra en el Parlamento Navarro sus propuestas a la Ley Foral contra la deslocalización empresarial', *Noticia*, 15 octubre. Irakurgarria: <https://www.ela.eus/es/noticias/ela-presenta-y-registra-en-el-parlamento-navarro-sus-propuestas-a-la-ley-foral-contra-la-deslocalizacion-empresarial>

ELA (2024) 'Fondos Next Generation: dinero público para asegurar los beneficios de las grandes empresas', *Gabinete de Estudios [noticia en línea]*, 28 mayo.

Encinas Carazo, J. Á. (2023) 'Colapsistas, anticolapsistas y capitalismo verde', *Revista El Ecologista*, n.º 115. Irakurgarria: <https://www.ecologistasenaccion.org/292094/colapsistas-anticolapsistas-y-capitalismo-verde/>

European Commission (2005) Communication from the Commission: Implementing the Community Lisbon Programme - A policy framework to strengthen EU manufacturing - Towards a more integrated approach for industrial policy, COM(2005) 474 final.

European Commission (2016) Digitising European industry: reaping the full benefits of a digital single market, COM(2016) 180 final.

European Commission (2020) A new industrial strategy for Europe, COM(2020) 102 final.

European Commission (2021) Annual Single Market Report 2021: Commission Staff Working Document (accompanying the Communication "Updating the 2020 New Industrial Strategy: Building a stronger Single Market for Europe's recovery"), SWD(2021) 351 final.

European Commission (2021) Communication from the Commission: "Updating the 2020 New Industrial Strategy: Building a stronger Single Market for Europe's recovery", COM(2021) 350 final.

European Commission (2024) First annual report on key findings from the European Monitor of Industrial Ecosystems (EMI): Commission Staff Working Document (accompanying the Communication “The 2024 Annual Single Market and Competitiveness Report”), SWD(2024) 77 final.

European Commission (2025) A Competitiveness Compass for the EU. Communication from the Commission, COM(2025) 30 final. Brussels: European Commission.

European Commission (2025) EDIP | A Dedicated Programme for Defence, European Defence Industry Programme.

European Commission (s. f.) European industrial strategy [página web].

European Parliament (s. f.) General principles of EU industrial policy [factsheet en línea].

European Parliament and Council (2019) Regulation (EU) 2019/452 of the European Parliament and of the Council of 19 March 2019 establishing a framework for the screening of foreign direct investments into the Union, Official Journal of the European Union, L 79I, pp. 1–14.

Evans, P. (1995) *Embedded autonomy: states and industrial transformation*. Princeton, NJ: Princeton University Press.

Eustat – Instituto Vasco de Estadística (2024) La industria: panorama de la industria vasca 2024 [página web]. Irakurgarria: https://www.eustat.eus/panoramadelaindustriavasca/2024/la_industria.html

Fora Alcalde, F. (2018) ‘Capitalismo, turismo y la naturaleza rentista de la industria turística’, XVI Jornadas de Economía Crítica, León, septiembre. Irakurgarria: <http://www.asociacioneconomiacritica.org/comunicaciones/>

Franco, S. y Wilson, J. (2022) ‘Informe de Competitividad del País Vasco 2022: las bases de la competitividad en una época de incertidumbre’, Informe de Competitividad del País Vasco [preprint]. doi:10.18543/ofor4297

Future Policy Lab (2023) *El retorno de la política industrial*. Madrid: Future Policy Lab.

Gabor, D. (2023) ‘The (European) derisking state’, SocArXiv hpbj2, Center for Open Science.

García, C. y Fernández, R. (2021) ‘Desindustrialización y política industrial’, *Revista de Economía Mundial*, 59. <https://doi.org/10.33776/rem.v0i59.5642>

García López, G., Moral Carcedo, J., Pérez García, J. y Urquijo Martínez, M. (2022) Modelos de alta frecuencia para la economía vasca: MAFE y SASCAE. *Ikerketak-Ekonomiaz*, nº 2022-III. Vitoria-Gasteiz: Dirección de Economía y Planificación, Departamento de Economía y Hacienda, Gobierno Vasco.

GEEDS (Grupo de Energía, Economía y Dinámica de Sistemas), Universidad de Valladolid (s. f.) GEEDS [página web]. Irakurgarria: <https://geeds.es/>

Gobierno de España, Ministerio de Hacienda (2024) Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia [página web]. Irakurgarria: <https://www.fondoseuropeos.hacienda.gob.es/sitios/dgpmrr/es-es/paginas/plan.aspx>

Gobierno de España, Ministerio de Industria, Comercio y Turismo (2019) Directrices generales de la política industrial española, 25 de febrero. Irakurgarria: <https://industria.gob.es/es-es/Documents/Directrices%20Generales%20de%20la%20Pol%C3%ADtica%20industrial%20espa%C3%B1ola%2025.02.19%20FINAL.pdf>

Gobierno de España, Ministerio de Industria y Turismo (2024) 'El Gobierno aprueba la Ley de Industria y Autonomía Estratégica', Nota de prensa, 10 diciembre. Irakurgarria: <https://www.mintur.gob.es/es-es/GabinetePrensa/NotasPrensa/2024/Paginas/ley-industria-consejo-ministros-autonomia-estrategica-gobierno-aprobacion.aspx>

Gobierno de España, Ministerio de Industria, Energía y Turismo (2014) Agenda para el fortalecimiento del sector industrial en España, 11 de julio. Irakurgarria: https://www.mintur.gob.es/es-es/servicios/transparencia/Documents/Planes%20DPO/2014-Agenda_fortal_sector_industrial.pdf

Gobierno de Navarra (2016) Estrategia de Especialización Inteligente de Navarra. Actualización 2016–2030. Documento resumen. Pamplona: Gobierno de Navarra.

Gobierno de Navarra (2021) S4. Estrategia de Especialización Inteligente de Navarra 2021–2027. Pamplona: Gobierno de Navarra.

Gobierno de Navarra (s. f.) Industria Navarra [página web]. Irakurgarria: <https://www.navarra.es/es/web/industria-navarra>

Gobierno de Navarra, Dirección General de Política Económica y Empresarial y Trabajo (2017) Plan Industrial de Navarra 2020. Pamplona: Gobierno de Navarra, con la asistencia técnica de AIN.

Gobierno Vasco (2011) Ley 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi. BOE, núm. 279, 19 de noviembre de 2011. Irakurgarria: <https://www.boe.es/boe/dias/2011/11/19/pdfs/BOE-A-2011-18157.pdf>

Gobierno Vasco (2014) Plan de Internacionalización Empresarial 2014–2016 [página web]. Irakurgarria: https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/plan_programa_proyecto/13-plan-de-internacionalizacion-empresarial-2014-2016/

Gobierno Vasco (2017) 'El Gobierno Vasco presenta un plan de industria 2017–2020 que atiende el nuevo paradigma de la industria 4.0 y responde a las necesidades presentes de las pymes', Noticia, 7 septiembre. Irakurgarria: <https://www.euskadi.eus/noticia/2017/el-gobierno-vasco-presenta-un-plan-de-industria-2017-2020-que-atiende-el-nuevo-paradigma-de-la-industria-4-0-y-responde-a-las-necesidades-presentes-de-las-pymes/web01-s2ekono/es/>

Gobierno Vasco (2022) Plan de Inversiones Estratégicas de Euskadi 2022–2024. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco. Irakurgarria: https://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPT01/Noticias/PDF/514736145_202203301701028071405_22520.pdf

Gobierno Vasco (2024) Plan de ayudas del Gobierno Vasco dirigido a las pequeñas y medianas empresas de Euskadi. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco. Irakurgarria: <https://www.euskadi.eus/ekogarapena>

Gobierno Vasco – Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda (2019) Estrategia de Economía Circular de Euskadi 2030. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Gobierno Vasco, Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad (2014) Plan de Industrialización 2014–2016. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Gobierno Vasco, Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente (2021) Plan de desarrollo industrial e internacionalización 2021–2024. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. ISBN 978-84-457-3628-9.

Gobierno Vasco, Departamento de Industria, Comercio y Turismo (2006) Plan de Competitividad Empresarial e Innovación Social 2006–2009. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco. Irakurgarria: https://www.euskadi.eus/contenidos/plan/plan_competitividad/es_plan_com/adjuntos/plan_competitividad_es.pdf

Gobierno Vasco, Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo (2010) Plan de Competitividad Empresarial 2010–2013. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Grey Anderson (2023) 'Estrategias de negación: Bidenomics, geopolítica, guerra', Sidecar [blog], El Salto Diario, 21 junio. Irakurgarria: <https://www.elsaltodiario.com/sidecar/estrategias-negacion-bidenomics-geopolitica-guerra>

Hausmann, R. et al. (2013) The atlas of economic complexity: mapping paths to prosperity. Cambridge, MA: The MIT Press.

Ihobe (2016) Guía de compra pública verde y análisis de costes de ciclo de vida. Bilbao: Ihobe – Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial, Gobierno Vasco (septiembre).

Ihobe (2019) Diagnóstico de la reparación en la CAPV. Bilbao: Ihobe – Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco (noviembre).

Ihobe (2019) Guía para la promoción de la economía circular desde el ámbito local. Cuadernos de Trabajo Udalsarea 2030, nº 21. Bilbao: Ihobe, Sociedad Pública de Gestión Ambiental.

Ihobe (2020) Informe de análisis de ciclo de vida: comparativa ambiental entre diferentes alternativas de vehículos (eléctrico, híbrido y combustión). Bilbao: Ihobe – Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Gobierno Vasco.

Ihobe (2020) Errores habituales en la introducción de criterios ambientales en la contratación pública. Bilbao: Ihobe – Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Gobierno Vasco (con la colaboración de Ecoinstitut SCCL).

Ihobe (2016) Euskadi: una historia de éxito en compra y contratación pública verde. Bilbao: Ihobe – Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial, Gobierno Vasco.

Irekia – Gobierno Vasco (2023) 'Los sectores de la industria vasca prevén mantenerse o mejorar en los próximos meses', Noticia, 5 abril. Irakurgarria: https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/92480-los-sectores-industria-vasca-preven-mantenerse-mejorar-los-proximos-meses?criterio_id=774836

Irekia – Eusko Jaurlaritz (2017) Plan de Industrialización 2017–2020 "Basque Industry 4.0" [presentación en línea]. Irakurgarria: <https://www.slideshare.net/Irekia/plan-de-industrializa-cin-20172020-basque-industry-40>

Irekia – Eusko Jaurlaritz (2024) 'El Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales refrendan su compromiso para impulsar proyectos compartidos en favor de una industria sostenible', Irekia, 24 julio. Irakurgarria: <https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/94932>

Iturrioz Landart, C., Aranguren Querejeta, M. J., Aragón Amonarriz, C. y Larrea Aranguren, M. (2005) '¿La política industrial de clúster/redes mejora realmente la competitividad empresarial? Resultados de la evaluación de dos experiencias en la Comunidad Autónoma de Euskadi', *Ekonomia*, (60), Vol. II, 3er cuatrimestre.

La Moncloa (2011) 'Aprobadas las líneas generales del Plan Integral de Política Industrial 2020', Consejo de Ministros. Irakurgarria: <https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/paginas/enlaces/300710-enlaceindustria.aspx>

Lebowitz, M. (2011) La alternativa socialista: el verdadero desarrollo humano. Irakurgarria: <https://michaelalebowitz.com/wp-content/uploads/2021/02/LA-ALTERNATIVA-SOCIALISTA-1.pdf>

Linares, P. (ed.) (2021) Papeles de Energía, nº 12. Red MENTES: red temática de modelización energética para una transición energética sostenible. Madrid: Funcas (febrero). ISSN 2445-2726.

López, A. M., Dones, M., Pérez, J., Pascual, X. y Urquijo, M. (2022) Modelos clásicos de análisis y previsión de la economía vasca: ELUSE y MOSTEVA. Ikerketak–Ekonomiaz, nº 2022–II. Vitoria-Gasteiz: Dirección de Economía y Planificación, Departamento de Economía y Hacienda, Gobierno Vasco.

Marshall, A. (1963) Principios de economía. Madrid: Aguilar.

Martín-Gómez, A. y Sales-Favà, J. (2024) 'Impacto social del urbanismo de las ciudades emprendedoras: el caso del 22@ Barcelona y sus afectaciones en la vida cotidiana del vecindario', Ciudad y Territorio Estudios Territoriales, 56(221), pp. 801–816.

Mazzucato, M. (2016) 'From market-fixing to market-creating: a new framework for innovation policy', Industry and Innovation, 23(2), pp. 140–156.

Mazzucato, M. (2018) The entrepreneurial state: debunking public vs. private sector myths. Harlow: Penguin Books.

Mazzucato, M. (2021) Mission economy: a moonshot guide to changing capitalism. Nueva York: HarperCollins.

Mazzucato, M. (2021) 'From moonshots to earthshots', Project Syndicate, 11 febrero.

McMillan, M. y Rodrik, D. (2011) 'Globalization, structural change and productivity growth', in Bacheffa, M. y Jansen, M. (eds.) Making globalization socially sustainable. Geneva: ILO/WTO, pp. 49–84.

Medina de Arespachaga, A. y Fernández-Villamea, P. (2024) 'Proyecto de Ley de Industria y Autonomía Estratégica: un binomio perfecto', Cinco Días, 19 diciembre. Irakurgarria: <https://cincodias.elpais.com/legal/2024-12-19/proyecto-de-ley-de-industria-y-autonomia-estrategica-un-binomio-perfecto.html>

Miró i Acedo, I. (2018) Ciutats cooperatives: esbossos d'una altra economia urbana. Barcelona: Icaria Editorial. ISBN 978-84-9888-827-0.

Moulaert, F. (2002) Globalization and integrated area development in European cities. Oxford: Oxford University Press.

Moulaert, F., Parra, C. y Swyngedouw, E. (2014) 'Ciudades, barrios y gobernanza multiescalar en la Europa urbana', EURE. Revista latinoamericana de estudios urbano regionales, 40(119), pp. 5–24.

Muñío, E. S. (2020) 'Green New Deal, decrecimiento y exterminismo: notas para después de Trump', El Salto Diario, 1 diciembre. Irakurgarria: <https://www.elsaltodiario.com/el-rumor-de-las-multitudes/green-new-deal-decrecimiento-exterminismo-trump>

- Myro, R. (2021) 'El futuro de la industria española', *Revista de Economía Mundial*, 59.
- Naqvi, N. (2021) 'Industrial policy and risk sharing in public development banks: lessons for the post-COVID response from the EIB and EFSI', *Revista de Economía Mundial*, 59, pp. 67–91.
- Nieto, J., Carpintero, Ó., Miguel, L. J. y de Blas, I. (2020) 'Macroeconomic modelling under energy constraints: global low-carbon transition scenarios', *Energy Policy*, 137, 11090.
<https://doi.org/10.1016/j.enpol.2019.111090>
- Nordhaus, W. (2008) 'Baumol's diseases: a macroeconomic perspective', *Journal of Macroeconomics: Contributions to Macroeconomics*, 8(1).
- Novy, A., Coimbra Swiatek, D. y Moolaert, F. (2012) 'Social cohesion: a conceptual and political elucidation', *Urban Studies*, 49(9), pp. 1873–1889.
- OMAL (2022) Análisis de los fondos Next Generation EU: objetivos, desarrollo e impactos sobre los ecosistemas y los derechos humanos [informe].
- Plaza, B. (2000) 'Política industrial de la Comunidad Autónoma del País Vasco: 1981–2001', *Economía Industrial*, 335/336, pp. 299–314.
- Plaza Inchausti, M. B. y Velasco Barroetabeña, R. (2001) *Política industrial de las comunidades autónomas: análisis de la descentralización de la política industrial española, 1980–2000*. Bilbao: Círculo de Empresarios Vascos. ISBN 84-88916-66-3.
- Porter, M. E. (1990) *La ventaja competitiva de las naciones*. London: Palgrave.
- Porter, M. E. (1998) *Ser competitivos: nuevas aportaciones y conclusiones*. Bilbao: Ediciones Deusto, pp. 203–288.
- Roberts, M. (2016). *La larga depresión. Cómo ocurrió, por qué ocurrió y qué ocurrirá a continuación*. El Viejo topo.
- Summers, L. H. (2016). The age of secular stagnation. *Foreign Affairs*, 95(2), 2-9.
- Shaikh, A. (2022) *Capitalismo: competencia, conflicto y crisis*. Trad. de R. R. Reyes Mazzoni. Ciudad de México: Fondo de Cultura Económica
- Sheppard, E., Leitner, H. y Maringanti, A. (2013) 'Provincializing global urbanism: a manifesto', *Urban Geography*, 34(7), pp. 893–900.
- Velasco, R. (2000) 'La descentralización de la política industrial española: 1980–2000', *Economía Industrial*, 335–336, pp. 15–34.
- Vicente Basterra, U. (2024) *Cuatro décadas de transformaciones productivas: balance y perspectivas para el ciclo actual*. Bilbao: Universidad del País Vasco (UPV/EHU).
- VVAA (2021) 'The post-pandemic playbook', *Project Syndicate*, 11 febrero. Irakurgarria:
<https://www.project-syndicate.org/onpoint/the-post-pandemic-playbook>